




400 anaitasuna 400

1980.Ko EKAINA OSOA. UZTAILAREN LEHENA.403. ALEA 80 PZTA.

Arrazakeria nardagarria Estatu Batuetan

“Prakaman”. Kilikilarien lehen antzerkia euskaraz

Dolça Villalongak: “—calienta poyas— naizela iruditzen zaio hainbati”



Porque lo nuestro es Vizcaya

Bizkaia geurea delako


Coupe en nosotros

Zere nstea gurean



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

aurkibidea



3. Aurkibidea
4. Artikuluburua
5. Agiriak
6. Zestoako topaketak. X. Portu
8. Tarrapatatan. Emakumea eta Herriko festak. M. Landa
9. Iribarri esker onez Txepetxa
10. Bertso berriak Santamañenekoari jarriak. E. Knör.
12. Anaitasunaren zuzendari jauna. Santamañeneko.
13. Prakaman, I.A.
18. U.E.U. Sabin Oregi
22. Haurrak egiten du. M. A. Landa, B. Sunkuntza, R. Elizegi.
26. Hamabost egun hankaz gora: "La Moral del Tráfico".
Preiraultzaile egoera hau.
28. Arrazakeria nardagarria EEBBtan T. Trifol.
29. Haur euskaldunei laguntza eske. M. Landa.
30. Zer gertatzun da Kuban? T. Trifol.
32. Elkarrizketa biziak.
34. Ekonomiaz. J. Iruretagoiena.
35. Maldrilgo lagunei. K. Santisteban.
Komunean irakurtzeko gaiak T. Trifol.
36. Manex Urruti. A. Eguskitza.
40. Kurutziagako gurutzea apurtu zigutela eta Hibaikoa.
42. Julian de Tellaetxe-ren erakusketa omenaldiaz. J. Sendagorta.
46. Krisi ekonomikoa eta trilateral. Galtzagorri.
48. Dolca Villalonga.
J. Zerrato/Idazkuntza.
50. Joan Bobo. K. Santisteban.
52. Saltsa berdea, gorria eta... zuria
53. Postaz etorriak.
54. Gurutzegram. L. Trask.

anaitasuna

KOORDINAKETA
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA
M.Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana,
A. Eguzkitza, J. R. Etxebarria,
M. Izagirre, J. Llerandi
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

K. Mendia

BIZKAIA

J. Alvarez, J.A. Macias, X. Gomez,
T. Trifol, J. Zerrato

GIPUZKOA

M.A. Landa, S. Oregi, A. Oiartzabal,
I. Urtasun

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

B. Zabaleta, I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Aldana, M.J. Esteban

IDAZLEAK

P. Agirrebaltzategi, I. Antiguada, M. Aldana, I. Alvarez, J.L. Alvarez, J. Artzelus, J.M. Artzubiaga, B. Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzkitza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.R. Etxebarria, M.J. Esteban, J. Iturbe, M. Izagirre, M. Kaltzakorta, X. Kintana, M.A. Landa, J. Llerandi, J. Mendizabal, J. Orbezuza, S. Oregi, M. Otazurialde, M. Pagola, X. Portugal, K. Santisteban, J. Sarrionaindia, T. Trifol, I. Urtasun, J.E. Urrutia.

LANKIDEAK

K. Arko, J.J. Bakedano, X. Gomez, J. Idigoras, J.A. Macias, L. Trask, J. Zerrato.

FOTOGRAFOAK

A. Alday, S. Barrena, Txaber, R. Zarrabeitia, J. Zerrato.

MAKETAPENA

Gorka Urrutikoetxea, R. Zumalabe.

KOMIKIAK

X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

MARRAZKILARIAK

Ttua Taldea

PUBLIZITATEA ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide 68-entlo. BILBO 6
Tfnoa: (9-4) 433 5808

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

lege G.D.L. Bi-1753-1967

PRINTED IN THE BASQUE COUNTRY



Uztailak bat Nafarroako biltzarreak "forua hobetzeko" oinarriak onartu egin zituen UCD, UPN, PSOE eta Zufiaren bozka laguntzaz.

"No a la insolidaridad, a cualquier independentismo, al jacobinismo inhumano y al centralismo avasallador". "Jacobinismo inhumano" delakoarengatik Arbeloak Espainiako telebistaren "folletonak" ikusten ohi dituela garbikiro konturatzen gara, —Josephine— delakoa batez ere, eta "folletonaz" jakintsua bada ere, historiaz behintzat zero hutsa eman behar diogu, Napoleon berri bat sortaraztea bere desirkunde ezkutaren bat ez bada. Delako hitzen esangura kausitzeko ez da oso azkarra izan beharrik zeren, berehala aurki genitzake nortzu zitezkeen haren ustez jakobinoak, nortzu independentistak, nortzu deslagunak eta azkenez eta beti haren ustez, nortzu zentralista menperatzaile bakarrak. Ez dugu hala ere, UPNri eta Arbeloaren alderdi berari dagokien kalifikagarririk aurkitu eta baliteke lehengo haiek eskuinean egiten dutena, bigarren haiek ezker mailan gauza bera egiten saiatzea, hots, jauntxokeria eta notablekeria.

Anaitasuna batetan (389.alean, 29.or.) aipatu genuen araura, erkidego autonomo bat Nafarroa bilakatu nahi zutela garbi ikusten da ordu honetan. KAS-en aldeko batzuren ustez, autonomi estatutu horren defentsan ari ziren guztiek bildu beharko dituzte orain beren uzta onuragarriaren fruitu eiharrak. Tamalez delako horiei, Euskal Herria axola bazale, ehiarakeria horrek edo eta bestek herri oso bat harrapatzen duela char-tu beharko diegu eta baldin ETA (M), ETA (PM), E.E., LAIA, KAS, HB, LKI, EMK, Autonomoak eta abar gure etsai amorratuak ez direla bada-kigu, askorentzat direla ematen du. Ez gara EAJz, PSÉz, UCDz eta UPNz mintzatzen ari baizik eta lehen aipatutako horien guzioien artean ematen diren erreiarta antzuz.

Rosonek eta beste batzuk besterik ez dute nahi eta Nafarroan denak berdin pagatuko ditugu gure intrantsijentziak.

XV JAZZALDIA

2. Txostena

Art Blakey, Carmen Mc. Rae, Freddie Hubbard, Gato Barbieri eta Duke Ellington-en Orkestra —haren seme Mercer Ellington-ek zuzendurik—, munduko jazzaren beste izen ospetsu batzurekin batean, izanen dira partaide Donostiako aurtengo Jazzaldian, Jaialdia Donostiako Kultur eta Turismorako Ekintzetxeak antolatzen du eta uztailak 23tik 27ra bitartean ospatuko da.

Ohi denez, Jazzaldiak zati bat bereziki amateur taldeei eskeinitako dio, Europan musika arlo honetan ari diren taldeak eutsi eta ezaguteraztearren helburuz. Ihaz beraie bereziki eskeinita dagoenarik.

Europa guztiko alderdietatik etorritako eskakuntza denentartean, Hauta Batzordeak —behin bidalitako kasetak guztiak aztertu ondoren— Sariketaren partaide izanen diren sei taldeak izendatuko ditu. Batzordeak berak aipatu duenez, taldeen kalitatearen maila benetan bikaina da.

Aurtengo berrikuntza hauxe dugu: Euskal Herriko amateur taldeen tizat eratu den Lehiaketa, uztailak 25eko —igandeko— goizean, Udalaren Polikiroldegian. Saio honetan bost taldek hartuko dute parte eta sarrera dohainez aurkituko dugu. Anoetako Polikiroldegian ospatuko dira aurtengo jaialdi guztiak.

Bestalde, jazz zinemaldiak irauten dute aurtenera, beren sorreratik izan duten arrakastarengatik. Halaber, saio batzua irekitan eratuko dira, hirian zehar.

Profesional diren talde eta banaka batzuri egintza zenbait baieztatu ez direlarik, aurtengo programakuntzarako aurreapena honela gera daiteke:

Uztailaren 23an:

Jazz zinemaldiak (D.A.K. eta G.A.K. ren Kultur Aretuetan)
Udal Polikiroldegian:
AMATEUR TALDEEN

“NON STOP” LEHIAKETA.

Uztailak 24ean:

Jazz zinemaldiak (D.A.K. eta G.A.K. ren Kultur Aretuetan)

Boulevardeko Kioskoan jazzaldia

Udal Polikiroldegian:
Amateur Lehiaketaren sarien ematea

DUKE ELLINGTON-EN ORKESTRA, MERCER ELLINGTON-EK ZUZENDUTA

Uztailak 25ean:

Udal Polikiroldegian:
EUSKAL HERRIKO AMATEUR TALDEEN LEHIAKETA

Jazz Zinemaldia (D.A.K. eta G.A.K. ren Kultur Aretuetan)

Boulevardeko kioskoan jazzaldia

Udal Polikiroldegian:
CARMEN MC RAE (Hirukotea)

FREDDIE HUBBARD QUINTET (Freddie Hubbard, Dave Schbitter, Billy Childs, Larry Klein eta Karl Burnett).

Uztailak 26an:

Jazz zinemaldia (D.A.K. eta G.A.K. ren Kultur Aretuetan)

Boulevardeko kioskoan jazzaldia

Udal Polikiroldegian:
GATO BARBIERI

Uztailak 27an:

Jazz zinemaldia (D.A.K. eta G.A.K. ren Kultur Aretuetan)

Boulevardeko Kioskoan jazzaldia

Udal Polikiroldegian:
ART BLAKEY'S BIG BAND

“ANDIMA IBINAGABEITIA SARIA. 1980”

Sariketaren oinarriak

1.- Iragan urteetan bezala, aurtenera Caracaseko “EUSKERA LAGUNEN ELKARTEAK” (E.L.E.) izenburu honekin, urteroko saria eratzten du euskal idazle eta jakintsuentzat euskararen indaberritze, sakontze eta batasuna helburutzat hartuz. Gai orokorra: SAIO edo TESINA lanak eta aurtengoa. LITERATUR alorrekoa.

2.- Lanak, Euskaltzaindiak gomendatutako EUSKARA BATUAN idatzitakoak izatea da E.L.E. ren gogoia, baina literatura balioak lehenago kontuan izanik.

3.- Egileek beren kabuz eginak izan behar dira. Ez dira ontzat hartuko, ez itzulpenik ez eta besteetatik egindako antolamendurik ere.

4.- Lanen neurriak 100 orri gutxienez, alde batetik makinaz idatzia eta lerro uneak zuri utzirik, folio edo DIN A-4 paper neurrian.

5.- Sari bakarra, 1.000.- dolar USAkoa eta eman beharrezkoa izango da.

6.- Lanak argitara gabeak izan behar dira eta hiru kopia bidali behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Arbieto, 3 Bilbao-8) Ekainaren 27a baino lehen, lema batekin izenpetua eta lema- en giltza estaldua egilearen izen eta deiturekin, lanarekin batera igorriaz.

7.- Epai-mahaia, E.L.E. ren ize- nean, Euskaltzaindiak izendatuko du.

8.- Saria Abuztuaren lehen, Berako Euskal Jaialdi eta Lore Jo- koen mendeurren ospakizune- tan emango da.

9.- Arau hauek interpretatzean sortzen diren arazo guztiak epai-mahaiak erabakiko ditu, behar izanik E.L.E. ren zuzenda- ritzen laguntzaz eta erabakien kontra inora joaterik ez da egongo.

10.- Urte beteko epea ematen zaio 1.000. —dolar USAko lana- ren egileari bere lan saritua ar- gitaratzeko. Horrela izan ezik, E.L.E. k bereganatuko ditu lana- ren gaineko eskubide osoak.

Euskarazko Antzerkiaren TORIBIO ALTZAGA saria

Euskaltzaindiak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean, 1980. ko “Toribio Altzaga” eta “Felipe Arresabeitia” Antzerki Sariak eratzten ditu.

OINARRIAK

Lanei buruzkoak

1. Sari hauetara euskaraz idat- zirikiko edozein antzerki-lan eta olerki-lan aurkeztu daitezke egi- learen adina, bizilekua edo na- zionalitatea edozein izan ahal delarik.

2. Sariketara aurkezturiko la- nek orijinalak eta sekula argita- ra eman gabeak izan behar du- te, beste lanen baten itzulpenik edo moldaketarik onartzen ez delarik.

3. Ez Bizkaiko Aurrezki Kutxak ez eta Euskaltzaindiak eran- tzungo dituzte egileek aurreko araua ez betetzeaz. Egileen heuren zintzotasunaren esku gelditzen da, beraz.

4. Bigarren arau hori ez dela bete egiaztatuko balitz, erakun- de eratzaille biok eska lezakete saria itzultzea, emanda baldin balego.

Aurkezpenari buruzkoak

5. Lan orijinalak gura den neurrikoak izan daitezke. Alde batetik eta tarte bika meka- nografiaturik aurkeztu beharko dira.

6. Lanak, 1979-ko urriaren 31 baino lehen, hiru aldakirekin, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamentura bidali- ko dira: 238 apartatua, Bilbora. Lanaren amaieran, lema bat jarriko da, eta hertsirik aurkez- tuko den kartazal batetan, kan- poaldean lema hori jarriko da, eta barrualdean egilearen izen abizenak, bizilekua, telefonoa eta firmarekin batera.

Mahaikoei buruzkoak

7. Mahaia literatur alorreko pertsonalitate egokiek osatuko dute, Euskaltzaindiak izendatu- ko du, Bizkaiko Aurrezki Kutxa- rekin akordioz. Erakunde honek epai-mahaiko idazkaria izenda- tuko du, boza izanik baina botu- rik gabe.

8. Epai-mahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

Sarietak

9. Bizkaiko Aurrezki Kutxak 200.000 pesetako sari bana jarri du.

10. Sariketaren dirutza hau sa- ri desbardinetan banatzea mahaikoen esku geratzen da, beti Bizkaiko Aurrezki Kutxak dirutza hori guztiz banandua izan daitenaren gogoia beteaz.

11. Erabakia 1980-ko aben- duaren 8-a baino lehen iragarri- ko da.

Lanen jabetasunari buruzkoak

12. Saritutako lanen jaube egi- leak eurak izango dira, baina ezin argitaratu izango dute la- nori urtebetean golan aipaturi- ko erakunde baimenik gabe.

13. Saritutako lanak argitara- tzekean derriorrez aipatu beharko irabazitako Saria.

14. Bizkaiko Aurrezki Kutxak saritu lanok argitaratzeko esku- bidea izango du lehen esandako epean, egileei adieraziaz esku- bide horretaz baliatuko direla.

Lanen itzultzeaz

15. Epai-mahaikoen erabakia jakin ondoren, plikak zabalduko dira, eta saritu gabeko lanak beraietan jarririko norabide- etara bidaliko dira.

Oinarria hauek ulertzeaz eta onartzeaz

16. Sariketa hauei buruzko gal- dera oro, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Departamen- tura zuzendu beharko.

17. Errekurtsorik aldatu gabe. Bizkaiko Aurrezki Kutxak dei honen tramitazioan eta sarike- taren joaten sorturiko gora- beheak, erabaki ditzake.


18. Sariketara hauetara aur- kezteak, oinarri hauen onartze oso bat eskatzen du.

ZESTOAKO TOPAKETAK BESTE PAUSO BAT AURRERA

Zestoako Topaketak ospatzen ziren bitartean, Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak proposaturiko manifestapenaren prestakuntza egiten ari zen eta larunbat hartan Donostian jendeak dei horri erantzun zabal bat eman zion.

Dударik gabe manifestaldiaren helburua ez zen bakarrik euskarak eta euskaldunok jasaten dugun egoera salatzea, kulturaren arlo guztietan euskararen erabilpena potentziatzea baizik.

Ez dugu ezer lortuko euskal erakundeek diru laguntza batera mugatzen badute beren ekintza. Euskarak arlo ofizialean duen baliotasuna adierazi beharko dute eta herriaren burruka hau bultzatu, baina euskara salbatzeko dagoen bide bakarra, euskara erabiltzea da.



Beste bide batetik, baina azken finean, asmo bera lortu nahi duten Zestoako Topaketak aurkezten ziren. Dena dela, fenomeno berbera isladatzen zuten bi ekintza hauek: Euskal kultura, bere hizkuntzak dituen arazoekin topatzen ari dela beti, txanpon baten bi aldeak baitira. Horregatik, eta beste mila arazoen-gatik, erantzuna ez zen handia izan, eta hor komunikabideek badute zer ikusirik. Iristen ari ote gara, aipatu zen bezala, euskal zentralismo batetara? Hau bera esango al genuke Donostian, Bilbon edo beste euskal hiriburu batean antolatuko balira Euskal Zinemaren Topaketa hau?

Gainera, gaurko gaian zentratuz, oso filma interesgarriak ikusi genituela aitor-

tu behar dugu. M.A. Kintanaren "Mantis Relijosa" alde batera utzirik, aldizkari honetan aztertua izan baitzen Donostian aurkeztu zenean, M^a J. Fonbellidiek "Gure Herria VI" filmaren bidez bere didaktismo etnolójikoari jarraipen jator bat ematen dio, oraingo gaia xisteran oinarrituz. Anjel Lermaren "Oporraldiak mendian" filmak, bere akoplamentuari esker, familia erreportaje huts bat ez izatea lortzen du. Bestaldetik marrazki animatuetan ikus ahal izan genuen filma bakarra, Edorta Elosegiren "Potx eta Kronk", oso landua ez egon arren, oinarri bat izan daiteke, teknika horretan jarraitzen badu egileak.

A. Goenagaren "Urola burdin bidea" filmak, egilearen lehenengoa izan arren, Elosegiren kasuan bezala, oso aurkipean

interesgarriak ditu. Baikira taldearen "Hiru kontaketa labur" aipa genezake hain gutxi landu den fikzio mailan. Carlos Spozzioren "koadro zuria" eta Luis Larrañagaren "Norena da herria" ezin ditugu ahaztu, baina, ene ustez apartaketa inportanteenak Martin Garzia eta Azpeitiko Zine Klub taldearenak izan direla ez dago ukatzerik. Martin Garziaren "Erlauntza" eta "Euskal Herriko azken artza" luzeegiak izan ditezke agian, baina badute biek bere interesa. Lehenengoan, erleen bizitza azalduz, gizonekiko harremanak eta jasaten dugun zapalketa adierazten digu eta bigarrenean berriz Nafarroako Pirineoetan azkena izan daiteken artza ikusten dugu, egoera honek euskal animaliaerantzat ekar ditzaken ondorioetan pentsaraziz.

Azpeitiko filmak erabat ezberdinak dira, bai beren artean edo ta Zestoan ikusi genituenekin gonbaratuz. "Ekinox" laburmetraiak irudia sakondu nahi du, irudimena libre utziz. "Euskararen bideetatik" filman, nahiz oso gauza onak egon, bere balioa piska bat galdu edo egiten du, zenbait gauza, seriooki hartuak, lotsagarritu nahi dituelako. "Amuarrak" Urolako kutsadurari buruz mintzatzen zaigu. Talde honek lortu dituen finkapena, kalitatea eta seriotasunak nabarmenak dira, eta horregatik bere kideetako birekin hitz egitea interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu, gaur egun irudimena eta euskal zinemaren alde lan egiteko gogoak ez direla hil frogatzeko. Bestaldetik, eta ikuska sailarekin gertatzen den bezala, talde bat izatea esperientzi jator bat izan daiteke helburuak ezagutzen baditugu.

- Zenbat lagunek osatzen du zen taldea?

- Gure taldean hamar, hamabi lagun gaude.

- Talde hau nola sortu zen, Zine Klubeko beste ekintza bat bezala ala pertsonalki sortu den zerbait izan

da, dudarik gabe Zine Klubaren inguruan?

- Lehenengoz, herrian hutsune bat zegoela ikusi genuen. Ez zen nahiko pelikula batzuk botatzea ezta euskaraz aurkeztea edo komentatzea. Orduan lau edo bost pertsona hasi ginen zerbait egin nahiean; hortik jendeak erreazionatu zuen eta gure helburu bezala, eta gure ahalmenen arabera, euskal zinemari bultzada txiki bat ematea pentsatu genuen. Horregatik hasi ginen zinema egiten.

- Orain arte dokumental eta experimentaziozko filmak egin dituzue. Nola aukeratzen duzue gaia?

- Hamabi lagun bagaude taldea, bakoitzak bere ideiak aportatuz gero, denak aztertzen ditugu, eta batzuk oztopo tekniko asko dutelako edo gehieneri ez zailako gustatzen, baztertu egiten ditugu. Orduan ideia batekin denok edo gehienerik ados baldin bagaude, eta teknikoki egingarria baldin bada, hori da taldeak aukeratzen duena.

- Eta nola aukeratzen duzue filma bakoitzaren errealizazioa?

- Pelikula batzuetan gidoia eta errealizazioa demokratikoki eta denon artean erabakitzen dugu, baina honek, alde batetik ideia asko jaso arren, oztopo tekniko asko dakar berarekin, ideia guztietan ados jartzea zaila baita. Bi pelikuletan horrela egin dugu, baina besteetan ideia orokorrak hartu eta gero pelikula egitean, kamarak edo direnak elaboratzen dute lan guztia.

- Filma egiteko egin behar dituzuen lanak aldatzen duzuen zuen artean, ala bakoitzak zer egin berezirik badu?

- Bai, adibidez, 3 gera kamara erabiltzen dugunok, gero batek akoplamendua egiten du, eta horrela beste dena. Bai, bakoitzak badu bere lan berezia talde barruan.

- Euskal zinemaren barruan, talde bezala, murgiltzen ari zeratenez gero, zein da zuentzat taldearen garrantzia?

- Bai, taldearen gai hau oso importantea da, zeren Zestoan Lehenengo Topaketak jzan zirenean, orduan gauza oso pertsonalki zihoala ikusi genuen, eta euskal zinemari dagokionez, guk oso interesgarritzat jotzen dugu gidoia, gidoi teknikoa, akoplamendua, etab, talde mailan aztertzea nahiz gero bakoitzak bere lana bete behar. Gainera nahiz batzuk besteak baino gehiago aportatu, besteen ideiak ere kontutan edukiaz, zerbait aportatzen da eta emaitza askoz hobe izango da beti.

- Gaur hemen, Zestoan, Super-8 eta beste neurriko pelikulen garrantzia aztertu dute mahai inguruan. Zuen lana Super-8n zentratzen duzue, ezin duzuelako beste neurri batzuetan lanik egin, edo ikusten duzue honek ere baduela bere posibilitateak lan jator bat egiteko?

- Dokumental edo erreportaia bat egiteko balio du Super-8-k, baina filma tradizional edo argumendal bat egiteko, bere historia eta gidoi luzearekin, gustora hartuko genuke beste formato handiagotan lan egitea. Baina hori gaur gure presupostutik kanpo geratzen da. Baina asmo bezala bai. Gainera beste formato horiek askoz zabalkunde handiago dute. Hori ez dago ukatzerik. Dena dela, horrekin ez diogu Super-8-ri garrantzia kendu nahi; adibidez, ikastoletarako, elkarteetarako etab. oso balioetsua izan daiteke, eta baita ere zinemagileen eskola bezala.

- Orduan, fikzioa nola planteatzen duzue?

- Gaur egun Super-8-n dagoen arazo handi bat soinu zuzenarena da. Oso zaila da gero, zuzenki ez bada hartu, elkarhizketa hori filmari eranstea. Eta hau ez badugu lortzen, automatikoki dokumentala edo erreportaia egitera pasatzen gara, besteak, fikzioak, arazko asko dakarrelako berarekin. Gainera fikziozko gidoiak oso gutxitan landu du jendeak hemen, Euskadin, eta erabat beharrezkoa da.

- Azkenik, Zestoa, Donostia edo Bilboko Zinemaldiak direla eta, nola ikusten duzue zuek Topaketa eta ekintza hauen garrantzia eta etorkizuna?

- Dudarik gabe hau dena oso interesgarria da, bakoitzak egiten duen filmaren zabalkunde eta ezagupiderako beharrezkoak baitira, beste beti laguneren zirkuluan geratuko gara, eta gure euskal zinemaren kasuan, zenbait eta jende gehiagok ikusi hobe, euskal zinema finkatu arte behintzat. Gero filma bakoitzak bete tokia edukiko du, telebistan, ikastoletan etab. Gainera holako lekutan beti beste egileak ezagutzen ditugu, eta bakoitzaren esperientziak elkarrekin aztertzea oso positiboa da, teknika sakontzeko, batzuen laguntza eskatzeko etab.

FILMOGRAFIA.-

Kutsadura
Zinegileen lehengo pausoak
Gizona-lana-makina
Mini-marathon
Serguei Eisenstein
Euskararen bideetatik
Ekinox
Amuarrak

Ateratzen ari gara tuneletik. Hor dago talde honen lana frogatzeko. Baina gaur ez da nahikoa euskal telebista bat eskatzeko, oinarriak jartzen lagundu gabe. Ez dezala gero inork esan laguntza eskatzen denean, zerbait oihukatzeagatik egiten denik, teknikorik ez dagonik, etab.

Gaurko giroan holako lanek gure kritika baino, denok ikustera eta egileekin eztabaidatzera joatea hobe dute. Euskal zinema eta euskal kultura oihuka eskatzen ari dira hori.

X. Portu

TARRAPATATAN! EMAKUMEA ETA HERRIKO FESTAK. EMAKUMEEN MATXINADA?

Nere firma eskatu zidaten lehengo egunean. Zertarako izango ote eta emakumezkoak herriko danborrada batetan parte hartzeko. Baina, nola (eta papera eskaintzen zidana gizonezkoa zen...) honek prolemarik sortzen al du, bada?.. Horixe baietz prolemak sortzen zituela erantzun zidan ene lagunak. Nerriko elkarte gehienak horren aurka daude. Gogorki. Danborrada zuzentzen duena, ezetz!, aurten berak ez duela herriko danborrada zuzenduko esaten omen du.. Eta harekin bat eginda, herriko seme asko boikotaren alde omen daude.



Beste aldetik hor dugu Nafarroako Feministen Kordinakundeak peña guztiei zuzendu dien gutuna: Ez dutela madrina bakarrik izan nahi dazoten San Fermin jaietan. Peñetan eta festetan parte hartu nahi dutela eta tradizioren alde txarrak eta zapaltzaileak baztertu edo gainditu beharko direla, diote.

Donostia aldean, joan den San Sebastian egunean, ederra armatu zuten Kresala sozietateko neskek danborradan parte hartu zutelako.

Ihaz, Irunen, emakumeak alardeko kantinera bakarrik izatearen aurka altxatu ziren eta Gazteizen lortu zuten emakumeen "blusa" lehen talde ateratzea...

Beraz, ederra armatzen ari gara emakumeok! A, zer nolako dardara herri bantentzako emakumeok osoki festetan parte hartzeko eskubidea exijitzen dugunean! Bazter nahastaileak besterik ez gara gu! Zer nolako ausardia, lotsagabekeria, indezentzia!... Hola jarraituz gero, zer ez da ikutugabe geldituko? Ez al

dugu, bada, nahikoa emakumeok, madrina, kantinera, "reina-de-la-fiesta" izatearekin edo?

TRADIZIOA! TRADIZIOA!

Eta errebindikapen guztiei ematen zaizen erantzuna tradizio saildun datza. Tradizioa! Hau da, ohizkoa dena. Baina, ez dut uste tradizio famatua derrigor aldagaitza izan behar duenik. Danborradari dagokionari behintzat, aldaketa asko ezagutu ditu honek azken urteotan. Zaratarik gabeko aldaketak: uniformeak, ordu aldaketak, musika berriak, "Bella Easo" eta haurren danborrada...

Gainera, ene eritziz tradizioa kritikagarria izan daiteke. Herri batek, bide aurrerakoi batetan abiltzen bada, berplanteatu beharko ditu zenbait ohitura, desberdintasunaz, zapalkuntzaz eta marginaizoz kutsaturik baldin badaude, behinik behin. Normala da, emakumeok, gizarteko gorabeheretan parte hartzeko borrokatzen ari garen adinean, festetako gorabeheretan borrokatzea ere. Ezta?

BESTE ALDE ILUNAK

Halaere, ez ginateke danborrada batetan atera edo ez horretan mugatu behar. Gauza asko dago salatzeko... Etxekoak dreek sartzen dituzten ordu extra pila hori sukaldean, azokan, garbiketan, beren seme-alaba eta senarrek festak ondo pasa ditzaten.

Egun horietan jasan behar ditugun ofentsak, eskusaritzeak, bortxakeriak, festa-giroa dela medio eta aitzaki...

Hau da, salatzen badugu herriko festetan, espektadore eta dekoratibo jantzio hori ezartzen digutela, gogorki salatu eta atera beharko genituzke, baita ere, beste zapalketa isil eta izkutu horiek. Eta behin behingo, uler arazi behar diegu beste ez garela gu izan behar jostailu apain eta neskame sofriturak, besteek festa on batzu pasa ditzaten...

M.A. Landa

EUSKAL HERRIA

IRIBARRI, ESKER ONEZ

Bertsoen bidez agertu nahi dut
neure poztasun-aldia,
eta eskertu azaldu duzun
jarrera jator argia.
Euskararentzat zabaldu duzu
zeruetan oskarbia;
bihotz baretik eskaintzen dizut
bertsoen omenaldia.

Maiatz hilean hasten baitira
urteko hainbeste lore,
Santimamiñe zelai berdean
hola gertatu zen ere.
Futbolariak ipini zuten
ez dakit zenbat kolore,
iribar jaunak, merezi zuten
gure aldetik ohore.

Seiak aldean hasten zelarik
egun horretako jaia,
bostetarako ondo beterik
zagon inguru alaia.
Hainbat urtetan eginikoa
eskertzeko zen garaia,
leku guztiak betetzea zen
guk han genedukan nahia.

Futbolaria Herri osoak
goi-mailan baitzuen maite,
baina batzuek omenaldia
bazterrean utzi dute.
Erdi haserre ikusi nuen
kanpoko zenbait bitarte
Galdera hontan zegoen kausa:
Zergatik ez zen bete?

Hogetamar bat mila izan ziren
han egondako lagunak.
Nola ez ginen bertara joango
adiskide euskaldunak!
Harritu gaitu atezain legez
agerturiko ihardunak,
harrituago euskararekin
eman digun erantzunak.

Zertan enplega ote hobeki
hango diru ugaria?
Zentzu zuzenez ikusia du
kirolaren ahuleria
Orain artean Kirol Kontuan
goian erdara garbia.
Erabiltzeko izan dadila
Euskal Kirol Hiztegia!

Euskarak ba du jokatu behar
oraindik hainbat partidu
Azken urteak dira horretan
burruka latzen testigu.
Atezain ona ba dugu behintzat,
gola sartu behar dugu,
erdaren kontra irabazteko
bultzada eman baitigu

Ofizialki ez dago eta
Herria esku-zabala
Beti gabiltza geure diruaz,
ez ote da hau itzala?
Zergak direla ari zaizkigu
tonto bagina bezala,
euskaragatik Madrilek ere
Zerga ordaindu dezala.

Iribar honek agur esan du
gizon zintzoen modura,
injekzio bat emanez piztu
gura du euskal kultura.
Erakutsirik euskararekin
berak dadukan ardura,
kirolen bidez zabal dezagun
geure hizkuntza mundura.

Beltzez jantzirik, aurpegi ilun
gorputz argal baina azkar
Atea zaintzen nork agertu du
zerorrek bezainbat indar?
Bihotzetikan besarkada bat
bertso hauen bitartez har.
Eskerrak zure eskaintzagatik
betiko lagun Iribar.

Nire ustean berdin pentsatzen
genuen bertan egonak,
Guztien partez hementxe doaz
geure desio sakonak.
Futbolaria joan zaigu eta
zutikan dirau gizonak.
Gerora ere lan egin gogor,
hona gure ZORIONAK!

Txepetxa.



JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

—hiru hilabetero
ateratzen da—

Zenbaki
bereziaren
gai nagusia:

BERTSOLARITZA

Gaiak:

Bertsolariak historian
Bertso-neurriak eta doinuak
Jendaurreko bertsolaritza
Bertso paperak
Bertsolaritza gaur eta bihar
Aztergai berriak

Aztertzaileak:

Manuel Lekuona
Juan Mari Lekuona
Antonio Zavala
Xabier Amuriza
Jose A. Arana
Jose Mari Iriondo

Joxe Azurmendi
Antton Haranburu
Emile Larre
Rufino Iraola
Abel Muniategi

Eskabideak eta harpidetza:
JAKIN aldizkaria

Ategorrieta hiribidea

23, 1^a, 2sk.

DONOSTIA San Sebastián
Tel. (943) 27 17 13

1

Horra bertso maltzurak
gaur irakurriak
Anaitasuna'te da
gure aldizkaria?
Ezin sinets dezaket
nahiz ikusia
etsita nago, lagun,
nork maite du egia?

2

Santamañekoa
ezizendun batek
sortu dit bihotzean
zinez atsekabe.
Euskaltzaindia eta
zenbait euskaltzain're
lazki ditu iraindu
hauxe joko merke!

3

"Traidore" hitza, hortxe,
lehen lerroetan
aurreak erakusten
atzea nola dan.
"Bosten feudoa" omen
gara oraingoan!
Esaidazu, mutila,
bai, menpeko nor dan.

4

Gizakiaik du bere
beti lerratzea
lerrakorrigo, berriz,
da ez jakitean.
Bere horretan, jauna,
dituzu hatxeak.
Askoz hobe zenuke
lehen ikastea.

5

"Alfabetatzekoak
kanporatu ditu",
hala diozu eta
txit lasai gelditu.
Horiek oro ordea
ez dira mogitu.
Zergatik eten gabe
gezurrak aditu?

6

Alfabetatze eta
bait'euskalduntzea
Herri Aginteari
zaio zuzentzea.
Inoiz esku onean
badago uztea
Euskaltzaindiak noski
beharko egitea.

7

Txillardegia al'Altuna
bozketa izan zen
ez batak ez bestea
gehiengo lortzen.
Horretxek ditu zenbait

BERTSO BERRIAK SANTA- MAÑE- NEKOARI JARRIAK.

bitiro sumintzen
hasi dira batera
sorginak bilatzen.

8

Horra sorginak eta
sutura'rin-arin
Luis Mitxelena bata
bestea San Martin.
Ez epai ez gupida
osorik kiskali
haien arrastorikan
inon ere ez geldi.

9

Santamañekoa
nago harritua
San Martin gorri zena
duzu zuritua.
Horrela baldin bada
zuk esan moduan
legatza'kusiko da
laster Kalamuan.

10

Hastean esan duzu
zitalki "traidore"
horra nori oraingoan
to! "inkisidore".
Nortaz mintzo zara'ta
bota desohore?
Mitxelena diozu
su-predikadore!

11

Juan San Martin eta
bai Luis Mitxelena
zail jakiten bietan
nor liberalena.
Itsuturik zaudela
zaigu nabarmena
edota galdu duzu
gutziz adimena.

12

Santamañekoa
profeta txit handi
nork nori eman boza
zeharo bait daki.
Hortan lagun duela
zenbait egunkari
bozketa legezkoa
laidotu goraki.


13

Aritu banaiz ere
Xanpunen modura
ezin inork pentsatu
daridan tristura.
Bihoa, baina, horra
horra eta ingurura
nire izena eta
orobat deitura.

Endrike Knörr
Maiatzak 28, 1980.

Doinua:
Markesaren
alaba

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat

ANAITASUNAREN ZUZENDARI JAUNA

Xabier Letek nire bertsoak direla eta zuri zuzendutako gutuna irakurri ondoren, erantzutea erabaki dut, Anaitasunaren eta Jose R. Etxebarriaren izena garbi uztegi batez ere, zeren nik gizontasunik ez dudala antzinatik dakit, ez daukadalako eduki behar denik, eta ez kategoriarik ere irabazleen gurdian igonda egoteko, eta, oraindik gutxiago euskal "terroristen"

kontrako karta izenpetzeko: guztihonegatik, eta euskal demokrazia eta demokratenganako konfidantza-ezagatik, ez dut oraindik gizontasunik, nire izena publikoki azaltzeko (pribatu mailan ez da problemarik); beraz, gizontasunik ez dudala esatea ez da niretzat iraina, eta horrez gainera, ez dut gogorik modu merke honetaz, famatu bihurtzeko.

Hasteko, esan behar dut, bertso horik Anaitasunara bidali nituenean, bildur nintzela nire izena eta bertako norbaite-na nahastaturik topako ez ote zen nire erruz, eta adierazi ere hala egin nuen. Baina Anaitasunakook ez zenuten ezer aldatu: nik ipinitako tituluaren aurretik beste bat ipintzera mugatu zarete. Honekin argi utzi nahi dudana, zera da: nik ez dudala zerikusirik Anaitasunako langileekin.

Eta Leteri erantzunez, esan behar dut, nire bertsoak ez direla joan Mitxelenaren aurka soilik. Helburu nagusia Euskaltzaindia azken aspaldi hontan hartzen ari den erabaki ez-linguistikoei buruz protesta egitea izan da, eta bide batez hango mitologia salatzea. Nik ez dut ez Mitxelena, ez San Martin, ez Txillardegi, ez Leteri pertsonalki ezagutzen Aresti ere ezagutu ez nuen moduan politiko eta linguista mailan; eta beronen bertsoak erabili izan baditut, politikak direlako eta harira zetozelako izan da, eta ez Aresti Txillardegiaren alde egongo litzatekela esateko: hori Letek ateratzen duen konklusioa da. Eta extrapolazioei dagokionez, ez dut uste Arestiren beste bertsoen zentzua aldatu dudarik (bestela, nahi duenak begira beza Azken Harria-n), eta nire intentzioa Arestik bere

bizitzako une batetan Mitxelenagan eta zenbait apezengan ikusten zuen arriskua erakustea izan da. Eske sarritan, ezin gehiago errespetatzen dudan Gabriel Arestik, profeta dirudi, eta horrek tentazioan ipini ninduen.

Eta lotsa geratzen zaidanez gero eta frogak eskatzen direnez gero, idatzitako guztiaren frogak emango ditut, GAUZA BATENA IZAN EZIK, eta ez bakarrik Mitxelengari dagokionari buruz, honela besteren batek ez dezan beste frogarik eska.

Hasierako bertso batetan behar bada inuzentea izango naizela diot eta serioski diot, zeren beharbada Euskaltzaindia beti egon dira txapuza ez-linguistikoak, baina nola oso ondo gordeak izan diren, ni eta ni bezalako gixajo asko (uste dut) zeruan geunden eta orain harrapatutako kabreo tontoa izango da, baina benetakoa da. Gau-eskoletan mugitzen garentoz ari naiz batez ere.

ESANDAKOAK ETA FROGAK:

1.a "H"ak kendu

Froga: Euskera XXIV; hor ikus daiteke zenbat hitz geratu diren lehen zuten "H"rik gabe. Hainbat urte hori ikasteko eta orain berriz hasi behar gauza berbera

berriro ikasten eta irakasten] j

Nekatuta gaude, Euskaltzaindik agintzen baina betetzen ez dituzten arauak betetzera saiatzen.

2.a: Euskaltzaindik Alfabetatzeko Koordinakundea (Gau-Eskolak) Euskaltzainditi kanpora.

Froga: Eusko Kontseilu Nagusiak egindako proposamena aztertzeke izandako mahai-inguru bazutan, Euskaltzaindiaren ordezkariak esandakoa, gutxi gorabehera: Euskaltzaindiak hantur du bere erabakia, Koordinakunde hori instituzionalitza; zuzen erabakia ez baduzue, kanpora. Testigu bezela, mahai-inguru horietara joandako jende pila.

3.a: Txillardegiaren kontrako konplot ez-linguistikoaren buru Mitxelena zela.

Froga: lehen eskuko frogarik EZ! DUT Eginen irakurri nuenatik aparte.

4.a: Mitxelenak ez du askorik idatziz azken aspaldi hontan.

Froga: Euskaltzaindik dagokionez, 1964. urtetik (Textos Arcaicos Vascos) gaur arte, "La lengua vasca" zerituzon 87 orrialdeko liburuxka batzuk ez du publikatu. Hitzaldiak eman ditu, baina gehienak erdaraz.

5. a: Euskaltzaindiko bilera askotara faltatzen da.

Froga: 1976.ean, 13 bilera ospatu ziren eta HIRUTARA joan zen (Euskera XXII).

1977.ean, 12 bilera ospatu ziren eta BATETARA joan zen (Euskera XXIII).

1978.ean, 9 bilera ospatu ziren eta BITARA jona zen (Euskera XXIV). Hauk dira Euskaltzaindiak argitaratu emandako azken datuak.

6.a: sarridan ematen ditu hitzaldiak erdaraz.

Eta Leteri erantzunez, esan behar dut, nire bertsoak ez direla joan Mitxelenauren aurka soilik. Helburu nagusia Euskaltzaindia azken aspaldi hontan hartzen ari den erabaki ez-linguistikoei buruz protesta egitea izan da, eta bide batez hango mitologia salatzea.

Froga: nik eta ni bezala (Bilbon behintzat) hitzaldi edo liburu-presentazio batetan aurkitu direnek bizitakoa. Gogoan dut presentazio "bilingue bat", Goenagaren "Gramatika bideetan" aurkeztean: agurra eta txorradak euskaraz, gaia (gramatika gauza serio baita) erdaraz. Beste bontzo sakratu batzuren antzera, txakurrentzat eta umeentzat euskara baina pertsona serioentzat erdara.

7.a: Batxillerreko katedra eta Agregaduriarako examenen programan haren usaina.

Froga: har ezazue Otsailaren 28ko Bo-

letin Oficial del Estado-a esku batetan, eta Historia de la Literatura Vasca -1960- (ez ote dago gauza berriagorik eta beteagorik), Fonética histórica vasca -1961-, Textos arcaicos vascos -1964- eta La lengua vasca -1977- bestean, eta esango didazue. Eta examina horik euskaraz izango direla ere, Boletin horretan konproba daiteke.

8.a: liburu horik erdaraz eginak daudela.

Froga: nola ez, ez baitu SEKULA liburu bat euskaraz idatzi!!

Letek arrazoia du (nire kasuan behintzat) Mitxelena aingerua zela, aintzindaria, linguista jantzia, gizon trebea, batasunaren aitabitxia, profeta, heroea eta abar esaten duenean eta gaur, aldiz, mitoa. Baina eske horrela erakutsi zeniguten eta orain engainaturik sentitzen gara!! eta horregatik prezeski idatzi nuen idatzi nuena, bere lana ikusiz bluf bat iruditzen zaidalako, Txillardegirena-ekin konparatuz batez ere.

Frogarik ez badut errekifikatzeko eskatzen da eta errekifikatu egiten dut aipatutako hirugarren puntuan esanda-

koa, froga zuzenik ez dudalako. Egin-en irakurri nuenatik aparte. Baina frogarik baleude ere, NIK EZIN IZANGO NITUZKE LORTU, ez dudalako akzesorik Euskaltzaindira. Beraz Letek (bera Euskaltzain laguntzailea baita eta hortik agertzen diren "intelektualen kartetan" Mitxelena-ekin batera izenpetzen baitu) edo ahal duen beste norbaitek hori horrela ez dela frogatu arte nik neure susmoekin segituko dut puntu horretan, zeren Zeruko Argian ez didatelako ezer azaldu, Ere-n ere ez, Punto y Hora-n berdin eta Egin-en (dirudenez Letek ez du hau irakurtzen) horrela azaldu didatelako eta nik ez dudalako beste nora jo. Eta egiaz diot, asko poztuko nintzatekeela hori horrela izango ez balitz eta Mitxelena arazo horretan nahastaturik ez balego.

Amaitzeko esan behar dut, ez nukeela inondik inora ere nahi, nire erruz harpidedunik gal dezazuen, eta Leterekin horrela gertatuko balitz, barka iezadazue.

Begirunez,

Santamañenekoia 1980-5-28

P.D.:

Kalumnia zikoitzak, akusazio frogagabeak, astakeriak, irakurlego argi ta azkarrak, Historia atzekoz aurrera aztertzea, sasi-argudioak, putasemeak eta abar beste batetarako utziko ditugu, sute honetara ez baitut egur gehiagorik bota nahi.



IPARRALDEKO IKASTOLEN ALDE

Ondoko liburudendetan salgai:

BILBO
Verdes
Hauzoa: Bilbo
Galería del Libro: Bilbo

Donostia
Bilintx:

Zabal: Baiona
Prezioa: 1.000 pzta.

"Carlo Collodiren PINOTXO ipuin ezaguna, literatura italianoaren mugak gainditurik herri guztietako bagaje kulturalaren zati da jadanik. Hainbat eta hainbat abentura ibiltzen dituen egurrezko gizonilo honen historia, bere ondorio jakinekin —gezurra esaten duenean sudurra hazten zaiola, azkenean bere joera onari eskerrak benetako umea egiten dela, eta abar,— era ezberdinetara erabilia izan da, baina batez ere, moraleja bat ateratzeko asmoz, beste ipuin askorekin gertatu ohi den bezala.

Hau dena kontutan harturik, Collodiren ipuinaren moldaketa teatral bat baino zerbait gehiago egiten ahalegindu gara. Egilearen pentsamoldeetik urrunduz oinarriztat hartzen dugun zenbait elementu kaleratzeari ekin diogu muñekoaren defentsan: beronen eskubidea nahi duen modura izatera, eta batez ere, muñeko izatearen eskubidea azpimarkatuz".

"PRAKAMAN" KILIKILARIEN LEHEN ANTZERKIA EUSKARAZ

Orain gutti, eta astebetean zehar, Bilboko na guretzat inportantzia berezikoa bihurtzen zuten zaigu berria, aipatutako antzerkia euskaraz izatean, zeren oker ez banago, aspaldidanik lehen aldiz izan baitugu Bilbon euskarazko obra bat ikusteko posibilitatea teatro "normal" batetan eta hamarren bat egunen bitartean.

Obra hontaz eta taldeak dauzkan asmoa eta ekintzei buruz berba egin dugu hiru partaiderekin, Marife, Iber eta Iñakirekin. Hona hemen elkarrizketatua.

-Noiz, nola eta non sortu zen taldea?

Profesionalki 5 edo 6 urte daramagu, baina sortu, 69.ean sortu zen Bilbon, Bilboko haurzuneetatik, fabriketatik eta, ibiltzeko.

- Zenbatek osatzen duzue taldea?

Hamabik, talde bitan zatituta: tailerrekin bost, beste bost aktore, "relaciones públicas" eta zuzendaria. Hori ihaztik hona.

- Non aktuatu duzue?

Segun ze obreakin. "Tripontzi Jauna" rekin Gipuzkoa aldetik egon ginen. Normalean Euskadi mailan. "Nafarroa 1.500"ekin saio gehienak Bizkaian eman genituen, eta Nafarroan, klaro!. Baionara ere joan ginen "Nafarroa 1.500"ekin. Eta oraingo honekin. "Prakaman"ekin, "Gasteiz eta Iruñeko "Gazte" erre"ra joateko asmoa daukagu, eta gero Baionara.

Euskaditik kanpo oso gutti. "Vivir por Bilbao" rekin Madrilan, "Gayo Vallecano"n, hilabete egon ginen ihaz. Oportoko festibalera ere joaten gara. Bi urte dauzka festibalak, eta bietan joan gara. Aurrean ere ba goaz "Pinotxo" rekin.

- Hau al da zuen lehen antzerkia osorik euskaraz?

- "Pinotxo" arte ziklo historiko bat egiten ibili gara lau urtetan. "Vivir por Bilbao" eman zion hasiera. Horren ostean "Jardín de la Oca", preso sozialei buruzko obra bat. Biak erdaraz. Gero "Tripontzi eta Tripartitzi", kalejira antzerakoa, haurzuneetatik txarto dagoen gauzak apur bat salatzen argia falta dela... eta horretarako. Gero horren ondoren "Tripontzi Jauna", Euska-



diko historia, eta azkenez "Nafarroa 1.500" Erdi Harokoa.

Azken hiru hauk bilingueak ziren. Beno, "Triponzi eta Triburtzi" segun zein lekutan euskara hutsean egiten zen. Baina kontutan hartu behar da, taldea Bilbo ingurutik ibiltzeko sortu zela; ez zegoen beste herrialdeetara joateko asmorik. Orduan gehienbat langile hauzunetatik ibiltzeko zen, eta hor jendeak oso euskara gutti daki. Orduan lehenengo montaketak erdara hutsean egiten ziren. Gero zirkuitoa zabaltzen joan ginen, euskara derrigor sartu behar genuela ikusi genuen, eta horregatik egin genuen erdi bat euskeraz, eta beste erdi bat erdaraz, eta orain derrigortu gara euskara hutsa erabiltzera.

Gainera "Pinotxo"ren euskara ez dela batera zaila uste dugu. Nahiko erreza da, eta txisteak euskaraz dagozenez, erdaldun jendeak beste jendeen modura barre egiten dutela konturatzen gara. Ikasten ari direnentzat ere oso erreza ulertzeko.

- Zelako esperientzia antzerki elebidunarekin? Nola erreakzionatzen du jendeak erdal herrietan?

Ba toki batzutan onartzen dute, baina beste batzutan edo euskara hutsean edo erdara hutsean egin behar dela esaten digute. Dena dela guretzat nahiko majoa izan da, eta guk hori derrigorra zela ikusten dugu erabili genuen momentuan, zeren Durangon adibidez euskara hutsean egin liteke eta, baina Errekalden ez, eta hori ikusirik, ba bilingue.

Normalki gure obra guztiek textu gutti daukate, jendeak irudietatik uler dezala da gure nahia. Dena ez da lortzen, orduan textu pixka bat sartu behar da. Textuak bere garrantzia dauka, baina ez da hainbestekoa. Hemendik aurrera gero eta textu guttiago sartzeko joango gara. Oporton ere bilingue egin genituen bi obrak. Jendeak ez zuen ulertzen, baina pozik zegoen.

- Nolako teatroa egiten duzue?

Obran garrantzi haundiena irudiak izan du, eta bere erresultaduak ematen dituela ikusi dugu. "Prakaman" ere irudietan finkatuta dago; textuak ez dauka inportantzia haundirik.

Gure asmoa irudi hutsera heltzea da. Beno, textua beti da derrigorrezkoa, baina zenbat eta guttiago hobeto dugu. Gure lortugura hori da.

- "Antaviana" edo "L'Odiessa" ikusi ditugunoi zuen "Prakaman" ikustean obra haietako zenbait pasaje etortzen zaigu gogora.

Nire ustez kasualitatea da. Eskenografia egin genuenean ez genuen ezer pentsatu, ez "Antaviana"z, ez "Ulises"ez. Teatroan, ez dakit, holako kasualitateak ematen dira.

Beharbada zenbait pertsonaia obra bitan agertzen dira, esate baterako "arlekin" a. Guk ez dugu "Antaviana"tik hartzen, baizik eta ipuinetik beratik.

- irrtiarena?

Nik uste dut irrtiak betetzen duen funtzioa guztiz desberdina dela. Bai, ipuinean "Pepito Grillo" pertsonaia agertzen da. Guk nolabait pertsonaia hori sartu nahi izan

dugu obran, eta sartzeko modua irratia izan da. Ez dakit, irrtiak gizarte hontan funtzio bat betetzen duena ere horixe da.

Eta "Antaviana"n modu ezberdin batetara erabiltzen zuten. Esate baterako han ez da agertzen, entzun egiten da bakarrik. Instrumento hutsa da. Eta hemen beste pertsonaia, beste marioneta bat da.

Eta "arlekin" a guk erabili dugu "Antaviana" baino askoz arinago. Beste obra batzutan atara dugu. Orduan ez da kopia bat. Gainera teatrilloan ez da bera bakarrik agertzen, "Polixinela" eta... hiru dira. Pertsonaia horik ez dira ez "Antaviana"koak ez inongoak, unibertsalak dira.

- Zergatik ipuin bat? Zer tan datza argumentua?

Ipuinaren moldaketa bat da. Ipuinean agertzen diren gauza asko baztertu nahi izan dugu, edo behintzat beste ikuspegi batetatik enfokatu.

Bueno, baina eskenen lotura ipuinean bezalakoa da. Eta beste galderari erantzuna emateko, gure asmoa obra bat euskaraz egitea zela esango dizut.

Orain arteko gidoia guztiak geuk egin ditugu, erdi euskaraz erdi erdaraz, edo erdara hutsean. Orduan nahiko zaila zitzaigun gidoi bat euskara hutsean ateratzea, eta liburu

pila bat ikusten ibili ginen. Azken batean "Pinotxo" aukeratu genuen eta geure erara moldatu. Ipuina nahiko moralista eta hori zela pentsatu genuen, baina zeresan ba zeukala pixkat aldatuta. Bera muñeko garbi bat da. Prakamanek bere bizitan oztopo batzu ipintzen dizkio eta orduan berak superatzen ditu... Ipuinean Pinotxo ume bihurtzen da eta hemen ez. Bueno, foiloi bat da.

- Beti esan duzue zuen lanak kolektiboak direla, eta programan Bernardo Atxagaren izena aipatzen da textu-egile.

Textuak entsaioetan sortu dira. Taldean denok ez dakigu euskaraz. Orduan euskara dakigunok entsaioetan euskara erabili dugu, eta ez dakienak erdara erabili du. Bernardo Atxagak egin duena entsaioetara joatea izan da, ikustea, eta gero erdaraz zen textua ez euskaratu, moldatu nolabait, baina itzulpen huts bat egin gabe.

Abestiak bai dira bereak, hori bai.

- Zergatik sartu duzue horrenbeste erdarakada?

Hasteko, guk erabili dugun euskara gusatzeko zaiguna da. Hizkuntzak, nik uste dut, mila posibilitate eskaintzen ditu, eta hizkuntzarekin jokatu egin behar dela pen-



tsatzen dut, hizkuntza bizia izan behar dela. Teatroan ez dakit kalean baino gehiago, baiian teatroak beste hizkera desberdin bat esijitzen du. Hau kontutan harturik, eta

gainera hemen jende askok ez dakiela biperrik ez euskaraz, nolabait honek behartu gaitu euskara bereiztu bat erabiltzera. Orduan, erderakada daudela, ba beharbada bai. Baina bestaldetik asko ikusten direla hortik ere egia da. Orduan, ez dakit, guk euskara hori aukeratu dugu nahi izan dugulako eta gustatzen zaigulako, eta gainera horrela biziagoa dela uste dugu. Gainera guk erabiltzen dugun hitz asko beharbada euskaraz ba dago modu bat esateko erdara sartu gabe, eta guk berriz erdara sartu dugu. Bai hori egia da, baina agian horrek jendeak hobeto ulertzeko erreztasuna suposatzen badu, gu pozik.

- Orain kale-teatroaz. Publikoak parte hartzen du kale-teatroan?

Jendeak ez dauka ohiturarik teatrori joateko, eta bueno, hori behintzat arrazoi bat da teatroa kalera ataratzeko; eta beste arrazoi bat zera da, ohiturarik ez dagoelarik, ordaindu behar baduzu obra bat ikusteko, ez doa inor teatrori. Orduan orain eta ikus dezakezunez jendeak bete egiten du. Plazetan behin baino gehiagotan 3.000 tik gora pertsona eduki doguz. Irunen adibidez. Eta teatro batetan hori ezin daiteke.

Publikoa gainera ezberdina da; teatro batetara normalki jende nagusia joaten da, edo hola, eta kalean beste guztiek ikusten dute, eta beste gauza bat da. Interesatzen bajake, bertan geratzen dira, eta ostantzean espektadoreentzako muermo bat bada ba joan egiten dira. Posibilitate hori eman behar jako jendeari.

- Obra hau Bilbon eta Donostian antzeztu duzue, eta teatroak beterik egon dira eguneror...

Bai, baina publiko hau teatrokoa da. Bero ikastoleta eta gau eskoletakoak ere etorri dira, e.a.

Baina kalean aurkitzen duzun jendea, teatro batetara sekula joan ez dena da; beste jende bat da. Orduan, bera konturatzen da: "joño, hori polita da, eta gustatzen zait, eta geratu egiten naiz. Jende hori ez da sekula ere leihatil batetara joango txartel bat hartzera, baina oster, kalean ikusten badu, geratu egiten da, eta gustatu egiten zaio, edo ez, baina...

- Orain talde profesionala zarete, ez da? Ba ahal duzue eroso bizi?

Profesionalak egin ginenetik beti izan ditugu diru problemak. Orain arte ez dugu inoiz subentziorik eduki. Beno, Ministerioak ordaindu zuen behin Portugalerako jira, bakarrik bidaia. Baina bestela sekula ez dugu ezer eduki, eta tataras gabiltza. Hola ezin dugu jarraitu, eta eskerrak tailer bat daukagula bizitzen gara. Bertan gargantua eta Bilboko erraldoiak egin ditugu. Orain Durangorako egingo ditugu.

- Ba daukazue harremanik euskal teatro taldeen federakundearekin?

Ez. Euskadi mailan, alde batetik teatroa erdara hutsean egiten dutenak daude, eta bestetik euskara hutsean egiten dutenak,

eta hauk ez dira profesionalak, teatroa euskaraz eginez gero dirurik ez duelako ematen, eta ezin delako horretatik bizi.

Gu beti ibili gara bien erdian. Harremanik? ba bai, haiek kongresoa edo egin zuten Loiolan, eta joan ginen. Entzule bakarrik, el Baian ez, igual pertsonalki bai, baina talde moduan ez. Gauza ezberdina da. Federazioa nahiko itxia da, heurak euskal teatroa dira, eta besteak erdal teatroa. Baina ez dakigu zer egingo dugun. Obra hau euskara hutsean dagoenez... Ikusiko dugu.

- Zer egin liteke teatroa bultzatzeko Bilbon?

Lehenengo pausoa Arriaga zabaltzea, eta gero gobernuaren aldetik diru laguntasuna. Betikoa. Bilbon, hementxe bertan daukagu teatroa, Arriaga, eta zabaltzen denean, pertsona bat programaketa egiteko arduratzea egin liteke, ez bada eguneror, astean hiru lau bider, bertokoak egoteko, eta gero kanpoko jendea ekartzeko. Hori gobernuaren eskuan dago. Guk hori nahi genuke baina ez daukagu ahalmenik.

- Eta euskal teatroa, euskarazkoa, nola bultzatu daiteke?

Nik uste dut hizkuntzak ez duela oztoporik suposatu behar jendea teatrori eramateko. Bai, hizkuntzak bere garrantzia du, baina ez garrantzi osoa. Orduan momentu batetan planteatu behar duzu teatroa zein hizkuntzatan egitea, ea erdaraz egiten duzun, euskaraz, edo bietan. Euskaraz egitea erabakitzeak ez du suposatu behar jende guttiago joango denik teatrori. Eta gainera nik uste dut beste pertsona askori ateak zabaltzen dizkiola teatrori joateko. Esaterako, "Prakaman"ekin gertatu da; ikastoleta uste pila bat joan da, eta nire ustez horregatik izan da, euskaraz egin dugulako batez ere.

Beharbada beste batzu horregatik berberagatik ez dira joan, ez zutela ulertuko edo pentsatuz, baina hau aurrera badao, jendea gero eta gehiago animatuko dela uste dut teatrori joatera.

Bai, eta konturatu gara jendea ezberdina dela. Lehengoek gehienek jarraitzen duten gure obrak ikusten, baina orain jende bat pila bat dator. Gehienak berriak dira euskaraz delako. Orduan, zergatik euskaraz egin?, ba ba delako ordua. Gainera euskaraz bultzatu behar bada, eta euskara maila kulturara gora behar da, eta jarraitu ahal izan duen ala ez, gobernuak esango du. Betikoa baina hola da. Euskaraz eginez gero zirkulua toa laburtu egiten da, eta laguntasun bat derrigor egon behar da, edo bankoak edo...

Beno, laburtu orain ez dakit. Neurri batetan beharbada bai, baina ez dakit.

- Zeintzu proiektu dituzue etorkizun hurrerako?

Obra honekin jarraitzea, eta gero kale espektakulu bat, "Gizontxoak", udarako. Uda ostean edo udan bertan, umeentzako giñol bat euskaraz atera nahi dugu.

"Gizontxoak" hemen, alderdi zaharrean, gabonetan egin genuen. Oso gauza arraroa da. Igual heltzen gara plaza batetara; aktore bakoitzak bere papera du, eta berak kale bat hartzen du. Erdi mimoa edo holkak zer baita, ezer textu barik. Orain arte hau bakarrik egin dugu, baina gero, udarako bigarren parte bat prestatzen ari gara, zelan denok batuko gara. Parte hontan sartu dugu textua, eta dena euskaraz izango da. Argumentua nolabait antinuklearra da, pertsonaiak kalekoak izanik, eguneror kalean ikusten dituzun horik.

Gero gure Antzerki Eskola daukagu. Bolutan dago, tailerrak daukagun leku baten. Eskolan bi talde ari dira lanean 3 egun astean (laster 4 egun). Urte hau bigarrena da. I haz montaiak bat egiteko asmoa geneukan, baina uda etorri zenean norbera bere aldetik joan zen oporraldietara edo, eta ezer ez. Aurten da dirudi "sartuago" gaudela, eta zihur asko bi montaiak aterako ditugu. Bata Brech-en obra bat da, baina ezin dizut askorik esan hortaz, beste taldekoia baita eta oraindik ez dut ikusi.

Geure Buenabentura-ren obra bat da, "A la vista de Dios Padre". Baina hartu genuenetik orain dagoen modura, diferentzia izugarria dago. Oso eroa da, eta seguru nago zentzuratuko digutela. Erriberako "paloteado"an dago oinarrituta, eta pastoralaren egitura dauka: "ondada" eta "gaiztakeria", urdinak eta zuriak. Zeru bat daukagu montatuta, parlamentu greko bat bezalakoa dena, baina pertsonaiak erlijioaren muturrekoenak dira. Adibidez San Juan Evangelista homosexuala, Maria Magdalena prostituta, Pio XII. a fazista, eta abar. Gero beste pertsonaiak komikietatik ateratukoak: Drakula, "la Chelito", sorgin bat... gaiztoen modura; Aragoiko Agustina, Su-perman, Mary Poppins, Tarzan... onak bezala.

Jenderik gehiena erdalduna da eskolan, eta horregatik montaiak zihur asko erdaraz hutsean izango dira.

Geure aldetik bakarrik gelditzen zaigu zere esatea, talde honen etengabeko lana, eta bera bezalako beste askorena, teatroaren batez ere euskal teatroaren onerako izango delako itxaropen garena.

I.A.





PETRONOR

—PETROLEOS DEL NORTE— N. G.ko birfindegia

BILERA ARRUNTA

Bilbon, EKAINAK 18, Senior Nemesio Fernández Cuestaren zuzendaritzapean

LEHENDAKARI JAUNAREN HITZALDITIK

*1979.ko krisialdian zehar ez zen ekonomia-berreskuratzerik ikustarazi eta aldez, zenbait abertimenduren arauera, ekonomik gainbeherra berriak zetozkigukeela oharturik ginen.

*1979. urtean zehar, petrolio-merkatuari dagokionez, faktore mugatzaile zenbait kausitu genuen eta delakoan artean, eskaintza eta eskariaren artean eman zen kili kolozko oraka eta modu berean, landu gabeko petrol-kupelaren egiazko prezioa altatzeko OPEPek aurrera eraman zuen estrategia oligopolista garbia. Azken hauek izan dira dudarik ez, apagarrienak.

*Industri-gizartean egitura emankorretan etengabeko altxaketek egin dituzten ondoriolako batzu aipatu nahi genituzke, hala nola, nazio-barrutietan eman den pagu-balantzen desoreka eta, petrodolarren sortzapean itzel eta neurrigabea zeren, finantzar erakundeek, haiek birziklitzeko zailtasun handiak topatu baitituzte.

*Landugabekoen prezio-altatzeko etengaba honekin batera, gure ornitzailek ipini dizkiguten epe motzagoek gure diru-altxorrean eragin negatiboa sortu dute zeren, diru garbiaren higiketa —kopuru handiagokoe izatea hartu baita ondoriotzat.

*Defizita honi zera gehitu behar zaio: Kobratzeko

dauden saldoen finantzialtzeko beharra, zeinek ekarri baitugu atzerapen handia, egiazko kosteek eta formula ofizialek sortzen zituzten produktuen prezioak ezberdinak baitziren.

Ezberdintasun bi horiek diru-isurtasun bortxatu eta gogor bat sortu digute.

*Horregatik hain zuzen, gure ekonomiaren inflazio-tasaren arauera, kosteak eta balantzak ere neurri berdinean ipini behar direla esaten duten guzi horiek, bat egiten dugu.

Zentzu honetan, azken neurri legalen araupean, gure balantza gaurkotu dugu. Egokitze honekin amortizapen hornidurak egiazkoak lortzea helburu dugu. Hala, gura emaitzen konteduria LIFO sistemaz egindako gordategi— itzepletan egituratu da. Baina hala eta guztiz ere entpresak hartu dituzten neurri eta kontu-ardura hauek balio guttiko lirateke, produktuen prezioen eraketetan aipatu ditugun ezberdintasunak zuzenduko ez balira edo ta zuzentzeko behar diren egiazko faktoreak isladatuko ez balituzte.

*Premiazkoa da benetan gure elkarte honentzat, landugabekoen eraketaren gestio ona aurrera eramaten jarraitzea. Gure merkatal antolaketa in-

daritu beharko dugu. Horrela eginez, gaur eguntan ikusmole eta egitate zabalago eta irekiagorik eskatzen dugun merkatu honi eusteko, gauza izanen gara, baldintza guztiez probetxatuz.

*Aurtengo ihardunaldiak hixten ditugularik, gure ondasunak ihazkoak baina garrantzitsuagoak direla konturatzaek biziki poztan gaitu eta honek gure entpresak dukeen azpiegitura bikainaz ohartzea behartzen gaitu hala.

*12 milioi TM/urte birfintzako dugun gaitasuna dugularik, cracker katalitiko, untziteriak duen abalmen logistikoa eta azkenek portuaren kokapen geografiko inbidia garria ere probetxaturik, begiratu ahal ditugu Amerika eta Europako Merkatua. Bi norabide hauetan, merkatal higiketaren erroa Euzkadi izanen dela dakigularik, Euzkadiko nahi-tazeko entpresa gara.

Bitarteko epe batetan zehar, ondoko lau bazterrok zaindu behar ditugu: Esplotakuntzaz eta lehen mailako banaketaz parte hartzea, produktibitate guttiko aktiboak dinamikatzea, dagokigun bigarren mailako banaketaz guregain, hartzea eta ezkenek, helmuga petrokimikoaren ikusbidea ez gaitzea.

ZENBAKIAK LABUR. (1979.eko Abenduaren 31ean)

XEHETASUN NABARMENAK

Urtean on daitezkenak, Cordategien edukiera	12MM Tm/urt.
- ondugaban	1.098.000 m.
- landutakoa	1.015.000 m.
Untziteria: lau petroliuntzi	1.107.000 TPM
Portua:	
- zarbitzu ordekak	32 Ha
- har daitekeen untzirik haundiena	500.000 TPM
- Elkarjabetegoko atoriuntziak	5 ale.

LANA

Ondutakoa	6.4 MM Tm
Landutakoa	6.1 MM Tm
Saldutakoa	5.7 MM Tm
Monopoliaren salmenten zatia	%15,94

GIZA BALIAKIZUNAK

Lanariak	591 lagun
lanari bakoitzeko saldutakoa	115 MM Pzta.

EKONOMI XEHETASUNAK (milioi pezetatan)

Guztira eskuratutakoak	71.544
- Estatu barnean	67.363
- Itsesuntziak eta beste	4.181
Lortutako Cash-flow	4.316
- Irabazkina	1.187
- Amortizapena	3.129
Dibidendua	616
Diru ezarketa berriak	856

URTEKO KONTUETAKO EKONOMIA ETA DIRUBIDEKIKOAK. (milioi pezetatan)

Mugiezinak eta pilatutakoak	71.134
Dirutza	13.200
Cordetakoa	16.044
Amortizapeneko piloa	17.992
Epe luzeko zorrak	12.384

ELKARTEARI BURUZKO JAKINGARRIAK

PORTU LANAK

1978. ean hasitako politikak, beste elkarte batzuen ondu gabekak untziz untzi aldatzeko edo gure gordailuetan hiltzeko, alegia, 1979. ean kopura garrantzitsuetara iritsi da, 5.311.956 Tm guztira, hartutako guztizko ondu gabekoen %43,6e delarik.

PETRONOR-en eragina, Bilboko portuko trafikoa, %24ean gaineratu zaio 1978ean behatutakoari, 1979ean portu trafikoa osoaren %36,5a delarik.

AUTOFINANTZAKETA ETA HAZKUNTZA.

Autofinantzaketa haundienaren politikak, akzio-dun guztien gizarte eta entpresa

—ezagumenek bete— betearen eusten diotela, eta finantzazailerik jarritako uesteona lagun, segit eginduko 1979. ean, 4.316 milioi "cash-flow" xedaturik 1978.ari %2,6an gaineratzen zaiolarik.

1. ELKARTE TXOSTENA

Europar eta amerikar entpresarik aurreratuenen jokabidean jarraikiz, PETRONOR-ek argitara eman du 1979eko lehenengo elkarle txostena, ihardun kariaren txostenarekin batera.

PETRONOR-ek sortutako elkanekiko dinamizari hurbildu nahia eta ahalgina ageri daude hunengo arlo heundietako hazkuntzan. Lanariak. Beze:

roak, Akzio-dunak, Obligaziodunak eta Finantzar Erakundeak, Gizartea, Ingurugiroa eta energi aurreztapena, Horni itzaileak eta Lehiakideak. Xehetasunetako zorroztasun eta zabalasunarekin arlo hauetan sakonketa informakuntza argia eman nahiari dagokio, PETRONOR-ek entpresa gisa daukan bere erantzukizunaren ezagutzaren emaitza azken beran. Hasitako bidetik segitzea eta ibilera hobetzea ditugu helburu iraunkor, egon daitezkeen arrisku guztia jakiera leporatuz, baina guztiz sinetsia gaude, xehetasunetan huts egin anen, orainak entpresari galdatutako norabideari jarraitzen ari garela.

Udako Euskal Unibertsitatea

Aurten zortzigarren aldiz **Udako Euskal Unibertsitatea** egingo da. Honek-Uztailaren 14tik 26ra iraungo du. Iruñiako Larraona Ikstetxean.

Lehenengo aldiz **Donibane Lohitzunen** 1973 eta 1974 urteetan egin zen. Baina **U.E.U.**ren asmoa, **1972ko Baionak Astean sortua da**. Karlos Santamaria, duela denbora gutti arte EKNko Hezkuntzarako Kontselaria izandakoa, mintzatu zen Euskal Unibertsitateaz; eta haren hitzaldiaren ondotik, U.E.U.ren esperientzia proposatu zen. Jendeak onartu zuen proposamena eta honela, 1973ko udan. Donibane Lohitzuneko **Maurice Ravel Lizéon**, ospatu zen lehen aldiz **U.E.U.** deritzana.

Bestalde, lehen bi urte hauetako partaideen artean unibertsitateko irakasle eta ikasleak baino kultur giroako hainbat pertsona, hots kultur eragileak, idazleak, eta irakasle kontsagratu batzu. Nabaria zen ere bertan ziren errefuxiatuak azaltzea.

Lehenengo urtean, hots 1973.ean 85 partaide izan ziren, eta 110 hurrengo urtean.

Hurrengo bi urteek, hots 1975 eta 1976, Ustaritz-en egin ziren.

Eta 1977. urtetik aurrera Iruinako Larraona Ikastetxean egin dira, aurten goa izango den bezalaxe.

Urte berberatik (1975) aurrera, hainbat euskal estudioen taldeek parte hartu izan dute; hots **elhuyar**, **siadeco zehatz** eta **uzei**



NAFARROAKO ERRI BERA



Martín Orbe Azkenengo urteetan dugun U.E.U.ren idazkariarekin hitzetan ezarriak gara. Eta geroagoxe esaten ditugun gauzak azpimarkatu dizkigu.

A.- Martín zenbat urte daramazu U.E.U.ren aurrean?

M.O.- Aurtengoarekin lau urte.

A.- Zuk daramatzazun urte hauetan, nolako buru hausteak eduki ohi izan dituzu?

M.O.- Hasteko, esango nizuke, buru hauste normalak izan dira. Kontutan har ezazu ni idazkaritzan santu aurretik ba zela lau urtetako historia, nola hola UEU bideratua zegoen. Eta nik ez dut egin besterik bide horri bultzada ematea baizik.

Ba dira arazoak, arazo akademikoak, arazo materialek ere ba dute bere garrantzia. Eta hor daude hor UEUk ez duela bere egoitza propio bat, esaterako. Ez du ez eta finantziaketa bide ofizialik ez, ofizial antzerkorik ere.

A.- Zein antolaketa izan duzu zailena?

M.O.- Nik uste, ikastaroek ez digutela ematen buruhauste haundirik, eta hau arrazoi sinple bategatik. Eta zera da, orain arte beti egin izan duguna izan da UEU lan egiteko dagoen jendea onartu. Honek suposatzen du gure lana guztiok koordinatzera mugatzen dela. Beraz ez dugu aparteko zailtasunik.

Nekeagoa da finantziaketa arloa, kontutan harturik UEU eta antzerako zenbait iniziatiba beti patrika berdintsuetatik ordaindu behar direla. Eta honek, pena, lotsa, ...ematen dizu, horrela, beti berdin, ibili behar.

A.- Eta noren aldetik eduki izan dituzu

oztopo larrienak? Hau da legealdetik, jendearen aldetik, edo zein eratako trabak aurkitu dituzu?

Hegoaldean lehenengoz egin zen urtean, izan genuen legealdetik mesfidantza problema gehiago, behar bada. Baina zorianez gainditu egin izan ahal genuen. Gero hemengo gizarteari begira, badira oraindik ere zenbait susmo UEUri buruz, hortaz nik esango nukena bakarrik izango da UEU beti egon dela nahi izan duten guztientzat irekia, eta jarraitu ere, horrela jarraituko duela. Beraz ez dago inondik horrelako mamurik gure artean.

A.- Aurten lehenengo aldiz komunikabideak sartzen dira UEU. Baina zein mailatan? Nork emango du ikastaroa?

M.O.- Galderari erantzun aurretik esan behar dizut nik ezagutzen dudanetik azken lau urteetan intentuak izan direla komunikabideei buruzko ikastaro bat edo beste prestatzeko.

Egin baldin ez badira, beste edozein alorretan jazotzen den antzera, zerbaitek fallatu duelako izan da. Eta ez arazoaren garrantzia baztertzegatik.


Bestalde informazio grafikoari buruz ia urteko egin du zerbaite, eta zerbaite baino gehiago esango nuke ere, euskal komunikabideetan oso ezaguna den Antton Ola-riagak.

Aurtengoa ere behar bada ez da ponpo-xoegia izango, baina hastapen bada gutxienez eta jarraiera beste urteetan izango duela espero dugu.

Ikastaro hau askoren artean emango dute, hau da elkarlanean, baina ikastaroaren koordinatzailea Iñaki Beobide izango da. Eta T.B.ri buruz izango da.



**VIII. U.E.U.-REN
ATADIAN**



**udako
euskal
unibertsitatea**

UZTAILAREN 14-TIK 26-RA

UEU AURTEN

Hasiera bezala esan behar dugu hiru zutabe nagusitan zatiturik dagoela VIII. UEU hau. Hots, Unibertsitateko gaiak, hizkuntza gaiak eta azkenik Giza prestakuntzarako gaiak.

Lehenengo zutabean, aurki ditzakegu Unibertsitateko gai arruntak, eta aurten loturiko Komunikabideak. Komunikabideetako ikastaldi honetan ondorengo puntuak ikuituak izango dira:

- a) T.B. entretenigarri eta kultura bide.
- b) T.B. pribatu eta herriarena.
- d) Italia, T.B. berezi baten fenomenoak.
- e) Europako legeak, T.B. dela eta.
- f) Elebitasuna eta T.B.
- g) Kazetaritza T.B.n.
- h) T.B. programak dakartzan prestaketak.

Bainan Ihardunaldi praktikoak ere eratuak izan dira. Eta hauetan; bi edo hiru programa bideoaz egingo dira. Ikastaldi berri hau Iñaki Beobidek eta bere taldeak irakatsiko dute.

Lehenengo zutabe honetan ere ikuituak izango dira Zientziak, Giza Zientziak, Natur Zientziak, eta Medikuntza alde batetik. Beste aldetik linguistika eta literatura landuak izango dira.

Bigarren zutabe batetan sartuko dira Hizkuntz ariketak deritzotena. Hemen B Mailarako ikastaro bat izango da. Itzulpen teknikoak, Jose Juan Gonzalez-Txabarriren eskutik. Eta bukatzeko Glotodidaktika aplikatua Xabier Mendiguren buru dela.


Hirugarren zutabe batetan sartuko dira Giza Prestakuntzarako ikastaldiak. Ikastaldi hauek euskaldun diren irakasleak zientzi-gaietan prestatzeko dira. Eta birritan emango dira.

Azkenik kontutan hartzekoak dira ere hitzaldi nahiz mahi inguru afal aurre eta ondoren antolatutak. Ia jendea aski lasaiago dagoen unetarako eraturik. Euskal Herriko Unibertsitate Ofiziala, Nafarroako Euskal Kultur Erakundeak, Naturari buruzko zenbait filma enbasadetatik erakarriak. Irurtzun liburuaren aurkezpena, Euskal Herriko Geologiari buruz Iñaki Antiguadadek eginiko lana, .. askoren artean dira, ikusiko ditugun ekinaldi batzu.

Eraberean Larragako joteroak, Xabier Amuritzaren bere "Bertso berriak mailu zaharrez jarriak", eta Ziudadelan egingo den Festa herrikoak dira.

NOIZ	NON	ZENBAT IKASLE	MUTI- LAK	NEKAK
1.go 1973	Donibane Lohitzune	85		
2. 1974	Donibane Lohitzune	110		
3. 1975	Ustaritz	200		
4. 1976	Ustaritz	332		
5. 1977	Iruinea/Larraona	522		
6. 1978	Iruinea/Larraona	545	345	200
7. 1979	Iruinea/Larraona	348	178	170
8. 1980	Uztailako bigarren hamabostaldian esango			

NAFARROAKO ERRIBERA HERRI BERA DUZU



HERRI BERRI

ZARRAKASTELU

MENDABIA

KAPARROTSU

KADREITA

MILAGRO

FALTZES

MARTZILLA

TUTERA

KASKANTE

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

**EROSTEKOTAN
ZURE HERRI BEREKO
LUR EMAITZAK**

EROS!

NI KAZETARI FAMATUA NAIZ

Egun hartan Afrikatik etorria nintzen hango gudu bat ikusi eta gero. Herriko jendeak festa bat egin nahi zidan bainan nik, oso nekatuta nengoela esan nien eta etxera joan nintzen. Bakarrrik bizi nintzen eta etxera iritxi nintzenez, gizon guztiz berezi bat nere ohe gainean eserita zegoela ikusi nuen...

Bere aurpegia moratua zen, ez sudurrik eta bost begi orlegi, eta hortzik gabeko aho izugarria zuen. Lau beso eta hanka bat zuen, saltoka ibiltzen zen baina halaere sinpatikoa zirudien dien.

Sartu nintzenez, ideia bat izan nuen: "Zergatik ez diot elkarrizketa bat egiten eta gero egunkarira eramaten dut?... Famatua izango nintzatekel".

Eta galdezka hasi nintzaion:

— **Nongoa zara?**— galdegin nion gure hizkuntza ulertuko zuela pentsatuz... Gizon hark hiztegi bat atera zuen poltsa batetik eta begiratu ondoren erantzun zidan:

— **Martekoa...**



— **Nola duzu izena?**— eta itxoiten geratu nintzen berak hiztegiaren begiratzen zuen bitartean...

— **XIVZY...**

— Nik dena apuntatzen jarraitu nuen...

— **Zenbat biztanle bizi dira Marten?**

— **150...** — erantzun zidan hiztegiaren konsultatu ondoren.

— **Zenbat gizon? Zenbat emakume? Zenbat haur?**— galdegin nion

— **Gi-zo-na ni ba-ka-rra, e-ma-kume-ak 19 e-ta hau-rrak 130...**

— erantzun zidan.

— **Bueno, eta zu nola etorri zara honera?** — Berak, teñtatu gainean zegoen O.V.N.I. bat erakutsi zidan eta salto batez barrura sartu eta joan egin zen...

— Urrengo egunean, egunkaria eramanean nuenean elkarrizketa hau, inork ez zuen sinistu eta ez da inon publikatu... Ze pena!



Bakartxo Sukuntza 11 urte

Ginolatezen

Ginola egitea oso gauza erreza da. Erreza eta alai. Begira... zabal itzazu zure eskubo bost behatzak. Har ezazu errotuladore bat eta margo itzazu bost behatz puntta eder horiek... Behatz puntta bati arpegi serioa ipin iezaiozu, aldamenekoari berriz, parrezkakoa. Beste bati, begi itxiak (lotan baitago) eta bestei nahi dituzun ezaugarriak marraz iezaizkiezu. Hara zure behatzak panpin ponpox batzuk bihurturik. Hortik aurrera, nahi duzun ipuina asma dezakezu eta berehala zure behatzak ginolatzen hasiko dira.

Zure behatzak baino panpin handiagoak gustatzen zaizkizula? Ba ez dago prolemarik! Etxean, ikastolan, edozein gauza bihur dezakezu panpin-ginol: Hosto bat, harri bat, edo zuk egindako trapuzko maramak.

Lagun talde bat biltzen bazarete, ginola non egin ez dizue kezkatu behar. Edozein txokotan, aulki nahiz mahain baten atzetik, ederki aurkituko zarete zapi baten atzean izkutatzen bazarete. Ikastolako gela barruan egin nahiez gero, eska iezaiezue bi lagun maindira edo oiha bat bi izkinetatik heltzeko. Eta zure ikastolako lagun aurrean egin ezazue lehenago asmatutako ipuin bat.

Ikusiko duzue ze ondo pasatzen duzuen zeuok, bestei ondo pasarazten nahiean...

Ez bazaizue zuei ipuinik bururatzen, ondoko ginol-ipuin honek lagunduko dizue, agian.. Bi panpin beharko dituzue eta kartulinazko oilo eder bat. Besterik ez. A! Eta arraultz bat eska ezazue etxean... araultz egosita, badaezpada...

Iker agertzen da oilo bat bere atzetik doala...

I.-Kaixo lagunok! Begira ezazue zer oilo ederra! Galanta, ezta?... Erregalatu zidatenean, oso oso pozik jarri nintzen. Egunero esnatuko ninduela uste nuen, baina astebete bat darama nerekin eta kokorik ez du egiten...

(Iker oiloari zuzenduz)

I.- Oilotxo... Baina, zer egin dizut nik e?... Esan, esan, zer egin ditut nik mokoia ez zabaltzeko?... Triste al zaude?... Ez al zaude pozik nerekin edo?

(Nere, Ikerren laguna, agertzen da ezkerretatik...)

N.- Zer zabilta Iker?... Oi zer oilo ederra! Zurea al da?

I.- Bai, nerea da bai. Baina...

N.- Baina zer?

I.- Ez duela mokorik zabaltzen...

N.- Ez duela jaten?

I.- Jango ez du bal! Arto pilo bat egunero neskak

N.- Orduan...

I.- Ez du kokorik egiten! Hori gertatzen da... Aste bete bat darama nerekin eta oraindik ezer ere ez!

N.- Erakutsi al diozu kokoriko egiten?

Nik erakutsi?... Ez al daki, bada?

N.- Eztakit nik ba... Agian, oilo honek beharko du laguntzaren bat...

I.- Orduan, nik erakutsi behar diodala iruditzen al zaizu?

N.- Bai... baina, badakit zer egin dezakegun, Iker! Gure aurrean dauden lagunei eskatuko diegu laguntza... Denon artean KOKOKO eginez erakutsiko diegu oiloari. Bale?

(Nerea, Iker eta haurrak hasten dira KOKOKO KOKOKO KOKOKO eginez... Nekatu arte! Handik piska batera, oiloa kokoriko hasiko da.. Une berean, arraultz bat agertuko da...)

N.- Iker! Begira! Begira!

I.- Ai, bai ondo! Gure oiloak ikasi du!

N.- Ez hori bakarrik.. Ikus ezazu jarri duen arraultza!

I.- Aiba! Arraultz bat eta ederra gainera!

N.- Hemendik aurrera, egunero jarriko dizu arraultz bat... Ikusiko duzu, Iker!

(Iker haurrei zuzenduz)

I.- Mila esker zuen laguntzagatik? Mila miloi esker! Begira... gure oiloak arraultz batzuk egingo dituzue, tortila HANDI HANDI bat egingo dugu eta denon artean jango dugu.. Zer iruditzen zaizue?

N.- Umm! Neri oso ondo iruditzen zait, tortila asko gustatzen zait eta! Denok joango gara tortila jatera, bale?... Agur Iker? Agur haur maiteak! Beste bat arte! Aguuuur...

I.- Aguuuur!

Oiloak: KOKOKO! KOKOKO! KOKO-KO!.....

M.A. Landa



Aspaldiko botilatxo baten historia da hau. Hozgailuan lasai lasai igarotzen zituen bere egunak. Husten zenean, berriro ere, iturri azpian jarriz, urez betetzen zuten. Eta berriro hozgailura... ur hotz hotza gustatzen baizitzaien etxe hartakoei. Lehenengo aldiz, dutxa hotz hura bere barnean sentitu zuenean, beldur eta ikarez hilko zela pentsatu zuten... Ui, bai hotza! Dardarez egon ondoren denboraldi batetan bere barnean ura baretu eta ez zela ezer pasatzen konturatu zen eta berriro ere ondo gustora, sentitu zen. Astunago eta sendoago, bai! Baina lehen bezain gogor eta gardena...

Baina, tamalez, egoera atsegintsu harek ez zuen gehiegi iraun.. Egun batetan, etxeko neskatilari ideia bat bururatu zitzaion:

- Je, je... Etxean inor ez dagoen bitartean, sorpresa ederra emango diot botilatxo honi!

Honek ez du esan nahi, neskatila hura gaizto, bihurri, horietako bat zenik. Ke-ba! Bakarrik, ikertzea eta saltsak egitea gustatzen zitzaiola... Oraingoan zera pentsatu zuen:

Botilatxo hau olio z beteko banu, horizka bihurtuko litzateke... edo eta esnez beteko banu, txuri txuri bihurtu litzateke...

Eta botilatxoarekin holako esperimenterak egitea erabaki zuen.

Bizkor asko hasi zen sukaldean begira eta begira botila hura betetzeko zerbaitezen bila. Ardo kupeltxo bat aurkitu zuen

UR BOTILATXOAK



arraska azpian... Botilatxo hura, ardoz beterik zein polita egongo litzateken amesten zuen. Eta glu-glu-glu botila bete zuten... Tinbrea jo zuten. Atea irikitzen joan zen neskatila eta aldameneko lagun batekin jolastera kaleratu zen. Gure botilatxo ahaztuz, noski!

Hau, mahain gainean zegoen, mozkor mozkortua.. Bere kortxoak saltotxoak ematen zituen, ip! ip!, ardoak eraginda. Bai pozik eta alai zegoela gure botilatxoak! Zer gertatzen zitzaion? Zergatik dantza egiteko halako grina?... Dantzatu bai, horixe dantza egin zuela! Arin-arin, fandangoak, balseak eta tangoak... Azkenean, rock bizian ari zela logure rria sartu zitzaion.. Eutsi ezin zion logure sakon bat... Ahhh... eta besterik pentsatu gabe, etzan egin zen mahain gainean, lo seko.

Kortxoak askatu zen. Ardoa isuri eta gure botilatxoak ez zen guzti honetaz ohartu. Zurrunka jarraitzen zuen.

Esnatu zenean, jende mordo bat zegoen bere inguruan... Aaa! Nagiak atera eta harriturik gelditu zen. Zergatik astintzen zuten? Zergatik gonbitarazten zuten gordetzen zuen ardo piska hura? Benetan une larriak!

Ur hotzez dutxatu zuten. Iturriko urez bete eta berriro hozgailuan sartu zuten ur gardenez beterik. Berriro ur botila bat zen, lehen bezala... Baina, jakin izan dugunez, aurrerantzean botilatxo hura ez zen ordurarte bezain zorionsua izan.

Mariasun Landa

AUZMENDI
Sastre on baten izena.

Vergara, I.
Donostiako estila.

Oiga!

AMELIA



Kaiso Tomas!

Mariasun-en ikasle bat naiz, eta lan hau bidaltzen dizuet Anai-tasunarentzat.

MESEDEZI!... Buelta-tuko al zenizkidake marrazki hauek?

Amelak amabit bal esagote du
 Oso onak dira. Euzkara, zati,
 eta marrazkiak jolastu a puz:
 irabazte du.



Egun guzua jela:
 sear para dute
 da balaitzak be
 te estura joan
 behar du



"JORNADA NACIONAL DE ORACION POR EL TRAFICO"

"Apostolado de la Carretera, Comisión Episcopal de Emigraciones" delakoak bere liburuxka bat atera du "moral del tráfico"-z. Delako liburuxkan, irakurleak berehala konturatuko da zein gaizto eta tentazioan erortzeko aher garen gizakiok. Axularren gero-an bezala, hobe da automobilei ez hurbiltzea eta hala ere egiten badugu, gure urguilkeria, harrotasuna eta beste bekatu nagusi horiek baztertu behar dira orazio-netan jartzen.

Estatistiken arauera, gizakien oker eta hutsengatik ematen da hainbeste istripu eta hala diosku liburuxka honek. Zoritxarrez, Elizak ez du kausitzen Estatua errudun nagusia eta "gure kaminoak" zuloz bete, biraz eta bihurgunez bete, hestu eta behegainez gaizki antolaturik ba daude, ez dio hori guziorrek Elizari buruhauste handirik ekartzen. Berak bere aldetik errudun nagusia topatu du: Geu gara, zeren, edo presaz ala arinkeriaz, ordi edo erdi mozkorti gidatzen baitugu maizetan.

Noiz eskatuko dio Estatuari diru guttiago luzatzeko armagailu eta armamenduetan eta kaminoak hobetzea? Ala hau politika dea?

PREIRAULTZAILE EGOERA HAU

Duela hilabete batzu, azken hauteskunde haietan, Andaluziaz behera eta, gora mintzo zen jende asko. Hauteskunde haietara jotzen zuten alderdi eta koalizio guztien hagineta zegoen Andaluzia. E.A.J.k esaterako, ekintza historiko eta abertzale tankerako batez baliaturik, Andaluziako bandera zintzilik ipintzeko agindua eman zuen Batzoki guztietan. Zintzileriaz dakitenean ustez, ez zen hura lehen aldiz ikurrin estrainio bat eskegiten zela batzokietan, iragan garaietan, dioskute ttintila eta dindirriez aritzen diren miatzaileek, beste moetak zapi eta oihal eskegiten zen. Hala nola, errepublikako garaietan agertutako batzu, hots, Bihotz sakratuaren bandera, Vatikanokoa, Jesus eta Maria salbatzailearen adoratzaileenak, Mikel Deunarena etab.

H.B.k ere bitartean, Euzkadiko "ganbara goren" etarako hauteskunde haietan, bere irratipropagandaren bidez zorabiatu gintuen musika flamenkoaz, "bandera blanca y verde"-z eta beste hainbeste zirtzileriez, Andaluziarenganako mendekua predikatuz, "Vengamos al pueblo andaluz del pucherazo de la UCD votando a H.B." zioskuten. E.E.k eta PSEK beren aldetik ere, Andaluziaren apologia egiten zuten.

Baina hara hor beste erreferendum bat egiteko proposamendua onartu behar dela behin eta berriro Espainiako gorteetan, ea 143. artikuluan zehar ala 151.ean zehar abiatuko den Andaluziako autonomia, ea kategoria handi edo ttikikoa izanen den eta. Eta, erreferendumaren aldeko proposamena galdu egiten da bozka baten faltaz. Hementxe hasten zaizkigu lasterreriak eta buru-kurruskadak. PSOEk EAJ astintzen du deplauki eta kopeta handiez gorteetako katastrofeaz errudun eginez, hartara bozkatzan joan ez delako. "Andaluziarenganako mespretxu handia, lagungabetasunezko ekintza maltzurra, UCDkiko hitzarmenaren seinale garbia" ba diote.


E.E.k berdin dirautso H.B.ri eta kontsideratzen du berauxe UCDren hildo eta planen euskarri tinkoa, hala baitiote Euzkadiko harres eta orma askotan publikatu dazibaoetan. Guttiegi balitz, Valen Solagaistua E.A.E.ren idazkari ohiak barkatzeko guztiak eskatzen dizkio Andaluziakoei gutun ireki baten bidez. Handik guttitara bere alderditik jaurtiki zuten Solagaistua, salatzen baitzuen gozo gozo, samur samurkiro, alderdi horren makurkeria eta "kanpoko batzuri salduta egotea" KAS aipatzen du baina ez ditu aipatzen besteak eta guk ez dakigu nortzu diren. Harrigarria gertatzen zaigu zeren pixkat lehenago EAE (ANV)k prentsaurreko batetan bere autonomia berreskuratzen zuela esplikatzen zigun. Istorio, misterio, autonomia berreskuratze du ten manera! Hortaz luze, Senior Suarezen kontra eta Felipe Gonzalezen aldeko bezituzari prestatuko ziotela laguntza sinbolikoa adierazi zieten kazetariei. Eta, hala egin egunkarietan agertutako batetan. Teoriaz eta praktikaz datza beharbada nahastea ez baita berdin autonomia teorikoa edo autonomia praktikoa. Kontsideratu egin behar da beraz Valen Solagaistua, teoriaren aplikatze praktikoen biktimatza.

HB. tar gidari ohi horrek herri-irratian egin zion elkarrizketa batetan, ezker abertzalegoaren batasunaren alde jo eta ke abokatu zuen eta E.E.k egiten zuen bezala ez duela berak egingo, esan zuen. Ez du beraz "vascongadotar eurokomunismorik" egingen. Valeni arrazoi izpirik ere kendu gabe, bere deklarapenak iluntsu eta opakua izan zirelako ez zioten inori garunik garbitu.

Baina Andaluziak sortu zuen iskanbila ez da horregatik bere azken finera heldu. Euzkadiko paretak estali dira berriro EAJko panfletoz.

"Autonomi aurreproiektua zenean nork bozkatu zuen kontra, autonomizale guztien kontra ondu haretan? PSOE." "Non zegoen Tierno Galvan, sozialista eta Madrilko alkatea, azken plenoan? Ez zen galdu bada bozka baten faltaz? Non zegoen hura?"... enprestitoren bat egiten, ba liteke.

LA MORAL DEL TRAFICO



Vicente Hernández García

Dakusagunez, oraintxe honetan Tiernoren bozka falta zaie. Eta Tierno egon balitz? Pepe ez litzateke etorriko edo eta Juan. Eta H.B. joan balitz?... gobernuarekin batera bozkatuko zuketuen APko bi edo hiruk. Eta EAJK jo balu?.. APko guztiek gobernuaren alde emanen zuketuen bozka.

Horregatik zinez, Legebiltzarre burjes guztiak, gobernuak eta diputazioak komedia dibinoak direla pentsatzen duten guztiok erakutsi beharko diote behin eta berriro oinezkoiei egia dutela zeren, egunoro erakusten eta frogatzen ez den egia, gezurra bihurtzen da gero eta haboro.

Eta komedia dibinoa den ala ez susmatu bitartean hara joan ziren Nervacerokoak, ez baitiete pagatu sosik batere aurten. Bertan jende guztia bahitu zuten. Denetarikoa egon zen hertsialdi haretan. Azkenean Euzkal barne ministeritzak FOP deitu zuen. Irain, mespretxu, mehatxu, lasterkak, kolpeak eta, nagusitu ziren ganbara sakratuan. Agintekrisialdi larria egon dela diote zenbait kazeta espainolek. Larrialdia, seguru zutela diputatuak, aginterik ez baidute sekula izan. Hala berrezagutu zuen Garaikoetxea Jaunak. "Ez gara inor, ez dugu ezer egiten ahal, ez daukagu konpetentziarik". Baina esoteriko eta erreckeoago izan liteke ondokoa esanez: —Gazteak ez jakinez, zaharrak ezinez, egitekoak doaz gaizki eginez— eta guttinez Euskaltzaindiak - B- titulua emango ziokeen zeinen falta nabaria baitu.

Hamaikak inguruan, Garaiko eta bere koadrila foralak, barrutitik eskapatzera saiatu zuten baina alferrik, Nervacerokoak "in fraganti" kausitu zituzten eskileretan behean. Lehendakari jaun agurgarriak urdurikiro eta bere senetik aterata apostrofatu zituen kuarteroak (H.B.koek "sino son mas que cuatro" zioten eta). Perpaua laburra baina mehatxagarria izan zen. "Me las pagareis" esan omen zuen Senior Lehendakari Garaikoetxea jaun agurgarriak. Nervacerokoei "H.B.ko oportunisten pandila bat" laguntza prestatzera joan zitzaizen (E.E.k titulu hori eman baitzion pandila hari). EUP ajentziak honela ikusi zuen brastadakoa.

Nervaceroko batzuk: Goardia bera, goardia bera!!

Nervaceroko beste batzuk: Ba goatza hor behera
H.B.k: Garaikoetxea jauna
saiatu da eskapatzera.

Garaikoetxea:

Denok:

Garaikoetxea:

Ai, Mina!

Si no le hemos metido nada!!

Mina dudala Mina
ez bai naiz lumakoa
baina badut saltxitxoaia
lukainka, txorizo eta beste historia
zeinek kondatzen ditu
arduraz eta abantailaz
ehundaka pituk
atera zuten urdailaz.

Garaikoetxea: Tinta zaiku falta
papera ere abantxu
Nahaskeriari egin badugu
Jende onak barkhamentu!

EMKko langileak: Zer tinta eta zer papera
ekintzak behar ditugu
klasikoen lapurtera
hitz-mitzez dago sobera

E.E.k: Kanderailu, kanderailu
zuen hitzak oro engainu
diputadun nagusia
mundu ororen ibilgailu.

Garaikoetxea: Me las pagareis!!!

H.B.: Pagatu diok pagatu
ez haiz ez, izanen kitu
sartuko genizkiake
ehundaka pitu


Txikito hauek botata, denok jo zuten gora iskanbilak geldiezinez. Leizaolari "Carcamal, vejestorio" deitzen zioten. Besteak irribartsu gor gorrik zegoela ziotsen. Hor horretan, falta zirenak iritsi ziren ganbareta, Ortz eta HASIko ordezkari nagusia zeinek arenga sutsu bat bota zieten langileei. E.E.koek handiputz eta oportunistatzat salatu zituzten preiraultzaile hauek eta loriamentuen artean, eurokomunismoaren historia guztian zehar, langileek ez zutela inoiz ezker diputadurik bahitu esan zuten. Leninista batek aipu bibliko hori ahistorikoa zela ohartarazi zien. Saltsa horrela eta, saminkeria gehiago bota nahiez, batek zera gogorazi zien E.E. koei: H.B.koak baino fantasmada gehiago egiten zutela beraiek, zeren egun eta ordu guztietan parlamentuan baitzeuden handikeriak egiten.

Bitartean handik urrun ETA (PM)k bere bonbak ezkututzen zituen kostaldean, gobernadore zibilen sudurpetan lehertuz. Egunkari batek euskaraz eta lehen orrialdean publikatu zituen San Joan suaren txipristinak.

Egoera preiraultzaile honen kolofotzat, Garaikoetxearen aldeko eta kontrako manifestaldiak har ditzakegu.

Mementu hartan norbaitek nire belarrian xurxulatu zidan, Nikaraguan eta San Salvadorren ez zuela inork ere herriaren zorigaitzez trufarik, barrerik edo eta iririk egiten.

E.H.



ARRAZAKERIA NARDAGARRIA ESTATU BATUETAN

HAMABI DESARRA SOBERANO

Hiru mila goardia eta polizia inguru daude oraindik Miamiako ordenuari beha beha Beltzen kartierren sahietsean. Teilatuetan tiro jaurtitzailak kokatzen dira. Baina eztki, bitzta berriro normalitatera doa, joan zen bezain eztki. Hogei hil, 600 zauritu, 750 atxilotu orain dela hila-betea. Kopuru honek, hala ere, ez digu ematen, ez eta hurrik ere, hestutasun itzel eta izugarriaren ideiarik, handia baitzen polizien terroreak sortu zuen bras-tadakoa.

Justiziaren atalgoko ordezkariak oraindik ere Arthur Mc Duffieren kasua miatzen omen daude. Ordenu zaintzaileek erahil zuten kolpeka. Plantatzen zaigu betiko komedia berriro. Magistratu Zuriak frogarik gehiegirik ez balute, ba dute

Mc Duffieren heriotza baino zortzi egun lehenago beste Beltz bat erahil zuten poliziek burmuinetara tiroa sartuz. Kasu biak ber berdinak. Biak hil zituzten kamino batetan motorraz zihozelarik, "exceso de velocidad" aitzakiarengatik.

nahi besterik, ba dute nahi makina bat froga eta dutelarik hauzia ere ahazten zaie. Espainian bezala.

Hamalau hauzietatik lauren bat ez dute kontsideratu nahi ez baitago deliktugairik. Gorpua, ainitzetan bezala, deskonposatu dute deliberalki poliziek edozein

lekutan eta, poliziek munduko nonnahi bezala, kasu guztiak aztertzen dituzte, aztertu nahi ez dituztenak salbu. Lehenik zegoen bezala, dena berriro paratuko da; giza eskubideaz eredia den munduko Herri demokratikoenari doakion bezala.

Mc Duffieren heriotza baino zortzi egun lehenago, beste Beltz bat erahil zuten poliziek burmuinetara tiroa sartuz. Kasu biak ber berdinak. Biak hil zituzten kamino batetan motorraz zihozelarik, "exceso de velocidad" aitzakiarengatik.

Los Angelesen beste Beltz bat. Eulia Love. Ez baitzituen gas-konpainiari bere atzerapen guztiak berehala pagatu nahi. Lekukoa, Eulia Loveren semea bera, 9 urtetako mutil koxkorra, ez zuten ontzat

hartu magistratuek "ez baitzen deus onik eta fidagarririk esateko gauza". Hamabi desarra bota zizkioten Eulia Loveri polizigizonek, denak burmuinetan sartuz. Soberania dela iruditu zaio oraintxe honetan hainbat epaigariri. "Hamabi desarra soberano horiek gehiegi da, jaun po-

liziak". Amonestazione horrekin, usua denez, libro geratu dira poliziak.

Willian Gavin-i hogeitiro bota zizkioten hiru poliziek bere kargagailu osoa hustuz. Hark ez zuen nortasun karnetarik gainean eta Beltza zenez, aski zuela pentsatu omen zuten poliziek.

Baina Miamiako estatuak ez du arrazismoaren txapela irabazten. Lehen tokia Txikagok, New-York eta Filadelfiak be-



renganatu dute, zinez esan baitaiteke Estatu Batuetako telebista guztiek sortezten dituzten Beltzenganako maitasuneko programak atzerrietako biziki sinieskor eta tontoak nahastatzeko eginak baitira, beste garai bateko arazoak bailiren aurkeztuz. Zeren, mende honetako azken urteotan polizien egitate eta magistratuen babeste horiek arrazismoan oinarri ba dutela garbi erakusten digute.

Carterrek Georgiako gobernadorea jalgi zenean aski zuen bere bulegoan Martin Luther King-en erretaula zintzilikatzeaz. Bitartean, Beltzetako 13% soilki amaitzen dituzte lehen mailako estudioak.

OHAR BATZU

Orain gutti egindako estatistika batean, familia beltzaren diru sarrerak gutti direla ohartzen gara; ehuneko 61tik ehuneko 58raino jaitziz: Ehun hori familia zuri baten sarrera gonbarazio-maila delarik.

Estatu Batuetako gorengo epaikaeritzak 1954an hezkuntzan barneko bereizketaren kontra bere burua agertu bazuen ere, gaur egun oraindik Beltzen eta beste guttiengo etnikoek bereizturik jarraitzen dituzte ehuneko 50an. Bereizketaren kontrako legea atera orduko, Zuriengazko eskola pribatuak sortu ziren bazter guztietan eta Estatuaren laguntza me-

dio. Eskola publikoak, dirurik gabe, hezkuntza-maila gero eta ondoraino ba doa. Eskola hauetan bururaten dituzten beltzek ez dakite askotan kontaktzen eta idazten eta ez dakitelako lanpostua eskatzerakoan ez dute itaunketa papera edo kuestionarioa betetzen ahal.

Estatu Batuetako ghettoak hiri gehienetan ikustaraz daitezke. Watts, Los Angelesen. South Side, Txikagon eta ez

dago tarreak bereizteko harrese edo murrailarik, hala ere, ez da hauzotegi zurietan Beltzik batere kausitzen, ez eta Zuriarik Beltzenekoetan.

Etxebizitzari buruz, Gobernu beraren informe batzutan oinarriturik, bereizketa eta bazterketa guziz hedaturik dago. Haren hitzez "guttiengo etnikoaren familiek etxebizitza deslai, hondatu edo eta gainpopulatuen truk prezio garestiak pagatu behar dituzte. Lokatzerakoan ehuneko 75 kasutan hala da. Erosterakoan, ehuneko 65tan".

Los Angeles edo eta Detroiteko gazteria beltza desenplegaturik dago ehuneko 50tan. Beltzen arteko desenplegua Zu-

rien dolea ohi da Batasuneko Estatu guztietan.

Hirurogeitan, Beltzen mogimenduak arrakasta handia zuelarik, arrazakeria gaiditzeko itxaropena franko zegoen. Baina ez da izan. Hegoaldeko Estatuetan lege arrazistek berdin segitzen dute. Carterren eskualdean esaterako, inolako Beltzek ez du orain arte administralgoan posturen bat lortu, berbertan bizilagunetako 40% bete arren. Carterrek Georgiako gobernadorea jalgi zenean aski zuen bere bulegoan Martin Luther King-en erretaula zintzilikatzeaz. Bitartean, Beltzetako 13% soilki amaitzen dituzte lehen mailako estudioak.

Legeek beraz, ez dute nahikorik aldatu eta aldatu dutenean inflazioak eta langabeziak ondorio berdinak isuri dituzte zeren, autobusetako aulki guztiak inolako bazterketarik gabe jesartzeko badira ere, oraingo egunean lantegietara doan autobusik ez dago eta egonez gero, luxuzkoak ohi dira, Beltzei haien hartzea prezioak debekatuz.

Miamiko egoera eztitu bada ere, ez ginateke ezertan harrituko hemendik epe motz batetara iskanbila zailak hasiko balitzaizkigu.

Berdin gertatzen ohi da zikloiaren erdigunean.

T. Trifol

HAUR EUSKALDUNEI LAGUNTZA ESKE

1980, ALFABETATZE URTEA, izendatu da Nikaraguako gobernu berriak. Denok dakigu zenbat kostatu zitzaion nikaraguar herriari Somoza tiranoa botatzea eta zer nolako oihartzuna sortu zuen gure artean Sandinista Frontearen borroka sutsu eta heroikoak. Izan ere, tiranoak alde egin zuen alde, baina dena hankaz gora utzi ondoren, noski!

Egun, izugarrizko arazoren aurrean aurkitzen da Nikaraguako gobernuua. Hala ere, alfabetatze premiari heldu dio lehenengo. Populazioaren 60% analfabetoa da, egun, Nikaraguan eta arazo hau konpontzeko material, jende eta errekurtsorik gabe aurkitzen dira. Nazioarteko laguntza eskatu dute eta Euskadin Nikaraguarekin Solidaritateko Komiteak kanpain bat bultzatzea erabaki du.

HAURREN LAGUNTZA

"Nikaragua, amerikar herri txiki bat da. Bere populazioaren erdia, hamalau urteko beherakoa da. Denboraldi luze batez, herri hau tirano senitarte batek gobernatu du. Azkenengoak, Anastasio zuen izena eta Somoza abizena..."

Horrela hasten da, Euskadiko Nikaraguaren Aldeko Komiteak haur euskaldunei zuzentzen die gutuna. Era errez batetan, ondo adierazten zaie haurrei, nikaraguar herriak egin duen borroka eta

zer egoeretan aurkitzen diren haur nikaraguarak. Gutun honek dioenez, hiru haurretatik bat ez da behinere eskola batetara joan. Eskolara joan direnen artean, erdiak hirugarren kurtsoa baino lehen utzi dute eta guztira, %20-k bakarrik bukatzen ditu bere ikasketak. Hamar maisutatik, bederatzik ez du titulorik etab...

ARKATZ ETA GOMA

Haur euskaldunak, beste askorekin gonparatuz, pribilegiatuak direla konturazteaz litzateke gutun honen nahia. Munduan, haur asko ta askok ezin dutela heziketa bat jaso eta elkarri lagundu beharko lioketela esaten zaie. Nikaraguar buruz idazlanak idatzi, eta bere kuaderno, arkatz edo gomaren bat, haur nikaraguarrentzat ematea proposatzen zaie. Bizkaian, bederen, kanpaina hau aurrera doa eta azkenean FESTA HAN-DI bat egitea pentsatzen dute. Hor, joku, antzerki eta sariketarik ez da faltatuko...

"Somozak ez zien ezer utzi-dio gutunak-baina beste herrietako gizon, emakume eta haurrek lagunduko diegu..."

Ez dut uste, haur eta irakasle euskaldunak atzean geldituko direnik.

Mariasun Landa.



ZER GERTATZE

"Cuando un gusano se quejaba de que en Cuba había que comer lo que te daban así no te gustaba, un obrero peruano le respondió: "Y todavía se quejan! Ojalá acá dieran de comer. Otro explicaba que la leche era solo para los niños hasta los seis años, y una señora dijo que ojalá que los niños de Peru, todos tuvieran ese litro de leche que reclamaban para si ese grandulón quejumbroso". Prisma. Organo oficioso P.C. Cubano Maiatzak 80.



ERREFUXIATUAK ETA SOZIALISMOA

Iturburu ezberdinetan oinarritzen bagara ere, 300.000 baino gorago lirateke Kubatik irtendako errefuxiatuak azken 10 edo 15 urteotan.

Errefuxiatuen asuntu hau zentzu askotara erabilia izan da eta helburuak guztiz kontrakarrak eta ezberdinak izan ditugu. Kubako gobernuarentzat esaterako, azken errefuxiatuak eta zehazki Venezuela eta Perúko enbasaden bidez aterpe eta gordeleku bilatu zuten haiek, "Kubako gizartearen ondakinak dira, dohainik eta deusik pagatu gabe Estatu Batuetara joan nahi duten lotsabako gaizkile eta quinquiak hain zuzen" eta, soberania ez balitz hori guziori, Kubako gobernu sozialista, hortaz inolako azalpenik ematen ez duelarik, haietarako asko eta asko homosexual dela esaten ausartzen da.

Hala ere, eta ez dugu nahi honekin kalifikazio hori zuritzerik, delakoak prostituzioetan aritzen zirela, gobernuak esan nahi zuela pentsatzen dugu.

Gobernamendu kapitalistentzat bestalde, "Castroren diktadura krudelak zapaltzen dituen herritar zintzo eta inuzenteak" besterik ez lirateke errefuxiatuok. Argudio hauek maisuki erabiltzen dituzte Estatu Batuetakoek. Amerikar propagandaren araeuan, errefuxiatuen arteko erreiarta eta protesta guztiak "presence of communist agitators-eragile komunistentatik" egoten ohi dira. Behin Estatu Batuetara iritsita, errefuxiatuak kontzentrazio zelaian zarratzen dituzte eta zer esanik ez, bertan daramatzaten bizi-kon-

dizioak guztiz infracumanoak izaten dira. Izan ere, dela hilabetea gutti gora behera, Fort-Chaffe-ko kontzentrazio zelaian iskanbila itzelak egon ziren "eragile komunistek" bultzatuta. Amerikar



populuarit telebistak adimena jan eta xurgatu diotelarik, "eskergabekeria handia" iruditu zitzaion Estatu Batuetako salbaltzaileen aurrean zeren, "aberririk honetaz itzelezko gobernamendu hiltzaile baten hatzaparretatik askatu baitzituen errefuxiatu gizaraxook".

Gauzak honela eta, bazterrak batzeko asmoz, 300.000 errefuxiatu horietatik, asko dudarik gabe, "kontrairaultzailea" edo "kontrairaultzaileen" senidea izaten ohi da. Baina kopurua, ez dela handia pentsa dezakegu. Bloke kapitalisteko Herri askok, Mexikok, Haitik edo Jamaikak esaterako, duen exiliatu ekonomiko

edo errefuxiatuen kopurua kuantitatiboki eta erlatiboki askoz handiago baita. Kubako gobernuak betidanik ez dio inoiz alde egiteko duen eskubiderikukatu. Eta azken hau garbi geratu beharko zaigu zeren eta, Fidelen hitzez: "La construcción del socialismo es una tarea voluntaria de hombres absolutamente libres". Nahiko arrazoia ba du.

MIGRAPEN ASKATASUNA EDO ETA U.S. DOLLAR

Oraintsu honetan 3.000 pertsona "Kontrairaultzaile" eta hauen senideak alde egiteko baimena, eman du Kubako gobernuak. Azkenaldi honetan, Estatu Batuetara eta guziaz Kubako errefuxiatuak eraman. Arraro samar iruditzen bazaigu ere, irudiz inolako arrazoirik ez zutelarik, Ve-

Kubako gizartearen ondakinak dira, dohainik eta deusik pagatu gabe Estatu Batuetara joan nahi duten lotsabako gaizkile eta quinquiak hain zuzen.

N DA KUBAN?



nezuelak eta Peruko enbasadak izan dira urteotan migrapenaren kontra egon direnak. Batzutan, ez zuten visarik zabaldu nahi; askotan, mila luzamendutan egunak eta hilabeteak joan, zain egon da anitz errefuxiatu. Horretarako arra-

tzen da, errefuxiatuei Floridako senideek bidaltzen baitiete. Migrapena aldiz, ilegala edo alegala bada, Kubak mozkin guztiak galtzen ditu. Ez dira beraz enbasadetako hertsiketa horiek Kubaren gus-tokoak izaten.

Kubako gobernuak betidanik ez dio inori alde egiteko duen eskubiderik ukatu. Eta azken hau garbi geratu beharko zaigu zeren eta, Fidelen hitzez: "La construcción del socialismo es una tarea voluntaria de hombres absolutamente libres".

zoia nahiko garbi badago. Estatu Batuek eta ingurumariako nazioek propaganda psikologikoa lortu nahi izan dute asuntu honetan eta jakina, legalki eta iskanbilik gabe Kuba abandonatzeak ez dio mesederik ekarten propaganda antikomunistari. Hobe, beraz, iskanbilak sortarazi alde guztietatik "governamendu marxista" hori salatzeko gero. Propagandaren asuntuan bilatuko dugu beraz, errefuxiatuen arazoaren azalpenetako bat zeren, iskanbila eta biolentzia eskapatzeo sortzen duenak askatasunik ez duela adierazten baitu.

Baina hala ere, affaire honek badu beste muturra. Migrapena legala izanez gero, migrantegiak 1.000 U.S. dollar pagatu behar dio Kubako gobernuari, pasaporte, bidaialdia, zerga eta abar gisa. Gehienetan, diru hori divisaz paga-

Azken batez, Kubako gobernuak dioenez, "halako jendea ezer pagatu gabeko bidaia egiteaz pentsatzen ari da "eta Sozialismoak, denen betebeharra, denen atxekimendua behar badu, oro eta

Etsipena barruratu zaie migratuei. Asko konturatu da kapitalismopeko txitxi eta eztiaren faltsukeriaz. Fort Chaffeko manifestaldian mila kubatar exiliatu ibili da libertad-libertaka sozialismoak ematen zizkien guttienezko abantailak ez baitituzte Floridan.

denok zaintzen baititu, elikatzen baititu modu berdinez, haren ahaleginak, denonak izan behar baitira eta "hala pentsatzen ez duenak sozialismoaren eraikitzeari bere deslaguntza eta desatxekimendua frogatu dio". Eta, gertatzen zaigu guztiz harrigarria zenbait gobernamendu kapitalisten propaganda tontoa

zeren eta, beren atea "eskapatzeko" zabalik duen Kubako gobernuak oso kopuru ttikia du errefuxiatu eta migratuetan. Are ttikiago, duen subgarapenez, jasaten duen hogeitertako blokeiu ekonomikoaz kontsideratzen bada.

Harrigarria beraz, zeri eta ez besteri deritzogu guk: Hain gutti edukitzeaz. Espainiak aspaldidanik 2.000.000 errefuxiatu ekonomiko du munduan zehar eta Portugalek non denbora garaietan migrapena zihorturik baitzegoen, 3.000.000 izan ditu eta ohi ditu garaiotan. Batz besteko desberdintasuna portzentaiatan nabariegia da. Espainiak 7%, Portugalek ia dobla eta Kubak 3% aldi berean.

HELBURU EZKUTUAK JOKOAN

Blokeiuak handitu duen Kubako ekonomi krisiari oso neurri egokia zaio bere bizilagunetako batzu galtzea. Egokiago, bizilagun haiek "antisozialak" ba dira eta, nekerik gabe ogirik ez dagoenez, zuzenak iruditzen zaizkigu "antisozial" horiek pagatu behar dizkieten zergak. Etsipena barruratu zaie migratuei. Asko konturatu da kapitalismopeko txitxi eta eztiaren faltsukeriaz. Fort Chaffeko manifestaldian mila Kubatar exiliatu ibili da libertad-libertaka sozialismoak ematen zizkien guttienezko abantailak ez baitituzte Floridan.

Dudarik gabe, Estatu Batuek atera nahi dituzten ondorio psikologikoak Hego Ameriketako nazioetan. Kubako eredia zabal ez dezan propaganda muntaketak behar dituzte, eurek ere krisi ekonomiko larriaz pairatzen baitute. Joko hauetan Kuba'ren inbasioaz beldur da hainbat. Estatu Batuetako armadak etengabeki

aritzen dira Guantanamo inbasioarenak saiatzeko. Inbasio ahalezko horren soldadu asko Kubatar migratuek lirátéke zein artean Kubatar funtzionaritzak prestatzen bait leudeke amerikarrak. Ba daiteke, baina ez dugu uste gaur egun behintzat egin ahal denik.

T. Trifol

ELKARRIZKETA

Aupa gazteok.

- Zer duzu maiteen mundu honetan?

Gauza bakar bat esateko abstrazioa egin beharko da; gehien maite ditudan gauza konkretuak bereganatzen dituen konzeptu orokor bat, alegia. Gehien maite dudana, hain zuzen askatasuna da. Beste mundutako gauzarik ez dut maite, zeran nire errepublika mundu hontakoa da.

- Zerda gorrotagarrena zuzetzat?

Zapalkuntza, hau da, zapaltzaileak gorrotatzen ditut. Topikoa dela hau esatea? Giza-abereon artean zapalkuntza bera topikoa denez ez da harritzekoa. Hemen aipa genezake hainbat zapaltzaile moeta: burgesia, ejerzitua, erlijioa, polizia, paternalismoa, e.a..

- Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

Normala den legez, talde bakoitzak eritzi bat dut. Gaur egun espektro politikoaren berrantolaketa berezia azaltzen zaigu Euskal Herriko ezker barnean; eta uste dut baikorra izan dela. Ni neu LAIA-ko militantea naizenez, zerbait ezagutzen dut euskal ezkerrean, eta gehien bat neure alderdia, noski. Sintetikoki zera esan nahi nuke: Euskal Herrian langile alderdi abertzale iraultzaile bat eraikitzeko premia eta abagadunea dugu.

Zaintzu dira egungo lanik garrantzitsuenak talde iraultzaileontzat?

Langile mugimendu mailan euskal sindikalismo iraultzailea bultzatzea eta finkatzea. Beronekin batera enpresetako asanbladak eta komiteak indartzea eta baita hauen arteko koordinakundeak. Hiritar mugimenduan, Hauzo Elkarteak, Antinuklear Batzordeak, amnistiaren aldeko borroka, e.a., potentziatu behar ditugu. Langile ta hiritar mugimenduen arteko bereiztasuna ez da inola ere banaketa bat. Bestalde, oraindik asko ikasi behar dugu emakume mugimenduaz, homosexualitateaz, e.a., gizarte honek inposatutako bizi-moldeak aldatzeko. Mugimendu hauk gabe ez da izanen iraultzarik.

Zaintzu izen aipatuko zenituzke gustora?

Izen asko aipatuko nituzke, zeren kondairan zehar emakume ta gizon aso egon dira, bakoitza bere erara, gizarte aske bategatik urratsak eman erazi dituztenak. Agustin Chaho, Bernat Etxepare, K. Marx, Charles Chaplin,

SARRERA

Jende arrunta, gure betiko jende ixil edo bozgailugabedunari, kazetariarik normalean ez diogu kasu askorik egiten. Haien aburuak baliogabekotzat kontsideratzen dira. Haien esanak, mesanak direla sinestarazi nahi digute. Hala ere, balako jendeak, historiaren atal garrantzitsuenan idazten ohi du.

Jende ezezagunaren eritziak ez dira batera fruitugabekoak. Giza arruntaren ideiak gure pertsonaia famatuena desmitifikapenerako balio dute. Denatan bezala, herriaren jakituria adierazgabeari lapurtu egiten diote beren sentimendu, eguneroko lanez probetxatuz.

Horregatik hain zuzen, ANAITASUNAK irakurle guztiei norberaren ideiak azaltzeko, sail ireki bat proposatzen die. Sail ireki bat eta joko psikologiko bat batera. Urte honetan zehar elkarrizketen bidez irakurlearen eritziak azaldu nahi ditugu. Proposatzen dugun elkarrizketa guztiz libre eta atipikoa izan daiteke. Hala ere erantzuleak 10 galdera zebatzu beharrezkoa luke erantzutea, beste gainerako galdera—erantzunak berak gebituz; nahi izanen duen modu eta erara. Beraz, galderaerantzun guztiak, irakurleak egiten ditu, 10 horiek ezik. Hamar hauei ere erantzun behar dio.

Elkarrizketa guztiak anonimoak izanen dira. Hau da, Anaitasunak ez du argitaratuko inongo elkarrizketaren egilearen izena. Hala ere, idazten duenak beraren karnetaren zenbakia, izena, adina eta lanbidea azal batean bidaldu beharko digu. Azalpen horiek gabe ez dira argitaraturik izanen.

Honarte gure asmoaren erdia azaldu dugu. Goazen orain sail honen bigarren parte azaltzera.

Bigarren parte hau joko psikologikoa dugu. Irakurleek elkarrizketaren nortasunaren ageri batzu igerrri behar ditu. Hauek dira: Adina (bosi urtez gorra behera), lanbidea, sexua, bizilekua (hiri edo herri handi batetan bizi den ala herri txiki edo baserri batetan bizi den). Azkenez, elkarrizketa bakoitzan puntuak eman beharko dizkio, -5tik hasita +5 arte.

Puntu gehien hartuko duen inkesta irabazlea izanen da. Lehengo hiru inkestei Anaitasunak txapela eta zerbait gehiago saritzat emanen dio.

Elkarrizketaren datuak igerriko dituenari Anaitasunak urte beteko harpidetza dohaina eskeiniko dio.

Jokoaren bigarren parte honetan, ANAITASUNAREKIN lan loturak dauzkatenek ezin izanen dute parterik hartzea; bai aldiz, elkarrizketak prestatze kotan.

Groutxo, G. Aresti, M. Hernández, Rosa Luxemburg, Iparraguirre, Lauaxeta, eta beste hainbat eta hainbat.

- Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

Guztiz desordenatua naiz irakurtzera-koan; ahal dudana guztia irakurtzen dut. Mementu bakoitzean animu egoerak bultzatzen nau alde batera edo bestera. Gomikia (Asterix, Zakilixut, Mafalda...), poemagintza (Aresti, M. Hernández...), ensaioa, e.a. gustatzen zaizkit.

- Zilegi al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?

Presentea eta etorkizuna ezin dira banandu. Gaurko egoera hobetzeko borrokatzen dugu, eta beraz biharko gizarte hobeto bat prestatzen ari gara. Bat bitan banatzen da, ezta?

- Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzeko?

Gizona, eta norbera, gizarte barnean

mugitzen direnez ezin da abstraziorik egin. Gizartea, gizona, norbera, unitate bat dira. Bakoitzak norbere burua ezagutzen aitzin baldin bada hobeto ezagutuko du gizartea eta gizona.

- Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

Ez gara bizi behar egun polit batetan izugarrizko iraultza egiteko, iraultza egiten baizik. Edozein modutan, egunen batetan langileak bere boterea inposatuko du eta klase zapaltzaileak gudaritzatik baztertu betiko. Hori iraultza ren urrats handienetakoa izanen da baina iraultza ez da sekula bukatuko. Komunismoa ala Barbaria.

Euskarak etorkizunik al du?

Euskara arma iraultzailea den bitartean bada etorkizuna. Gaur egun erreibindikapen konkretu batzuren alde saiatu behar gara, diglosiaren aurka. Nahiz eta oraindik gizartea ez izan euskalduna, ez dut ikusten euskara gabeko euskal gizarterik.

BIZIAK

- Anaitasuna aldizkariari bagagoz-
kio, gai berririk sartuko zenuke?

Dudarik gabe gomiki bat jarriko nion
eta pixka bat humoretxuagoa eginen
nuke. Bestalde "Elkarrizketa biziak"
saila betiko utziko nioke. Nahiz eta nik
eragozpenik ez eduki, ez duzue galdet-
zen ia zein gai kenduko genuen aldiz-
karitik.

- Anaitasunaz balorapen bat egin
mesedez?

Txartzat ezin dut ipini, zeren ez derit-
zat horrela. Onégitzat baloratzen ba-
dut, kapazak zarete sinesteko eta esta-
tizismoan erortzeko. Horra hor dilema.
Hala ta guztiz, kojonuduak zarete.

Humoreari buruz ezer bai?

Nonbaiten irakurri ahal izan nuen:
"humore gabeko iraultza gorringo ga-
beko arraultza". Hori baita egia zienti-
fikoa. Gora Euskadi katxonda, irri-
barretsua, martxosoa, larrujotzailea,
gibelhandia, festalaria, sotanagabe-
koa, eta askoz ere gorriagoa!!!

Gaizka

PUNTU EMATEA

Elkarrizketa honi zuk zenbat puntu ematen diozu?
lagura ezazu biribil batez

5 4 3 2 1 0 +1 +2 +3 +4 +5

Zure uzteaz, elkarriztatuak ondoko adina duke:

16tik - 23raino.....
23tik - 31raino.....
31tik - 39raino.....
39tik - 47raino.....
47tik aurrera.....

Zure ustez elkarriztatua:

emakumea da.....
gizona da.....

Zure ustez elkarriztatua:

hiri handi batean bizi da.....
herri handi batean bizi da.....
herri txiki edo baserrian bizi da.....

Zure ustez elkarriztatua lanbidea duke:

Esku langilea.....
langile espezializatua.....
Arantzalea edo Baserritarra.....

Goi mailako kuadro teknikoa (ekonomista, inje-
niadore, peritoa, medikua, abokatua), irakaslea,
kazealaria, etab.....
Behi mailako kuadro teknikoa (Bulegolaria, idaz-
karia, agentea etab).....
Enpresa txiki baten jabea.....
Maizterra.....
Goi burjesia.....

JOKOAREN BALDINTZAK

● INKESTARI DAGOZKIONAK

- 0) Irakurle guztiek parte har dezakete. Gure kolaboratzaileek ere bai.
- 1) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orralde bidali beharko dituzu.
- 2) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaraz edo eta joskeraz. Zuzentzekotan geuk zuzen dezakegu.
- 3) ASTERIZKOZ DOAZEN HAMAR GALDEREI BEHARREZKOAK DUZU ERANTZUTEA.
- 4) Zuk zure buruari gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
- 5) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak kar-
netaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz, ez
da argitaraturik izanen.

● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal
honetan parterik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak garbi
azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutze bat markatuz.
- 4) Berdin egizi ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutze bat mar-
katuz.

anaitasuna

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-
tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

“GERO AREKIKO ITXAROPENAZ” IZENEN MAHAI-INGURUAK GASTEIZEN

Lau egunez gertatu ziren Gasteizen Arki-
tekto, Industri-perito, Aparailari eta Indus-

alor eta eritzi askotako jenderik egon behar
du eta ez, gertatu zen bezala, hildo bere-

**Beno, eta zer bota ziguten maixu haiek? Ba eguneroko periodi-
koetatik, telebistatik, irratitik, gubernetik (Madrilekotik jakina)
eta edozein entrepresatik botatzen digutena, hori bai, oso
teknikoki esana, lumero askoz orniturik, oso lasaiki, maisuki eta
konbintzente kondatua.**

tri-injinadoreen Elkargoek batera eraturik,
Euskadiko ekonomiari buruzko mahai-inguru
batzu.

Maiatzak 12,15,19 eta 22 presente egon
ginen, bada, Euskadiko zenbait tekniko
ekonomariek esan behar zigutena entzuten.

Egia esan ez da uste genuen bezain inte-
resgarri izan. Lehendabizi, ez zen benetako
mahai-ingururik izan baizik eta mahai-
zeuden bakarrizketa batzu. Hau da, gaurko
eta geroko Euskadiko ekonomiaren azterke-
ta sakon eta zabala izan beharrean, tekno-
krata eta irakasle ospetsuengandik espero
genuen arabera, gain-egituraren ideologia-
ren propaganda penagarria opa ziguten.

Lau egun haietatik, zera aipatuko genuke,
alegia, bigarren eta laugarren jardunaldie-
tan gertatutako hitzaldiak, bi arrazoienga-
tik bereziki, egun haietan entzute handiko
lagunak aritzen zirelako eta jendearen arte-
tiko kritika bakarra sortu zelako.

Bai, bi egun haietan, besteren artean,
Antton Perez de Calleja, Lankide Aurrezkie-
ren zuzendaria bat, Inazio Etxebarria, IKEL-
ko zuzendaria, Patxi Mongelos, ULARKO-
ko zuzendaria, Gurutz Ansola, irakasle eta
parlamentaria, han ziren. Ez da dudarik,
horien arteko eztabaidarik sortu behar ez
zuela, honetara, eraturitako mahai-inguru
haietako gure kritikarik handiena, hots,
mundu honetako edozein mahai-ingurutan

koak denak.

Beno, eta zer bota ziguten maixu haiek?
Ba eguneroko periodikoetatik, telebistatik,
irratitik, gubernetik (Madrilekotik jakina)
eta edozein entrepresatik botatzen digutena,
hori bai, hots tekniko esana, lumero askoz
orniturik, oso lasaiki, maisuki eta konbin-
tente kondatua. Hori da denok dakiguna:
Euskadi krisisaldi gorri baten barruan da-
goela, petrolioaren garestitzeak, Espainiako
azokaren estualdiak, deskapitalizazioak, gu-
re industrigintzaren zaharkitzeak erru osoa

**EGIN-ek ez zekarren “kolokioaren” berririk ez eta sorturiko kri-
tikarik ere. Gero batzuk esango dute ezker-muturreko abertzale-
leen panfletoa dela... beharrik noizean behin eskubiko ideologia
dizdiratsuaeren zabaltzaile bihurtzen dela, hori da hori panfletoa
aprobetxagarri!!**

dute. Horretaz gainera, lan-sarien gorakada
eta euskal gizartearen egoera. Horrelaxe
adierazten digute krisisa gure teknikoek.

Antton Perez de Callejaren hitzaldia hain
makala izan zen non, jendearen arteko zen-
batek erraz kritika bailiezazkiokete haren
argudioak. Callejak, gubernuko (Madrilekoa
berriz) Abril Martorell kritikatu eta gero,
argumento berberak erabili zituen!!

Calleja, Etxebarria, Ansola, denak batera
ideologia ekonomiko konkretu bat saltzera
etorri ziren Gasteizera. Deustun, Donostian

Euskadi
Expectativas ante
una nueva etapa

Geroarekiko
itxaropenak

MES DE MAYO
SALON DE ACTOS
LUIS DE AJURIA
7.30 TARDE


12 LUNES
ASTELEHENA

15 JUEVES
OSTEGUNA

19 LUNES
ASTELEHENA

22 JUEVES
OSTEGUNA

LUIS DE AJURIA
ARETOAN
ARRATSALDEKO
7' TERDIETAN
MAIATZA



ANALISIS INDUSTRIAL • ANALISIS DE LA ESTRUCTURA ECONOMICA FINANCIERA
ANALISIS DE LA PLANIFICACION Y ORDENACION DEL TERRITORIO
RECONVERSION Y REESTRUCTURACION INDUSTRIAL
AZTERKETA INDUSTRIALA • EGITAMU FINANTZ EKONOMIKOAREN AZTERKETA
LURRALDE ANTOLAKIZUN ETA PLAGINTZARAKO AZTERKETA
BERBILAKATZE ETA BERREGITURAMEN INDUSTRIALA

eta behar den nonahi era berean agertuko
dira, krisisaldiaren beldurra zabaltzen, lan-
gabezi handiagoren izua sartzen, lan-sarie-
ren garestitzeaz arreguruzten, hitz batez,
gure herriko burrukaldi osoa, Euskadiko
ekonomiaren kaltegarritzat hartzen.

Egia esan, eta edozeinek inoxtotat jo gin-
tzake, tekniko hoiengandik, zeozer gehiago
espero genuen, Euskadiko krisiaren azter-
keta egingo zuketelakoan geunden, kondi-
zio guztiak aipatuz, haik zientifikoki, ahal
bada, aztertuz eta ondorioak ateratuz eta
erantzuna emanez. Baina alferrik ez da
horrelako ezertxo ere gertatu. Atera gertu-
tuen konklusioak beraz; krisisa berez etorri
zaigu, konponbide aixerik ez dago, denok
gerrikoa estutu beharko dugu, krisisa luza-
tuko da, langabezia ezinbestekoa da...

Aterabiderik nagusiak berriz, zer esanik
ez, lan-sariaren goraketaren mugapena eta
jendearen “zintzotasuna” izan ziren.

Azkenik, ohartxo bat. EGIN-en mintza-
diaren laburpena agertu zen, baina hiz-
irik berek edo beren inguruko norbaitek
egina zela zirudien. EGIN-ek ez zekarren
“kolokioaren” berririk ez eta sorturiko kri-
tikarik ere. Gero batzuk esango dute ezker-
muturreko abertzaleen panfletoa dela... be-
harrik noizean behin eskubiko ideologia di-
diratsuaeren zabaltzaile bihurtzen dela, hori
da hori panfletoa aprobetxagarri!!

Jon Iruretagoiena.

MADRILGO LAGUNEI

Kaixo joseba, agur Iñaki, nolatan Jon?, zer moduz Erro? Ba dakizue zuek zeinen sentimentala eta sentikorra ipintzen naizen ni zakila esku leun eta delikatu batzuk laztantzen didate-nean; hori ezin dut galerazi, nire patuaren parte bat omen da, eta patua ez da gauetik goizera apurtzen ez hausten. Eta zergatik orduan momentu honetan ez nago sentimentaltarako ez sentikortasunerako gaiturik edo la bederen pixkat tenorean: noski, momentu honetan esku kailotsu-zikinak baitira zakila eta poltroak menderatu nahi dizkidatenak. Eta astorik astoenak astemearen Birjintasuna apurtuko lukeen bebalxe, honelatantxe apur-tzen dut nik une ezezkorron intrantsigentzia.

Halarik ere, arazoa ez dahari, arazoa zenbat bururen gainean egiten dugun pix jakitean datza. Hori jakinez gero, eta kontuak aterata, laka egin ahalko baitugu buru gainean eta bestelako esfortzurik gabe, nekerik gabe.

Ba dakizue, ni beti izan naiz —beharrez agian— bakarti isolatu bat, zapuztu bat; ilun-pelo orduetan bideetan zehar burua agertzen nuen gizaki bakarra. Eta neure joran horrexek izan zen bapatean ordu orgasmikoan otarrera jaurtiki ninduen. Gaueko itzaletan sogileen begiradek ezin atzeman izanik, errazago dela denen begiradetatik ihes egitea, ezkurturantz bidexka iluna hartu nuen eta konpasiorik gabe sakatu pultsoaren azeleradorea. Helburua oraino ez dut ikusi baina, eta bidean oztopo franko bai aldiz.

Barrenkale kalean nagoela ere gogoratzen behinokoa instat angustioso eta barrezkoek; edo eta Gran Viatik ibiltzen eta hausnartzen takoi koipetsuen oinkada izengabekoa, anoni-moa, ixil-ixila; nahiz manifestapenen batetan "ba datoz, ba datoz" oihu erritmikoaren eragi-na hanketan nabaritzen; zein Pozasen neska prestatuen patxuli sarkorra ekidinez nahiean baina ezintasunean... Bai, horrela pentsatzen makinaren teklea delarik burutapenen inko-erentziaz ohartzten den karra, ez dago prag-matismo trinkobaten hildotik bideratzen naizenik esaterik.

Hegoaldeko Yemenen egon denak badazagu bero "oriental"aren poderioa Euskal Herrikoa baino askoz haundiagoa dena, eta horregatik bakar-bakarrik balitz ere, pozik egon beharko luke. Hegazkin batetik bere burua botatzen duenak, lurra noiz jo itxaroten, ba daki zein ikaragarria den jaugailua irekitzen ez deneko bitartea, eta ezin diezaiokete tenore horretan al-boko txoriari agurrik eman. Garabi modernu eta herdoildu bat pintatzen ausartzia denak, jakingo du ziurki zerbait arte plastikoari bu-ruz eta nola aplikatu brotxaren teknikak orma biluzietan, pintadaren bat egiten, adibidez. Eta horrexegatik bakarrik balitz ere, pozik egon beharko luke. (Ahaztu zait, baina esan behar dut jaugailua ireki gabe lurrerantz zu-zenen denak, esperientzia berri bat ezagut-zearren, pozik egon behar duela). Eta Urkiola mendiko alboetan goiz hotz-izugarri hotzbatez botilatxoak haitzaren kontra botatzen duenak,

baina huts eginez eta lurrean joz, horregatik bakarrik, botila apurtu ez zelako, pozik egon behar du.

Eta oroitzen naiz "murrutxurtuetaz" (mal-ziarik gabe), eta baitaere Begoñaz eta (oroit-zen zara, Iñaki?) "txotxoa" usaintsua daukan neskarekin ezer jakin nahi ez duen mutilaz (hori "Poxpolu"an izan zen, ezta? ostiral ma-darikatu hartan). Esana dut hala ere orain ez nagoela sentimentala. Eta hori jende guztiak Karrantzako haizea freskagarria eta nahiko erotizantea dela esan arren.

Zera... argi, guztiz argi dagoena, esateko as-ko txo ez dudana da. Ostera, garunari komeni-garria zaio noizbehinka osteratxo bat egitea. Hara, saiatuko naiz orain poematxo bat egi-ten:

Handia dela gauaren egongela
diote jakintsu
injeniariek;
ez dute ziurki neurtu
egun argizko
zubiaren ederra.
Kaiolan dagoen xoriak
esan dit zer senti duzuen,
malko bat daukat jalgi beharrez
eutsiko dut baina eta egingo
egingo
amets...

Beti arte eta besarkada bat

Karlos Santisteban

KOMUNEAN IRAKURTZEKO GAIK (2)

NORABIDE ALDAKETA * TINKA
EZKERRETARAT

(publikatutako laburpena)

Vascongadotar partida bat abia-tzen da Nafarroarantz, haurrekin euskarantoz egiten dutelarik.

Euskarantoz egiteko modua: (Mi-nia zorritzki atera ezazu, eskuekin mulla buelta egiten dituzun bitartean)

Hango atzerritar basquesek espai-moitzat hartzen dute partida osoa eta Bizikaitar bat gogoetat hasten da bere Pariseko garaiaz zeren taberna-riek ukrainianoak zirela esaten bai-tzieten. Asmotan dagoela eta, bere buruari galdetzen dion andereñosis gogor batek jota ote zegoen, etxeko baserritar batek ez duela euskararik egiten esan baitio.

Gaitzak honela, anuntzio batez go-goratzen da. Ikastola bateko anun-tzioaz hain zuzen: ... "Gomezkorta-rengatik galdetu".

Posible al zen Gomezkortarengatik gal-detzea? Gomezkorta delakoa egongo ote zen andereño atzean kristoren laba-

narekin anuntzio hori ipintzerakoan? Ipi-niko al zuen andereño edo irakasle ho-rrek anuntzioa Gomezkortarengatik? Nor ote zen Gomezkorta? Maniatiko bat? Misterio itzela, kondaezinezkoa, foneti-kari ez lotua seguraski, misterio sintakti-koa eta ez dakit Txillardegia edo Gotzon Garate deitu beharko dugun hurrengo nobela batetan azter eta argi diezaigu-ten.

Eta misterioak aztertzerakoan kontura-tu zarete zelako misterioitsu den gure laugarren kategorietako kaminoetan ipi-ni diguten blason berri horietakoren bat?... NORABIDE ALDAKETA: Zer ote da? Berkontsideratzeko eta erreflexiona-tzeko deia? Istripuaren beldurrengatik lehengo basilizara jo behar dugula ber-tako apaizari gure bekatu guztiak konda-tzeko oharraren bat?

Eta atzerritar basquesek TINKA ES-KUINERAT ipini baligute? Beste dikta-dura baten garaia hurbiltzen zitzaigula eta kamuflatzeko beharra dagoela adie-razi nahiko zuketene? Eta TINKA EZKE-RRETARAT ikusiko bagenu? K.A.S. na-gusitzen ari delako seinalea? Ez al da bikoitza gure "lengua vernacula" hau?

Vernacula berba bera, "pierna" eta "cu-lo"-tik sortu al zen?

Eta IDAHOko gobernadoreari emango balio baskotar administrazioen jartzera eta bertako administratuen onerako kar-tel bere bereziak ere ipintzea bideguru-tze eta azken puntako kamino herstue-tan? Ez al litzateke harrigarri izanen "GI-DA ARDURAZ BETERIK", "USTEGA-BEKO GURUTZABIDE SESTRAN" eta halakoak ikustaraztea?

Problema hauek soluzionatzeko peti-zione bat egin beharko genieke frantse-sei, hau da, "Défense de doubler" (Ez tolos), "roulez prudement" (birak egin itzazu zuhurtasunez), "serrez à gauche" (Tinka eskerretarat) eta angle-sei "unattended level-crossing" (Uste-gabeko gurutzabide sestran) "Drive ca-refully" (Gida arduraz beterik) eta abar guzioek alda ditzaten eta gaztelania gi-san ipin ditzaten. Bestela, vascongado-tar alfabetatuok ez dugu biperrik ulertu-ko eta gure hizkuntza eta perpausa hauek ez dira Euskal Herri analfabetua-rentzat eginak. Eskerrik asko.

T. Trifol

MANEX URRUTI: ARDIETATIK PETROLIORUNTZ IKURRIÑAREKIN BIHOTZEAN

Koloradoko Grand Junction-en bizi den Manex Urruti nafarra izanagatik ere beste euskaldunekin ukan dituen hartuemanengatik hemen darabilen euskara errespetatzen saiatu gara ehuneko ehunetan, ez dira nireak beraz elkarrizketa honetan agertzen diren euskalkien nahasketak.

Itauna.- Manex, nongoa zara, zein herri-ritan jaioa?

Erantzuna.- Ni Donazahartarra naiz, Donazaharre hori duzu Garaziko herri txiki bat, Donibane Garazikoaren ondoan, hiru kilometrotara...

I.- Nafarroa Beherea orduan?

E.- Bai, Nafarroa Beherea.

I.- Eta zenbat urte daukazu honez gero?

E.- Handik ateraz geroz?

I.- Ez, ez, zenbat daukazun zuk.

E.- Nik, ba'tut hiruretan hogeita hamasei urte eginak joan den Azaroan, orain hirurogeita hemeretzigarrenean, baina berrogei urte hontan bezala naiz oraino.

I.- Gazte gazterik.

E.- Gazte gazterik.

I.- Eta zenbat urte Ameriketara etorri zinenetik?

E.- Amerikara etorri nintzan 1925an, hori heldu da berrogeita hamabost urte hala, nunbait, ahatzia dut, eztut kasurik egiten.

I.- Hori ona da eta.. Eta zer ize duzu hainbeste urte handik eta hemendik eman eta gero?

E.- Ba, ba'kixu beharrak igorri gituzu eskaldunak handik hunat; gaztiak, ordean denbora hartan izigarri pobre zen han, etzen orai bezala, zuek suertia duzie denbora onian sortiak baitzizte, bena guk, guk gerla finitu ta berehala izigarri pobre zen han, ni ari nintzan hiru dolarrendako lanian. Ahotza egon nintzen, eta hemengo hiru dolar irabazten nituen eta goizeko lau orduetan altxatu ahoztegia eta arratseko bederatzia hamar orenak artio hartzen ginan lanian, fuerte; nere nagusi erho bat zen laneko, azkarra biziki eta izigarri dorpia...

I.- Eta horretan, arotza bezala, Donazaharren bertan egiten lan?

E.- Uharte Garazin. Ahotz ona zen, biziki famatua, eta nahi nuen ikasi.., eta lanean hartzeko, ba'kixu, ahozgoan. Hiru urte izan niz harekila aprendiz janean truk.

I.- Janean truk... ba ederto asko ikasi zenuen, hemen zuk egindako erremin-tak ikusiak...

E.- Bai, sei urtez izan niz harekila, hiru urte aprendiz eta gero hiru urte gehie eta ordean pagatzen zuen apur bat, baina guti. Nere aitak eramaten zuen sots guzia. Nik eztut sekula zenta bat ikhusi.

I.- Euskal Herrietan askotan egin den moduan.

E.- Bai, hala zen ordean denbora hartan.

I.- Eta zenbat zineten eta zareta familian?

E.- Gu ba ginen lau neskato eta ni mutilla bakarra. Bost ba ginen, haurrak, denak bizi gira oiño.

I.- Gurasoak ere?

E.- Ez, aita eta ama hilak dira. Ama ehun urte hurbil hil izan zen, hiru hilabeta eskas.

I.- Eta zuek baserri batetan jaloak zarete ala kalean?

E.- Herri txikiko bazterrian, zapzi ehun jende da, herri ttikia Donazaharre, eta guk han, nere aitamek errentatia zuten etxe zahar bat. Milia zortziehun eta berrogeitazortzian egina zuzun etxia, etxe zahar bat.

fuerte egina lehenago.

I.- Nola erabaki zenuen Ameriketara etortzea? Hona etorri baino lehenago, etxo erran zenidan, gerlan ibilia zarela.

E.- Gerlan eniz ibili. Frantses harmadan egun dut urte bat zerbitzu. Denak hogeita urtetako mutillak ziran.

I.- Eta gero, zerbitzua bukatuz geroztik erabakia hartu zenuen Amerika aldeantze etortzeko?

E.- Harmadan nintzelarik. Bordelen egon nintzan harmadan, eta hor handik alde egiteko paperak egin nituen, entsegida, zorigarrien egunian harmada utzi eta, hartu nuen barkua. Eta barkuan nintzelarik, ene kompania denak deitu zuzten atzerat, Argelarat igortzeko gerlarat eta ene bila izan ginen jendarmak Donazaharren, gure etxean, eta nere arrebak erran zakon Ameriketarat joana zela, eta barkuan nintzan inik.

I.- Baina zuk etortzerakoan ez zenuen problema berezirik eduki, entzun dugurako...

E.- Bai...

I.- ...denbora hartan Ameriketako parlamentuak, senaduak, halako lege bat onartu zuela...?

E.- Bai, hogeita lauean pasatu zuten legia ez gehio uzteko jendea hunat, espagnolik, frantsesik, eskualdunik, italiano, grego, irlandes, nehor ere, bakar bakarrik aleman ingeneruak nahi zuzten utzi hunat etortzerat. Bertze hoitarik anitz, asko ba zela hemen, etzuten nahi hunat utzi egiterat. Nere agenteak erran zuen, ba duk aleman barku bat joaiten dena New York-era, Bremer Haaven-etik partituko duk eta Havre-n geldituko, eta hi sartzen ahal haiz barku hartan, eta gero amerikano tonto horiek eztute ezagutuko hi euskalduna ala alemana haiz, eta problema eukiten baduk bila igorriko diat, bidaia ederra egingen duk, eztuk deusik galtzen. Eta hala etorri nintzan. Bederatziehun eta hogeita hamalau aleman eta ni eskualdun bakarra barku hartan.

I.- Eta alemanik ba zenekien?

E.- Enuen hitzik egiten, ez alemanik, ez beste idiomarik, frantses apur bat eta euskara.

I.- Orduan, ez zenuen inolako problemarik ukan?

e.- New York-en enuen problemarik izan. Hogeita bost gizon aldean pasatzen gintuen examinazionea doktorrekila. Ba zen sei zazpi amerikano doktor eta behatzen zuten zure osagarria nola zinuen. Hogeita

bost gizon aldean. Hiru egun atxiki gintuzten lau egun eta bost gauez, Utah-rat, eta bide guzian etzauten jaterat eman trenena krabatarik enuelakotz, eta ordean guk, eskualdunek, denbora hartan krabata gutxi usatzen ginuen. Krabata izan banu enintzan hartan etorriko koloradorat.

I.- Bai... Eta gero zein herritan geratu zinen hor Utah-n?

E.- Hor gelditu nintzan Price-n, herri txiki bat ba da, eta nere kusiak han bizi ziren. Eta hek ba zuzten sei zortzi mila ardi.

I.- Urrutiarrak haik ere?

E.- Ba, Larraldetiarrak. Aitaren aldeko ahaideak, familia berekoak ginen. Heiekilan ari nintzen lanian...

I.- Denbora luzez?

E.- Bost urtez.

I.- Eta gero?

E.- Gero hiru eskualdun jarri ginen elgarrekin, guhaurek ardiak erosteko.

I.- Nongo eskualdunak?

E.- Batño nafartarra zen, Leon Arbilla hiruretan hogoi urtetako gizon bat, bertzia uhartiara eta ni donazahartarra... Eta Arbilla lehenbiziko urtean hil zuten tiroka cowboy-ek, cattlemen deitzen dira hemen, bakeruek. Problema izan genduen, ordean tokia ba zan biziki.

I.- Zuek arditan Utah aldean ibiltzen zineten...

E.- Bai Utah-n, eta Coloradoko mendi gorretarat joaiten ginen.

I.- Nor zen hirugarren gizona?

E.- Uhartiara, Jon Lamik. Hura bizi da oraino.

I.- Eta non bizi da?

E.- Hori Price-n, Utah-n bizi duzu.

I.- Familia egin du han?

E.- Familia ba du, mutiko bat bakarrik.

I.- Euskalduna?

E.- Ama, erdi frantsesa, eta hori eskualduna bera, bena mutillak eztu hitz bat egiten ez frantsesez, ez eskuaraz.

I.- Eta zergatik hori?


E.- Lengoaierik eztute ikasten hemengo haurrek. Ingelesa bakar bakarrik. Ba duzu asko eskualdunen haurrak, aitamak eskualdun hutsak eta hitz bat eztute egiten. Eskoletan erraten dakote... Biziki fama txarra ginen guk eskualdunek eta atzerriar guziek, frantses ala espainola, ala grego, denek fama xarra eraman dute. Eta fama xarra ematen dute haurreri. Eta haurrak harriturik atxikitzen dituzte. Eztute erran nahi nihori aita eskualduna dela, hala pasatzen duzu hemen.

I.- Hemen Coloradon, orduan, eskualdunekin, mexikarrekin bezala gertatzen da, ezta?

E.- Bai, berdin berdina. Biziki, gaizki tratiak izan gira, terrible, eta oraino ere berdin berdina duzu hemen. Amerikarra biziki arrazista duzu eta amerikano arraz... Beno, ezira amerikarrak, amerikanoak indioak dira. Hok aleman xar batzu dira eta ingeles



Barkuan nintzelarik, ene bila izan ziren jendarmak Donazaharren, gure etxean, eta arrebak erran zakon Ameriketarat joana zela.



batzu hunat etorriak, gestapo aleman denak hunat etorriak dira eta gehiengo baitute bozketen bulegoetan eta denak hor sartiak baitira. Polizia, aleman gestapoak, biziki gaiztoak dituzu hemen. Zuek eztaizue hemengo problemak nola diren.

I.- Jarrai ezazu. Bost urte horik egin eta gero, nola joan zen zuen arteko lana? Zer egin zenuen?

E.- Guk orduko lanean ikasiak ginen eta arditan ba gindakien, eta gazte eta fuerte baiginen ezkenen beldurrik deusendako.

I.- Etorri zinenean deus ez baitzenekien artzaintzaz, ezta?

E.- Enakien deusik. Ahotza nintzen. Enakien deus, ardiak bazuen lau zango, hortzik bazuen. Beharrak erakusten dauzu zernahi. Ardi kondatzen txampiona nuzu. 1.000 ardi kondatuko dautzut baina hutsik egin gabe.

I.- Eta gero zenbat urte egin zenuen gizon horiekin?

E.- Hura hil artio konpainian ginen, eta bertzia eta ni egun ere konpainian gira. Berrogeita hamar urte ba dira konpainian girela.

I.- Eta nola gertatu zen Leon Arbilla nafar horren heriotzea?

E.- Bakeruek tiroka hil. Eta gero bala gelditu zan birikietan, eta ospitalerat eraman nuen eta hiru egun egon zen bizi, eta ordian denbora hartan doktorek etzakiten biziki. Egungo egunian kenduko zakoten birikitik. Bena, ordian, hiru egunen burian hil zen ospitalean. Gero etzuten nahi ehortzi izan, katolikoa zela eta artzain.

I.- Nortzuk ez zuten nahi izan hura lurperatu?

E.- Hemen deitzen dira "funeral home" horik. Jende hilen etxeak dira. Ba bi etxe horiek, eta... nik eztaikit euskaraz nola erraten den hori, hilen tokia... horiek errefusatu zuten eramateko hilerrirat. Nik, ordian, arditako kamionean kargatu eta desertura eraman, eta han enterratia da.

I.- Hori Utah-n izan zen?

E.- Bai, Utah-n

I.- Eta gero nola aldatu zinen zu etxek eta tokiz, ni orain zure etxean nagoelako eta Coloradon nagoelako, Grand Junction-en hain zuzen?

E.- Nere kusiek Coloradon erosi zuzten orubeak, anitz terreno, eta gero Utah-tik ardiak ganbiatu nituen hunat, jinez sei hilabetez bidean, zortzi mila ardi ekarri gintuen; eta baita bide handia, behar zen anitz denbora hartu halako ardi partidaren ekartzeko. Eta oinez etorri ginen, eta gero udako tokiak hemen erosi zituzten eta neguan joaiten ginen berriz Utah-rat, toki apalak baitira Utah-n eta desertua, elurra gutxiago egiten han.

I.- Eta noiz ezkondu zinen?

E.- Hamar urte ingurian ezkondu nintzan, 1935an.

I.- Grand Junction-en bizi zinelarik?

E.- Arditan nintzan, mendian egoten nintzan beti, na ardiak saldu gintuen 1935an, eta ezkondu eta hotel txipi bat erosi.

I.- Non hori?

E.- Hemen, Grand Junction-en, eta hotel hura kurritu dugu hogeitaz urtez. Enen emaztiak kurritzen zian hotela eta nik berriz ardiak erosi ditut erosi nituen lur anitzekin, eta gero emazteak hotela kurritzen zuen eta nik ardiak.

I.- Noiz arte ibili zara arditan?

E.- Ba arditan ibili naiz, berrogei urtez pasa.

I.- Segi aurrera!

E.- Ardiak ezarri gintuen, eta gero ba dakizu, gehio lur erosi, gehio ardi eta negozioan sartzen zira eta behin sarturik lurra ezta aisegi saltzen, Buruko minak emaiten dituztenak saltzen dituzu lehenik eta gauza onak atxiki gibelerat eta lur anitz erosi gintuen eta Utah-n ba da petrolio asko gure lurretan atrapatia. Gero ardiak saldu...

I.- Petrolioak, noski, lagundu zizun dirua egiten, ezta?

E.- Izigarriko dirua emaiten du, baina diruak eztu satisfakziona guzia egiten mundu hontan, nere gogoia eta bihotza beti Euska Herrian da.

I.- Nik ba dakit, hain zuzen, aspaldian hasi zinela harantz joaten eta horrelako.

E.- Lehenbiziko urtetan nekez da hemen dirua egiten eta lengoia ikasi behartzu hemengo maneran bizitzen behar duzu ikasi eta gero erreposki erreposki jartzen zira sosarekilan fuerte eta osagarri eta denak, osagarria atxikiz beti, konfidantza bankutan eta jendekin ondo ibili, zure kontuak pagatu eta lana fuerte egin, eta hala egiten duzu zeure bizia eta hobekiago zahartzen. Gero, han ene ama xahartu zen azkarki eta hari egin nakon villa bat berria, biziki polita.

I.- Noiz hori?

E.- Hori egina da eta 1955an. Han Donazarren egina duzu, villa polita. Nere arreba harekilan bizi zen hil artio, eta orain nere arreba hor da, etxe hartan.

I.- Entzun dudanez euskaldun asko lagundu duzu zeure bizitzean. Konda izaguzu horretaz, bai eta Ameriketako euskaldunen hartuemanaz.

E.- Guk, emazteak eta biok ekarri erazi dugu eskualdunak hantik, artzainak eta nekakitilak, eskualdun neskak, artzainen artzainak nahi baitzuten etorri honat, eta 150 sinatu'tut paperak, ba dakizu, gogor zen handik ekarraztia. Oraiko egunean ere gogor duzu biziki. Eta gero ekarri erazi ditut ehun baino gehio jantzari, kantari, Bilboetik etorri dira bi urtez Olaetakoak. Bi aldiz izan dira horik hemen.

I.- Grand Junction-en bertan?

E.- Bai, bai eta ba zen hogeita hamar bat hoitarik kuadrilla bakarrian. Eta gero Odearra Miarrizteko kantari eta dantzariak, ezagutzen dituzu?

I.- Bai.

E.- Ba hek izan dira urte batez berriz, Miarrizteko etorri hunat.

I.- Zuk propio ekarriak?

E.- Bai... hemengo ekualdunek ez dute eskula zenta bat ezarri.

I.- Eta zergatik hori?

E.- Bai horik, nik eztaikit zuek euskaraz nola erraiten duzen, baina guk zuhurrak direla erraiten dugu.

I.- Guk ere hala esaten dugu.

E.- Bai, zuhurrak, halakoak dira denak. Jantzariak ekarri erazi dituk da horiek. Oinkariak, Bakersfield-etik...

I.- Zuok urtero urtero euskal beste bat antolatzen duzue hemen Grand Junction-en, ezta?

E.- Urte guzietan egiten dugu larrazketan. Bi egunez egiten dugu beste. Euskaldunak bazter guzietatik etortzen dira hunat, Kaliforniatik, Idaho, Montana, New Mexiko, Wyoming-etik, bazter guzietatik etortzen duzu. Gaztariak maite du joatea liberrerat, eta horiek denak ba ginen pilotariak eta hemengo "college" horretan hartzen ginen pilotan. Baina debekatu gintuzte n han

ko, gu sobera dorpiak ginela, eta gora mintzo eta gu eskuaraz mintzo baikinena zera zaitzen zer erraiten ginuen, eta erran ez gehio joateko harat. Ordian kontratia egin eta alimaleko plaza egina, atzo ikusi duzu.

Bai "Urritia plaza". Fotoan ikus daitekeena. Euskal Herrian gertatzen dena bai duzu berririk?

Egia errateko, eztaikit xuxen zer gertatzen den han, baijan asko gauza nik eztaute, hausten hartzia, jendeen etxeak erre automobilen hautsi, hori biziki gaizki. Guk hemen eskualdunek eztegu horiak eragiten egin, guk arreglatzen dugu zer eta bestek baino hobeki egiten. Nere hau ikusten duzu eskualdunen modura da. Hemen etxe eleganteena duzu, biena, eta koloreak, eskualdun koloreak ditut, gorri, xuri, berde, ikusten du bezala hor, eta... hara zuzenezko eskualduna.

Eta hitz eginez deus ezin erdiets daitekeena, ezer gehiago eta gogorrago ote egin behar?

Hori egina dut nik Ameriketara, berdin da. Gu ezkinen ongi etorriak huna. Amerikanoek etzuten nahi. Ezkintuzten nahi ikusi hemen, a la fuerza de Dios egina dugu egin duguna, gogor hemen ere izateko, konprenitzen duzia? Eskual Herrian banaintz, irudi zaut, han ere eginen zela, isil isila, lana egin, lurra erosi, etxe zaharrak erosi eta arreglatu, eta dirua han ere egiten ahal da, sosa han ere fuerte.

Baina zuen aldean, Ipar Euskal Herria, ba da problema handi bat, gazteak kanpora joan behar du lan egitera.

Hori nik eztaute maite. Han Donazahar, eta bazter guzietan Euskal Herria, astu ofiziala tinbreak saltzeko emazte eskualdun batek kurrutzen ahal du, eta Alsace-Lorraine-tik, eta Pariseko nortetik har-

tzen'uzte harat emazte dibortziatu makilla batzu tinbren saltzeko. Euskal Herriak ba'tu emazte xarmantak, eskualdunak, tinbreak saltzeko edo zernahi egiteko. Hori biziki gaizki da. Ordian, nik eztaite nola egin behar den, baina hor zenbait behar da egin. Nik etxea erratzeko, ofiziale horien tokiak xeha nintzazke, ez beste eskualdunenak. Nik ikusi dudana eskualdunek egin ederrena, Carrero Blanco jautsarazi baitute, hori duzu fantastikoa.

I.- Bai, hala uste du jende askok. Baina gibelera joanez, konda iezaguzu cowboy-ekin zenuten problemez.

E.- Horiek izigarri xarrak ziren. Guri erre dauzkegutzute ardi-korralliak. Baina guk heldu den urtean mila ardi gehio erosi, eta joan berriz harat gehio ardiekila, eta ez barkatu. Lurrak erosi alboan. Harrapatu terrreno guziak, kredita onak gintuen bankutan. Eskualdunek hemen 98%-k kredita mugagabekoa dute, nahikoa ditu ematen du bankuak eskualdunari.

I.- Kondifantzazko pertsonak nonbait.

E.- Baitakite langileak direla. Euskal Herria eztaite nola egin daitekeen. Guk egin dugun bezala behar lukete egin. Gu hiru eskualdun jarri ginen elgarrekin. Batek etzuen egiten ahal; hiruen dirua eta lana jarri elkarrekin eta hola egiten duzu. Hemen gehienak, euskaldun gehienak hala dira, konpainian jarririk, ba dakizu. Eta denek fuerte lan egin, eta hala azkartzen duzu...

I.- Zu Euskal Herrira urtero joaten zara, ezta?

E.- Bai, ba da hamabost urte.., gehio, hogai urte. Urtean bi hiru aldi jaiten niz, urte batez izan niz bortz aldi. Segun..., noiznahi joaiten nuzu. Pasaporte bat beti etxikitzen dut prest noiznahi joaiteko. Ez bakarrik Euskal Herrira. Mundu guzia kurrutua dugu senar-emazteek. Amerika, Alaskatik Tierra del Fuego denak ezagutzen ditut. Indioak, gu eskualdunak bezala, maltratatiak dira mundu guzian, berdin dira.

I.- Eta lortuko dugu eskualdunek ezer datozen hoge urteetan.

E.- Heldu diren hoge urteotan ni enuzu izanen. Eztaite zerurat Jinkoak eramanen nauen ala ifernurat, bitartean baldin badago toki bat han esarriko nu. Nik handik behera begiratuko zitiet. Ez Frantziak, ez Espainiak ezteute utziko independentzia emateko.

I.- Eta esperantza ez ote dugu gorde behar?

E.- Bai. Izazie eginahala, behar duzue batasunean jarri. Familia batean ezpadago batasunik familia ezta sekula altxatuko, eta nazionia, ezte inporta handia ala txikia, berdin berdina da. Nik erranen'uzte beste gauza bat. Ameriketara ikusiak'tut nik mundu guzietarik jendeak etortzen, jende arrazak. Ba dira aferrak. Eskualdunak ere ba dira anitz aferrak, gaixoak. Hek joanak dira atzerat dolar bat egin gabe, alferrak baitziren, ba dakizu. Indarra egiteko langile behar du izan. Lehenago bizkaitarrak, nafartarrak beza ako jende fuerte eta langilerik etzen nehon ere mundian, na orai bakatia duzu horien indarra, gazteak heldu direnak ezteira zaharrak bezala, fuerte osasunez eta

eskolan apur bat hartuta lana uzten duzie debalde. Hala, hartan duzu aberastasunaren sekretia. Ni enaiz izan eskolan ia, bi edo hiru neguz ibili nuzu. Solamente egiten dut lau hizkuntza, ingelesa, espainola, frantseza piska bat oker, eta euskera beti egiten dugu hemen.

I.- Ondo Manex, eskerrik asko elkarrizketara honegatik.

Andolin Eguzkitza

Hona hemen, Manex Urritik bere arrebari jarritako bertso hauk:

EZ ZAITUT AHANTZIKO

Goizian goizik jeikirik ene arreba mutxurdin mokokaria
Emaziaren bihotzean ongia eta gaizkia fite da ageria
Ongi du hunek deuru zaharraren larruaz estalia
Elizarat doa arruzaroak eskuetan goguan gaxtakeria.

Zuhaurek etsamina hobe ixil ixilik egoitia
Zergatik erran eni gaixoa nor maitatzia
Berdin galda urtxoari hegalki gabe airatzia
Horrengatik etzuen balio gu biak betiko samurtzia.

Lehenik egin diot etxia gostatut berri berria
Eskualdun molderat borta eta leihuaq teila-
tia
Urgulua burian ez nahi ezarri eskualdun koloria
zer dago ederragorik mundian berde xurita-gorria.

Gure banderaren koloriak ukatzen tienari atxiki begia
Eman zakoten esparantzeta den andre baten koloria
Ez gorririk ez berderik eri ote hago etxe hori horia.
Erran ere nion errespeturekin, zer etxe koloregabia.

Mundu huntan denek dugu maite sorlekua
Sukaldian sartu orduko gira elgarreaz mokokatua
Etxe huntan ez duk hik itekorik ni nuk jabetua
Taxi bat izanez fite derru nintzan hantik partitua.

Erregretatzen dut nere gaxtasuna mendian pasaturik
Berrogoi urtez artzain, desertuz desertu ibilirik
Gehiago, orain konprenitu dut ez dela amodiorik
Artzain joaiteko igual zen galeretarat joanik

Undar pertsu hau zuri adio erranez sekulako
Nik ez zaitut gehio nere bizian molestaturiko Nigarra begian, nik ez ditut zuk erranak ahantziko
Debalde duzu eni erraitia ez dut maite dutana utziko

Manex artzaina, Koloradon




Arditan nintzan, mendian egoten nintzan beti, na ardiak saldu gintuen 1935an, eta ezkondu eta hotel txipi bat erosi.

KURUTZIAGA APURTEA



Eta nik harriak eta sinboloak maite ditut. Baina harri guztien gainetik gure herriaren hizkuntza maite dut. Eta, zer gertatu da gure hizkuntzaz? Eta zer ari da gertatzen gure hizkuntzaz? Zer egin dio euskarari, eta geure herriari, Espainiako botereak azken.



Joan zen maiatzaren 16an goizaldeko 3rak inguruan lehergailu batek Durangoko Kurutziagako Gurutzea hautsi egin zuen. Kurutziagako Gurutzea Durangoko herriak eta Euskal Herri osoak, duen ondasan kulturalerikiko bat da; nahiko inportantea eta interesgarria bera, baina bat.

XV. menderaen erdialdeko Gurutze hau, Fray Alonso de Mella eta bere jarraitzaileen heresia espiatzeko asmoz egina, gure herriaren antzinako sinismen eta ohitura mitologikoen bazterturik eta ezabatutik kristianaren nagusitzearen sinboloa da. Intrasjentzia baten sinboloa, beraz, eta aro batekiko akaberaren garaitzapena. Hala ere, gure herriaren garai bateko lekuko artistikoa.

Gurutze honen apurketa buruz asko eta luze mintzatu da; eta eman diren interpretazio gehienek apurketa hau zeharo politizatu dute, eta gure herriaren denetarikoz erantzidunak gaudenez interpretazio ugari eta ezberdinak izan dira. Boterea duten aldeari, Espainia mailako edo euskal edo udal mailako boterea, eta boteretik ez duten sektoreek, guztiz haserreturik, guztiz mindurik, eskubitarren ekintza hau gogor kondenatu edo salatu dute, indar handiagoz edo apalagoz, bakoitzaren estrategi politikoaren arauera.

Baina azken aspaldi honetan eskeptiko edo sineskaitz bihurtu naizenez, berbazko kondena baliogabe guzti hauen aurreser (eta guztiak baliogabeak ez badira ere, gehienak bai) harriturik, harri bihurturik aho zabalik, geratu naiz. Eta nire harriduraz ez da nik apurketa hau kondenatzen dudalako. Ez, ez da horregatik. Nik badakizun Gurutzea konponduko dela, eta seguruenik Espainiako gobernuak pagatuko duela.

KO GURUTZEA GIGUTELA ETA



konkista, baina niri kondena hauek hipokri-
a iruditzen zaizkit.

Kurutziagako Gurutze apurtu digute, bai,
eta da. Baina Kurutziagako Gurutze San-
tuaren Eliza (horrela izan baitzen deitua gu-
herriaren konkista militarren aurretik,

**Non daude udaletako itzultzaileak (Durangokoa, adibidez)?
Non euskararen ofizialtasuna?... Ba dirudi, egunero, segundoro
euskarara hiltzen ari dela ez dugula gogotan hartu nahi.**

gure hizkuntzaz behintzat, eta gaur "La
Cruz", konkistatzaileen hizkuntzaz) ez
digute apurtu, guk apurtu dugu, edo apur-
tadila onartu dugu. Eta zer gertatu behar
da Murueta izeneko dorretxearekin? Bada,
Durangoko berririgintzaren barruan bota
gin behar digutela (eta legalki gainera),
gure botere faktikoen onarpena eta guztiz.
Ez zer gertatzen da Izurtzako Etxaburudo-
re likus aurreko Anaitasuna batetan) ize-
ko dorretxearekin? Badakigu teiltua ero-

**Gurutzea inportantea da. Bai. Eta nik ez diot ezetz. Baina
inportanteagoa da gure hizkuntza (eta ea nork dioen ezetz?) eta
berau hiltzen ari dira, apurtzen (lehergailu eta guztiz) ari dira.**

naioa? Eta, kabroa gehitzearren, teiltua
niri zaio bertako udalbatzarre demokratiko
ari dorretxe hau konpontzeko mozio
onartu ondoren. Eta zer gertatzen da
Durangoko Santa Ana plazako mosaikoa-
kin? Ez du gure udaletxeak egunero apur-
ten dela ikusten ala? Ezingo ote da berta-
ko trafikoa debakatu?

Nire ustez batzuren kondena ustelak eta
galeriarako baino ez dira. Eta aurreko lau-
askoren arteko adibideak dira. Kasuak,
berelako kasuak, zoritxarrez, ugari aurki

daitezke. Faszistek apurtzen edo jausten
utzi. Eta isil isilik gainera (edo badaezpa-
da?).

Eta nik harriak eta sinboloak maite ditut.
Baina harri guztien gainetik gure herriaren
hizkuntza maite dut. Eta, zer gertatu da

gure hizkuntzaz? Eta zer ari da gertatzen
gure hizkuntzaz? Zer egin dio euskarari,
eta geure herriari, Espainiako botereak az-
ken... (jarri nahi dituzunak) urte hauetan?
(eta botere honen ordezkariak ere atenta-
tua gogor salatu dute). Espainiako botere-
tsuen nahia, asmoa euskara hiltzea, erahil-
tzea, ezabatzea, akabatzea izan da, eta ho-
rretan bai ari direla jo eta ke, gartsu eta
martsu.

Eta hemengo botereak zer egin du, zer

egiten ari da euskararen alde? Zenbateko
laguntzak ikastolen, alfabetatze-euskaldun-
tzaren alde? Non daude udaletako itzul-
tzaileak (Durangokoa, adibidez)? Non eus-
kararen ofizialtasuna? ... Ba dirudi, egune-
ro, segundoro euskara hiltzen ari dela ez
dugula gogotan hartu nahi. Eta akabatze
honen aurrean (zeren aurretik planifikatuta-
ko akabatzea da eta) zer egiten dute euskal
boteretsuak?

Eta oposizioko alderdien eta sektoreen
praktika linguistikoa zein da? Begira izeaio-

zu zure inguruari, eta beronek erantzungo
dizu, Euskara, gaur ere, zapaldu egiten du-
gu, eta beraren zapalkuntza onartu egiten
dugu, edo eta zapalkuntzaren aurrean isildu
egiten gara, berau gauza normaltzat hartu-
rik.

Gurutzea inportantea da. Bai. Eta nik ez
diot ezetz. Baina inportanteagoa da gure
hizkuntza (eta ea nork dioen ezetz?), eta
berau hiltzen ari dira, apurtzen (lehergailu
eta guztiz) ari dira.

Kurutziagako Gurutzea apurtu dutenak,
gure ondasun kulturalak jausten uzten di-
tuztenak, gure hizkuntza hiltzea nahi dute-
nak, gure Herria akabatzea (gu banan ban-
an hilik, edo denok batera, lehergailuak
edo bonbardeoak erabiliz) nahi dutenak,
denak berberak dira. Eta hau horrela ikus-
ten ez duenak, berak jakingo du zergatik ez
duen nahi ikustea.

Hibaikoa.

ARGAZKIEN OINAK:

a- Izurtzako Etxaburutorre izeneko dorre-
txea. Teiltuak lur jo du.


b- Santa Anako plaza. Mosaikoa apurtu-
rik, bertan kotxeak aparkatzen dutelako eta
inork ez duelako babesten.

c- Landakoko Murueta dorretxea. Duran-
goko berririgintza berriarekin bota egingo
dutena, apurtuko dutena.

d- Kurutziagako Gurutze Santuaren Eliza,
propaganda politikoak estalirik. Guztiz zain-
durik ikus daitekeenez, eta hori barrukaldea
ikusten ez duzelako. Eta berririgintzarekin
apurtu egingo dutena.

Bilbon, Aresti Kuntearen enparantzan, "Banco de Bilbao"-k axolagarrizko pintorea zen Julian de Tellaetxe-ri, erakusketa bat antolatu dio omenaldi gisara. Zio horretaz argitaratu zuten liburuxka berehala ere agortu da, pintoreak zuen interesgarritasuna erakutsiz.

JULIAN DE TELLAETXEREN ERAKUSKETA- OMENALDIAZ



1. ESTATU ESPAINOLEAN PINTURAREN BERRITZAILEA

Julian de Tellaetxe pintatzaile axolagarria beran zela erakusteko eta bere buruak zuen garrantziaz konturaerazteko, gerla aurreko pinturan murgildu behar dugu, denboratan batzera jo eginez.

Espainia osoan egiten zen pintura, guztiz atzerakoa eta akademikoa zen. Arteta, Regoyos, Etxebarria, Iturrino eta Tellaetxe berri buruz hitzegitarakoan beharrezkoa da gogoratu duguna esatea. Europan zueden pinturaren haize berriak dakikegunez, Frantziatik zetozkigun, 1830.ean jaiotako Pissarro impresionista zaharrena eta Monet-en ospetsu izanen zen "Impression soleil naissant" luadroarengatik hain zuzen. Braque, "kubista" bera, hiru urtez geroago jaioko zen. Ezaguna zaigu bestalde, inpresionistek pinturari eta kultura osoari eman zioten buladak bizia eta, haize berria horien eraginpean gaur egun 1980.ean, gerrate zibil arteko urte haietan pintoreak "inpresionismoz eta Faubismoz" baliaturik, bentura estetiko berrietan zehar abiatuko zirela pentsa dezakegu. Baina Estatuan lehendabiziko berrietak pintore euskaldun eskuetatik datozkigu, beste Espainiako alderdietan zueden pintore aurreratzailerak ahanzi gabe: Baruete, Riancho, Nonell, Sorrolla, Valle, Aglade eta, oren gainean, Solana.

Pintore hauek aparte, pintura ofizialak antzineko atzerakeriekin jarraitzen zuten. Eredua, hortxe dugu, zeren 1934.ean Le Bengo domina "Figuras y leyendas deritzan luadroari eman baitzioten. Mundu ofiziala beste bidetatik abiatzen bazen ere, lehen aipatu artelariak ete beste batzu, Zubiaurre eta alaiak esaterako, aldaketa aurreratzaileraren barnean ari ziren.

2. TELLAEUXE GIZONA

Bergaran dugu jaioa 1884an baina berehala joan zen Bizkaialdera, Lekeitiora. Bertan, itsasoko xarmak hatzematen du eta Eduard Chicharoren eskolan abiatu baino lehen marinela egiten da. Ordudanik aurrera, guztioiek izanen ziren bere grina sakonenak: pintura eta itsasoa. 1920an, Parisera doakigu eta hango hainbat akademitan bere kasketa piktorikoak osatzen ahaleginduta zuten.

Pinturagintza eta itsasoko bideak gero eta hobeto ezagutuko zuen beraz. 1911.ean jaioan, "Asociación de artistas vascos"-en fundatzaile gisa agertzen zaigu eta bi urte beranduxeago, hogeita bederatzita urte zue-rik, Parisen zabaltzen du bere lehen erakusketa.

Urte hauetan zehar benturazalea da eta hainbat benturazale ezagutzen du. Horretarako bat Joseph Conrad, zeinen laguna handia bihurtzen da eta anitz itsas bidaia egiten dute elkar. Bidaietan, Lekeitio herri aurreratzalea du bizilekua. 1919ko erakuske-



Tellaetxe beraz, pintura akademikoa eta ofizialarik urrutiratu zen pintatzailea dugu. Paris-en igarotako urteetan, bizirik zegoen "post-impresionismoz" bihurtu zuen bere begirada eta pinturara berri horien lorpenak onartuz, ekintza pertsonal batetara eramane zuen bere artea.



tan Bilbon kuadro batzu aurkezten ditu: "El tuerto de Lekeitio", "Un hombre de mar", "El viejo patrón" eta "Pescador Lekeitiano". Erakusketa dela eta, pintore lagunek "Sociedad Bilbaina"-n omendu zuten gure pintorea. Artelari ospetsua da jadanik. Eragina lortu du pintore askoren baitan.

Hemendik aurrera hainbat erakusketa egin zuen European zehar; Bruselas, Estokolmo, Parisen. Baina gure gizon hau ez da bakarrik artelaria, arte kritikalaria ere bai da. La "Noche" egunkarian bere idazlanak agertzen ditu, pintura aurreratzaileraren defendatzailea izanki.

3.- TELLAETXE-ren PINTAERA. GIZONA ETA ITSASOA

Tellaetxe beraz, pintura akademikoa eta ofizialatik urrutiratu zen pintatzailea dugu. Paris-en igarotako urteetan, bizirik zegoen "post-impresionismo" bihurtu zuen bere begirada eta pintura berri horien lorpenak onartuz, ekintza pertsonal batetara era-

man zuen bere artea. Impresionismoaren sukarrak igaro eta gero, ingurune oso beroa sortu zen Parisen, non garai horretako hainbat pintore eragipena jasan baitzuen gure Tellaetxeak haien obrak ikustn zituela eta susma dezakegunez Gauguin eta Van Gog-en urratsei jarraitu zizkioela plan estetikoan zein teknika mailan hain zuzen, pin-

ahal. Tellaetxe-k, itsasoaren irudi hori gizonaren bidez dakarkigu edo eta gizonak egindako itsasorako motiboen bidez: Bala handitsu, itsazuntzi zuriak. Koadroetan agertzen zaizkigun margoak era argiak mugatuak ditugu ere. Bere paletak ez du ezagutzen dozena erdi margo baino gehiago.

Itsasgizonak dira, Lekeitioko jendeak, gazte eta zahar, itsasotik itzuliak, baina begiradetan uhinen eta itsasoko handitasuna dute gorderik, itsasora itzultzearen beharrezkotasuna isladatzen dutelarik.

tura oso pertsonal batetara iritsi baino lehen.

"Amatasun" batzu ezik bere baitan topatzen dugun gai bakarra itsasoa dugu. Itsaso-gaiak bere obra ornitzen du alde guztietatik.

Tellaetxe bera, itsasoko gizona ere, itsasoaren errepresentapena ematen digu. Bere ustez, itsasoa berriduritzea ezin da zeren, itsasoa, eguzkia bezala, ezin kopiatu

Gorri apal pare bat, urdin, arrea, zuri eta okrea erabili zituen gehienetan. Bere ederlanak bixitasuna dute zeren ehunaren ordez, kartoia baitu oinarri.

Kartoiaren erabilketa horrek badu helburua: margo mateak lortzea, materia opako batek konposatzen baititu koadroak; eta kartoiak, pinturaren olioak xurgatzen ditu. Teknika horrekin, azalak, esmalte baten antza du sarritan — belautzi koadroetan batez ere. — Esmaltearen kalitate hori lortzeko, marroia eta arrea jartzen du oinarri; eta zuritara abiaerazten duenean margoa distiratsu eta bolumen antzerakoia bilakatzen da.


Tellaetxe maisu bat zen pintzela erabiltzean. Sarritan, lau pintzeladekin betetzen du ehuna edo kartoia, amaitugabetzat margozkia utziz. Baina horrela eginez, koadroak indar espresibo guziak lortzen ditu.

Acebal Idigoras-ek idatzi zuen bezala: zuen jatorrizko jitea, arre margoaren erabilketa zen, beste arren ondoan armonia finak eta ozenak konposatzen baitzituen.

Tellaetxek, koadroari ahalmena eta bortxia emateko, ez zuen margorik erabiltzen. Kontrasteak egiten eta oposizioak lortzen, Iturrinok egiten zuen bezala, lau tonu antzerako erabilirik eta fintasunaz jokaturik hainbat nabardura arin ezartzen zituen azalaren gainean, non aurretik marrazki landu batek pausoak ematen baitzizkion. Neurri handirik ere ez zuen maiz erabiltzen eta bere garaian zegoen oiturari jarraikirik ehun edo kartoi tikiak gurago zituen.

Arrantzaleen erretratoak ere oso bizikiak dira, buruak baino agerazten ez baitzituen. Itsauntziak, txalupak eta belak hor doan ezarrita, zuri, arre, eta noiz behin okrearen baten bidez eguzkiaren sunstizea ematen digu, buru indartsu baten begirada hatxematen dugun bitartean. Begirada lasaia, arraintzalea, arraun bat lepoan daramala, itsasuntzien beharrezko gehigaria iruditzen zaigu. Itsasgizonak dira, Lekeitioko jendeak, gazte eta zahar, itsasotik itzuliak, baina begiradetan uhinen eta itsasoko handitasuna dute gorderik, itsasora itzultzearen beharrezkotasuna isladatzen dutelarik.

Beste obra horiek, "Amatasunak" deitu ditugunak, arrantzaleen emazteak eta amaak dira, haur tikiak baitituzte beso artean itsasoaren aurrean. Bazu oso antzerakoak dira beraien artean, xehatasun batzu bakarrik aldatuz. Koadro horietan pertsonaiak, auzo pegi bakorik agertzen zaizkigu, begi gabekoak. Begi horietan itsasoko argiak ez dira dirdiratzten betirako. Ez dira ere erretratoak, gizabakartzat moldatu dituen giza formak besterik ez dira.





Belauntzi eta amatasun obrak aparte, Tellaetxe-k, paisai batzu ere utzi zizkigun. Pintzelada laburrak erabili zituen, oso nabaratuak, hondoko margoen gainean, geldigabeke ekintza jardunik. Beste batzuetan, zirkuluak marrazten ditu zeruan edo belen gainean, hodeiak bailira, edo beletan, haizea marrazkilari bihurturik balego.

Tellaetxe-k, ekintza freskoari, espontaneoari ederretsi zion, marrazki landu baten gainean. Beste obra batzutan eta erretratuak egiterakoan, pasta sobera erabili zuen, zati gardenen alboan, oinarria zen ehuna edo kartoiak estali gabe. Freskotasunaren bila zebilkigun beti, bizirik balego koadroa uzten, antza estetikoak emanez.

Teknika mailan eta estetika mailan oso pintore obradun eta garrantzitsua dugula Tellaetxe esan beharra dugu. Bere kartoiak eta ehunen gainean, isladatu zuen itsasoranganako zuen sentipena. Maitatu zuen bizitza pintatu egin zuen. Aipatu dugun erakusketa hori labur xamarra dela iruditu zaigu, hala ere, Tellaetxe izan zen gizona eta pintorea gogora dakarkigu.

J. Sendagorta

BANCO DE BILBAO

nire soldatak
lan egiten du.

Bitartean ni atsedenean.



Orain hileroko soldatetik abantail haundiagoak lortu ahal dituzu.

Bakar bakarrik zera adierazi behar diguzu, alegia, hemendik aurrera zure lantsaria BILBO BANKUko kontu ireki edo Aurrezki libreta baten bidez eskuratu nahi duzula.

Honela, zure soldata egunero lanean arituko da interesak ekoiztuz eta arrisku guztietatik babesturik.

Zure diruaren administrazioa emanez gero, lantsaria BILBO BANKUaren bidez eskuratu, beste

abantail garrantzitsu batzu eskainiko dizkizu.

Adibidez: Zuk zeuk inprima ahal dituzu bileteak, eskudirurik erabiltzeko beharrianik gabe. Bestalde zure egokierara luzatu ahal dituzu zure erosketen ordainketak, Kreditu Txartela erabiliz. Eta dirua behar baldin baduzu nahiz gaez nahiz egunez, 24 Ordu Bankuek estualdietatik aterako zaituzte.

Zatoz guregana eta mintzatuko gara. Bost minututan lortu ahal dituzu abantail haundiagoak zure soldatetik.

Eskura **BB** delakotik zure soldata

BANCO DE BILBAO

KRISI EKONOMIKOA ETA TRILATERALA

Komisio Trilateralaren esanguraren funtsa bere osotasunean ikustera heldu ahal izateko, azken urteotako garapen politiko-ekonomikoa begiratu beharko dugu lehenik. Gerra - ondoko garapen ekonomikoa eta egungo ekonomi krisiak, kapital handiak dituen helburuak erakutsiko dizkigute.

Krisia, azken urteetan gure errealitate politiko, ekonomiko eta soziala inguratzen duen

hitz ezaguna da. Baina, zilegi al da krisi kontzeptua teoriko kapitalistek eta zenbait sasi-marxistek mugaturiko marko estruktural hestuan erabiltzea?. Asko dira hortaz aipatu diren teoria eta hipotasiak. Egutero ikusten dugu nola, krisia, gutxiengo dominantzailearen botere politikoa langile klasearen lepotik heda erazteko ahaleginetan erabiltzen den. Krisi ekonomikoa horrela, joera inperialistak sendotzen ditu, indar-erlazioa kapital transnazionalaren aldera makurtuz.

Krisi ekonomikoari buruz hitz egin zaigunean, beti planteiatu zaigu funtsezko fetxa bezala 1973. urtea, petroleoaren gorakada-ekin batuz. Ez dago ezer hau besteko manipulatu eta faltsurik. Fetxa hori garrantzitsua da oraingo krisi prozesuan, jakina, baina ez beraren sorrerako une kronologiko bezala, ez eta krisiaren grabetasun-kota gorenko fetxa bezala baizik eta, aitzitik, kapital handiaren bozeramaileek krisia zuzenki aurpegiaratu eta ekintza horretatik sendotuz irtetzea erraztuko dizkien politika markatzearen fetxa bezala. Erabakiriko ekintza zuzen hori, gizarteko maila eta egitura guztietan zehar praktikatua izango da, gizarteko estamentu kapitalista guztiak bere

barnean hartuz. 1973.urteaz geroztik, eta kapitalak eragin duen krisiarekiko oposizio-politikaren ondorioz, bi aurpegi prozesua ikus daiteke. Alde batetik, kapital handiaren berregituratzea nabaria da, komisio Trilateral delako bloke transnazionala eratu


Krisi ekonomikoari buruz hitz egin zaigunean, beti planteiatu zaigu funtsezko fetxa bezala 1973. urtea, petroleoaren gorakada-ekin batuz.

delarik.; Bestalde, eta langileen bizitza-kondizioen beherapen nabariarekin batera, Europa eta Hegoameriketan batez ere, ezker klasikoaren ahultze izugarria gertatu da. Azken honen ondorio zuzen gisa, ezkerreko zenbait sektoreren eta gizarteko talderik marginatuaren erradikalizazioa gertatzen da, "ezker berria" edo "langile mugimendu berria" dei dezakegun zerbait sortuz.

Gehiago zehaztuz, gizarte kapitalistaren krisia eta, batez ere, kapitalaren krisia, 60. urte-hamarkadan gorpuzten da, gizarte mailan efektu grabeak sortzen dituelarik eta ezarritako ordena arriskuan ipiniz. Bestalde, langile mugimenduaren erradikalizazioak, argitara ateratzen ditu, XX. mendeko bigarren partearen prozesu historikoaren errealitate eta modu berean kapitalismoaren egungo fasean, krisi ekonomikoa azaltzearen ezinbestekotasuna adierazten digu. Azken krisi ekonomikoa, aldi berean paraoren hedatze izugarria eta inflazio-tasaren gorakada bateratzean, orain arte ezezagunak ziren karak azaltzen dituzte. 60. urte-hamarkada horretan eta batez ere azken urteotan, munduko puntu askotan, egiazki

iraultzaileak ziren egoerak agertu dira, eta zenbait puntu isolatutan, egoera preiraultzaileak. Azken hauek, Estatu bakoitzaren zerbitzutan zeuden ente erreprentiboak gogorki erreprimitu zituzten. Europa baketsu-zahar eta kapitalistan ere, klase burrukeria

garapenean jauzi historikoak ziruditenak bizi ahal izan genituen; Ondo baino hobeto, preiraultzaile bezala edo eta gutxienez estatu kapitalistaren egitura berriaren desagerpenerako burrukan dezentziaz bezala kataloga zitezkeen. Maiatz frantsesa, ondoko ezkerren alboratzeaz; maseko mobilizazio zabalaren lorpenerako giro politiko-sozial egokiaren sorreran burutu zela Italiako udazken beroa; Ekialdeko burroketiek eragin nahi zuten indarrezko integrazioaren aurkako txekoslovakiar eta poloniarren burruka gogorra; Euskadi, Breitaina, bezalako zenbait nazio oprimituren burruka nazionalen birjaiotzea,...; Guzti hauek, partzialki bederen nazioarteko kapital handiak kontseilaturiko oligarkia estatuen eskuetatik zeuden estatu kapitalisten opresioaren aurka, proletargoak eta beste sektore zapalduen europarrek eginiko burruka karakterizatuak duten fazetak dira. Beste kontinente batzuetan ere, ondoko giza-askapen mugimenduak aipa ditzakegu: txinatar iraultza kulturala, miloika gazakiren bizieran eraman zuten aldaketarekin; Zabalki txaloturiko hegoameriketako gerrila konstantea, zeinek iparramerikarren interesek inposaturiko gogor-



ak urteetan kolokan eduki bait ditu; kuta- iraultza, ugarteetatik yankien botere imperialista jaurtitzeko eta giza-eskubideen inpernerako boluntarismo eta eginahalen bide argia; Viet-Nameko gerra luze eta odoltsua, zeinetan Vietkong-ek, indarren gerra-potentzialaren desberdintasunak handiak izanik ere, bihotzak bereganatzen eta imperialismo iparrameriketarra bere luteretatik botatzen jakin baitzuen; txiletar batzuen herritarrean gorputzu zen bide iraultzaile baketsuaren esperientzia berria, zeinetatik mundu guztiko indar herritarrek lekua ugari atera baitituzte; eta horrela kapital handiarekiko beste oposizio-burruka ugari. Giza hauek, kapitalismoaren diru sendoa, hau da, dolarraren, krisiarekin batera, sistema imperialistaren iraupena arriskuan jartzen duten mailetaraino bultzatu dute

Errazki egiazta daitekeenez, Europa kapitalistaren eta inperialismoaren egoera, desolatu agertzen zen kapitalaren begietara. Egoera ugari, mendebaldeko politika berpentsatzera eramaten zuen botere kapitalista. Egoerak, politika estatal indibidualen birmoldatzea eskatzen zuen, horrela domeinu eta kontrole politiko, ekonomiko eta sozialezko politika global baten lorpenera heldu ahal izateko. Sistema kapitalistaren bafneko indar-erlazioak, kapital handiak eta, batez ere iparramerikar kapital mendebaldeko gizartearen domeinuan zuen hegonia kolokan ipintzen zuen.

Beraz, krisiaren benetako funtsa ezagutzeak ezinbesteko garrantzia dauka inperialismoaren mugimenduei erantzun egokia ematen posibleztatzeko. Krisi baten esan-

harko du, oinarri eta ideologia desberdinen gainean eraikiri berri bat ikusi ahal izateko. Irteera erreformistak bilatzen duen gauza bakarra, erregimenaren funtsa gordeko duen erreforma txiki batzuren lorpenera da. Aldaketa batzu egin, dena berdin segi dadin.

Hirurogeietan, gerra-osteko bizitza-moldea eta produkzioa, etapako funtzioaren-modeloaren azken mugara heltzen dira, ekonomiaren eta bizitza-mailaren hezkuntza bizkoreta limite gabekoaz karakterizatu nahi bait zen. Gerra osteko gizarte-modeloa jarraiezina bihurtzen da. Gerra amaitsu eta berehala, ez bakarrik europarren, baizik eta baita nazioarteko kapitalaren eta, partikulazki, iparramerikarren helburua ere, suntsituriko Europaren bererrakitzea zen; Jadanik 60. urteetan, langabezia eta inflazio-maila garai eta iraunkorrak azaltzerakoan, helburua, inplikaturiko estatu bakoitzaren ekonomiaren defentsa indibidualista izatera iragango zen. Aurreko urteetako hazkuntza ekonomikoa, geldiezineko atzerapen bihurtzen da. Proletargoak bi hamarkaden buruan loturiko garapena, bat batean, krisi ekonomikoak eta gobernu kapitalista desberdinen politikak geldierazirik aurkitzen da. Baina, zilegi al zaigu krisi hauek garapen kapitalistaren krisi bezala definitzea? Ez. Askoz ere zuzenago litzateke, "muga gabeko garakeriaren ideologia"-ren krisia dela esatea.

Baina, zilegi al zaigu krisi hauek garapen kapitalistaren krisi bezala definitzea? Ez. Askoz ere zuzenago litzateke, "muga gabeko garakeriaren ideologia"-ren krisia dela esatea.

gogorki, irauteko, bere ekintzat munduan efektiboki koordinatzeko beharrera garrantzirik. Hainbestearainokoak ziren herriaren burrukak sortzen ari ziren desorekak, zuzen sistema kapitalistaren mundu-mailako birmoldatzea beharrezko egiten zela. Birmoldatze berri hori, kapitalak, krisiaren irteera bezala planteiatzen du eta eraren bidez hori errazteko, krisia, aurreko hamarkadetakoa oinarritasunaren amaiera bezala planteiatzen du.

gura ulertu gabe ezin dezakegu iraultza hitz egin, transformazio historikoen prozesuetan bi kontzeptu hauek era askaezinean loturik agertzen baitira. Edozein krisik bere irteera eskatzen du eta honek, kontrajarririko bi bideetarik bat har ditzake: Erreformista ala iraultzailea. Krisia, gizartearen egitura- zuten maila guztietan agertzen bada, irteerak, iraultzailea izatekotan, jakina, egitura berrien transformazioa eragin beharko du. Lehengo gobernamendua deuseztu be-

DOLÇA VILLALONGA

Emakumea da, horixe baietz,
hala sentitu eta bizi baitu.
Libertaria, inongo ideia
zehatzi ez lotua, baina,
emakumea denez, baztertua.
Gainerakoak bezala.

Bere arloan, teatroan,
eskenatokian, emakumearen
irudia berreskuratu nahi du.
Ama baino, puta baino, arrari
gozoa eman nahi dion neska
lirain eta lerdena baino,
zerbait gehiago dela
emakumea saiatzen da
erakusten.

Garai batetan ikuskari (1)
feminista aurrera eramatea
planteiatu ez bazuen ere, bere
jatorriak kabaretetako
emakume objektuaren mito
merke eta merkaturatua
salatzera bultzatu zuen.



Ni ez naiz Vedettea. Ez dut pentsatzen.

EGITEN DUDANAREKIN GOZATZEN DUT

Dolça Villalonga, pertsona ttikia da. Eskenatokian horrela hartzen du bere burua. Ite beltzaran eta argitsu, kuskulikin (2), ezpain koloretsu eta nabari. Dazkan begiek bere baitako antisia adierazten dute kanpora. Barneko antziak ezaguerara eta ikasteko gogoetare bultzatzen du bere sentimentua. Bere sentimentua teatro biziaren kreatzelanari lotzen zaio.

Bere ekitaldietan zehar, daukan asmoa ikusteraz ditzakegu: Bere ikuskari publikoak parte hartu behar du, egunoroko gogaitasuna baztertuz. Baina berarekin solasean, hobe ikus dezakegu bere asmoa zein den.

A.- Zer eta nola zara?

D.V.- Egiten duenarekin gozaten duen emakumea naiz. Egin nahi dudana egiten dut.

A.- Nola hasi zinen ikuskari moeta hauetan?

D.V.- Orain urte bere t'ardi hasi nintzaion ni honi. Garai batetan hiru ginen. Hirurok kafe-teatrentzako ikuskari bat prestatzen genuen. Orduan konturatu

ginen. Kabareta sekulako ikuskari matxista zen. Ez ginen ados (3) gainera, kabaretetan erabiltzen ziren teknikekin. Ingurugiro horretan zerbait ezberdin egiten saiatu ginen. Emakumea atsegingaitzat hartuko ez litzatekeen zerbaitetaz, emakumearen funtzioak desmitifikatuko litzatekeen ikuskariak. Geuk gure aldetik, ez genuen sekula santan ikuskari feministaren batez pentsatu baina gure lehengo ekitaldia poliziak debekatu zuen Bartzelonan. Geroztik hona, entrepresariak hasi ziren esaten hau guztiau ikuskari feminista zela eta ez zutela interesik beraz.

Musikariak utzi beharrean egon nintzen orduan. Nire kontura hasi nintzen.

A.- Vedettea zarela topatzen duzu?

D.V.- Ez naiz vedettea. Ez dut pentsatzen. Batzutan "escalga-braguettes" edo "calienta poyas" naizela iruditzen zaio hainbati baina ez naiz halakorik. Horrekin ez dut ukatu nahi naitekeenik edo behar bada egin nezakeenik. Ditiak erakusten ditut baina eradoskitzeko (4) da. Diti eman behar baitiot haur bati nire ekitaldi batetan. Hori erotikoa daiteke. Diti ematen honek egiazko ikuspegi afektibo eta erotikoa dauzka beraz eta train matxistatza har lezakeenak ez du nire ikuspundurik ulertzen.

A.- Iskanbilarik eduki al duzu zure ekitaldietan? Jendaldetik ez duzu arruntekeriarik hartu?

D.V.- Bai. La Sal-en Bartzelonan. Neska-mutil bat ikusten ari zen eta mutilaren berehalako erreakzio bortitzarengatik iskanbila atera zen jendartearen.

INTUIZIO ETA SENTIPENAREN MUNDUA ASKOZ GARATUAGO DAGO EMAKUMEAREN BAITAN

A.- Nola dakusazu teatroa eta bereziki emakumearen funtzioa hor barne?

D.V.- Teatroak bizipena eduki behar du. Bizitu behar dugu teatroa, ukitzen gaituen zerbait izan behar du.

Nire ekitaldietan emakumearengandik abiatzen naiz. Literatur teatroan emakumeak amaren ala putaren funtzioa erabili du. Ez da sekula pertsona izan. Ez du bere pertsonaltasuna aintzineratu. Bere baitako bultzadari kasu egin

behar dio emakumeak. Intuizio eta sentipenaren mundua askoz garatuago dago emakume baitan. Ez dugu nahi horregatik gizonarekiko ezberdintasunik, jostorratza eta ditarearen (5) ordeztu bere agresibitatezko tresnak autatzea suposatzen badu.

A.- Gai honetaz bederen, zer eritzi diozu —gay— mogimendu edo kanpoko zenbait jenderi, ar klasikoaren itxurak hartzen ez dituzten guzi horiei, "lumak" botatzen dituztenei bereziki? Ez al duzu uste arraren agresibitatezko irudia baztertzeko saioa denik?

D.V.- Horri erantzutea zailegia dela uste dut. Lehendabiziz, ez zait gustatzen emetasunari egiten dioten hurbilketa horri. Kasuak banan banan ikusi beharko genituzke baina jeneralean ez nago konforme hori guztiorrekin.

A.- Katalandar talde edo aktoreekiko harremanik eduki al duzu? Els Joglars-ekin beharbada?

D.V.- Hiru urtetan Albert Boadella nire maisu izan da. Gizona miresten dut, nahi duena baitaki, nahi duena egiten baitu, nahiz eta egitearrean gartzelan sartzen badute.



Askoz gehiago probokatzea nahi nuke, ea erreakzionatzen duten behin betiko.

A.- Autodidakta ikusten al duzu zure burua?

D.V.- Bizitzaren autodidakta naiz. Eguneroko jendearen baitatik ikasten dut. Nire ekitaldiak hitzetik hortzera, (6) inolako prestaketarik gabe egitea gustatuko litzaidake. Dena horrela beharko litzateke. Eguneroko zerbait diferente egiten dut, garrantzi handia ematen baitiot inprobisapenari.

Jendeak eragin handia du nire ekitaldietan. Hala esaten diet... "Teatro berri ikusi nahi baduzue, lehenengoz, zuek ezberdin izan behar duzue. Zuen begiak ezberdinak izan behar dira, orain daukazuenok ez dute balio horretarako". Eta berehala hasten naiz streep-teaserekin, emakumearen eragin klasikoari berrit egiten diodalarik. Geroxeago zera gehitzen diet: Alde guztietatik emakumea naukazue. "Emakume bat naiz, dakusazuen bezala" (Hitz hauek euskaraz esan zizkigun).

A.- Zure ekitaldietan jendea probokatzen duzu bizteko. Zure teatroari buruzko ikuspegiaren ere sartu behar al da?

D.V.- Askoz gehiago probokatzea nahi nuke, ea erreakzionatzen duten behin betiko. "Que ya está bien con la televisión!!" ... Gehitu nahi nuke zera: Hemengo jendea nire gustokoa da. Ez du gogorik eta asmorik galdu. Ez nintzen sekula egonda Euskal Herrian baina inpresio ona eramango dut.

Dolçak duen katalandar doinuak garbi erakusten digu nongoa den. Anpurdetako, Gironan kokatzen den bost mila bizilagun duen herrirka batetakoa. Eta guri zera aitortzen digu: Gaztelan hitzegiteko duen zaila. Gero, bere ekitaldia ikustera doazenei barkatzekoak eskatzen dizkie... "No sabeis el esfuerzo que me cuesta" dio. Guk, horri guztiorri, ongi ulertzen diogu. Tamalez, Euskadin gaztelan egiteak ez dio hainbat jenderi zailtasun handirik ekartzen.

- 1) Spectacle, espectáculo
- 2) Rizo, boucle, cheveux frisés
- 3) Konforme, batera
- 4) Ditiatik edan
- 5) Dedal, dé à coudre
- 6) Hitez-hitz: «De la palabra al diente». Du mot aux dents: prestaketarik gabe: inprobisapena.

DOLÇA VILLALONGA

JOAN BOBO

Ezagunak al dituzue María Teresa Leonen ipuinak? Hona hemen denontzat gozagarri beraren ipuinetatik euskeratu dudak bat.

Entzun. Eh! Etor hona, Joantxo! Ez egin ihes nigandik, errekadu bat ekartzan dizut. Zure amak dio askari bat egin behar duela eta etxeratzerakoan zerbait eraman diezaiozula. Ulertzen didazu?

Nik herri osoak askal dezan eramango dut.

Ez, gizona: uste dut ez dela herri osorako, heldu diren lagun batzuentzat baizik.

Herri osorako dakidala nik askaria eramaten errepikatzen dizut.

Eta Joanez makila bat oratu zuen, idirik handienaren burua jo zuen, eta ordudanik, Joan Bobo deitu beharrean, Joan Bobo handi deitu zioten.

Amak esan zion hurrengo egunean:

Hartu larruak, Joantxo, eta zoaz hiriburura saltzera. Baina, kontuz!: ez egin lo zidorrean, ez mespretxatu eskutara zaizuna.

Ongi dago, ama.

Eta joan egin zen bidetik aurrera egun eguzkitsu bero-bero batez. Hain bero handia egiten zuela, loak hartu zuen. Eta zidorrean lo egin behar ez zuela oroiturik, basoan barna sartu zen, soro batzuren artean eta azokara zeraman zezenlarrua bere gainean hedatu zuen. Begiak itxi zituen bezain fite, bele beltz bat heldu zen eta larru guztia mokokatu zuen. Zulotxoetatik argia ikustean, Joantxo asomatu zen zer gertatzen zen ikusteko eta hanka batetik oratu zion beleari.

Hiltzeko tenorean zegoela, bere amak eskutara etorritakoa ez mespretxatzeko esan ziola gogoratu zuen, eta honela, gorrinin kolorezko kordoi batez lotu ondoren, poltsikoan sartu zuen.

Honelatan, belearrekin liskar egiten eta goraki mintzatzen, etxe batetara iritsi zen.

Norekin mintzatzen zara adiskide hori?

Neure lagunarekin.

Eta non daramazu?

Poltsiko batetan sartuta.

Eta zergatik agiraka egiten diozu?

Idi bat jan didalako, sabai bat mokokatu, izarrak ikusterazi.

Zu zara gezurtia!

Zer apostatzen duzue zazpi hogereko emanek gero larru hau zuena dela?

Hori egina dago: hain zuzen ere ez du gehiagorik balio. Bidezko prezioan erosiko genuke, guztiz mokokatua dago eta.

Ba hemen duzue nire laguna, zeinek mokokatu baitzidan nire sabaia lo egiten nuen, idia haginkatu zidan eta, porakilo handia!, izarrak ikusterazi zizkidan irekituz zihon zulotxoetatik. Emazkidazue zazpi hogereko eta jakin ezazue Joan Bobo naizena.

Zazpi hogereko eman zizkioten eta berak ber bidetik jarraitu zuen bere belearrekin. Iluntzean, Tristearen benta ikusi zuten landan nabarmentzen, eta emakume bat irten zitzaizen errezibitzera.

Jatekorik?

Birentzat.

Zure laguna atzeraturik al dator?

Ez, hemen dago.

Adbertitzen dizut ez dela inor zure aurretik heldu eta, beraz, etxeon bakarrik gaude neu, ostalaritsa, eta Tristea, nire senarra, behean, sotoan, ozipinak puntuan dauden probatzen ari dena.

Laguna iritsi da, eta hemen dago-esan zuen beleareratz eta mahai-gainean ipiniz.

Ostalaritsak afaia prestatzen zuen bitartean, Joan Bobok bost hogereko ipini zituen ate nagusian, bi eskaileraren hasieran

eta beste bi mailarte altuan. Emakume ardoaren bila beheratu zenean, esan zion bere senarrari:

Han goian gizon bat dago, bele batekin: jadanik platera ipini diot. Nik ez dakit zein izan daitekeen lagun horrekin joatearen misterioa.

Ostalariek bere ozipinak utzi zituen eta berarekin igon zen.

Zer, ez didazue janaria ipiniko ala?

Zure lagunaren zain gaude.

Esana dut hauxe dela nire laguna.

Zein ofizio dauka animaliak?

Igarle. Igarlea da.

Nola?

I-gar-le-a. Zuritu nahi al zara? Ea, Labazomorro, Labazomorrotxo, mintxo, Joantxok agintzen dizu etal Zer dago ostatuko atean?

Bere belarria hurbildu zuen belearen mokora.

Zer diozu? Hiru hogereko?... Ate nagusian, ezkerretarantz pitxin pat alboratuak hiru hogereko daudela dio.

Ostalariek korrika egin zuten eta elkar bueltatza, egiatzatzeko. Hantxe zeuden hiru hogereko.

Ai, adiskide, sal eizaguzu bele hori!

Ez; ez eta munduko ongi guztiaren truke ere.

Eta hori beti gertatzen da ala kasu bakoitzean?

Ez; beti gertatzen da. Hara, Labazomorro, Labazomorrotxo! Non daude gainerak? txanponak?

Eta belear:

Guo!

Eskaileran bi hogereko daudela dio.

Eta ostalariek bi hogerekoak aurkitu zituzten.

Al, adiskide, zein zoriotsu zaren altxor
korrekin! Nahi al zenuke nirekin geratu,
zartana? Esneapurak emango dizkizut.

Ez, andrea; ezin diezazuket utz gosez hil
entsatzten baduzu. Beleak euri-ura edaten
du bakarrik eta jan, katu-begiak, baina za-
kadaka.

Saliezaguzu, adiskide, katu-begiak
eman beharko badizkiogu ere, ezen
bestek jango baitute haragia eta erbi-
ria iritziko diote.

Hiru mila pezeta ematen ditugu haren
erako.

Joan Bobok jaten jarraitu zuen, kasurik
egin gabe. Ondoren belearen burua ukitu
zuen.

Zur, zer dio? -itaundu zuten ostalariek
ezinegonez.

-Mailartean beste hogierleko bi daudela.
Baina zer da hau? Etxea zilarrez beterik
daukazue eta jakin barik!

Saliezaguzu animalia. Bost mila pe-
zeta ematen ditugu.

Marra; hain tematiak zaretenez gero, har-
regaztia eta tratatu arreta handiz, mekani-
ka balitz bezala, ezen deskonposa baitai-
zate.

Zoaz lasai, katu-begiak jango baititu
nire magalean lo egingo.

Agur, eta luzerako izan.

Bere bost mila pezetak zapi batetan ongi
garderik zeuzkala, Joan Bobo etxeratu egin
zuen.

Bere amak atea zabaldu zion.

Zer dakarzu, Joan Bobo gaixoa?

Exarion. Aizu, sakrsitaua, jo kanpai guz-
tiak.

Kanpaiak dangakadaka hasi ziren. Jendea
gudu zen. Zer gertatzen da? Zer gertatzen
da? Eta Joan Bobok zabaldu zuen bere
amaren amantala eta ipini zituen beraren
gurean bost mila pezetak, oihukatuz:

Prezio honetan pagatzen dira hirian
larru ongi zurratuak!

Orduan hauzoak ikuiluetara joan ziren, eta
kilada hortik, makilada hemendik, herri-
ko abere guztiakin bukatu zuten.

Denak irten ziren hirirantz larruak saltzera.

Baina itzuli zirenean, apurtu izan zituzten

zolak konpontzeko doi-doi zuten. Joantxo
Bobok galde egiten zien lastategi baten
teilatutik:

**Zenbatetan pagatzen dira hirian idila-
rruak?**

Oraintxe ikusiko duzu zeurean, tirak egin-
go ditugulako berarekin zakiltxoak saldu
ahal izateko.

Eta jadanik igoten hasten zirelarik, amak
oihukatu zien.

ut ezazue, boboa da eta!

Baina hauzoek ez zioten kasurik egin eta
su eman zioten lastategiari. Joan Bobok
jauzi egin zuen teilatutik, suil bat hartu
zuen eta harrietatik korritzen herrestan ze-
raman bitartean, oihukatzen zuen:

Sua itzaliko dut! Sua itzaliko dut!

Joan Bobo! Joan Bobo! Joan Bobo!

Baina berak zioen:

Oraintxe ikusiko duzue! Oraintxe ikusiko
duzue!

Lastategia itzali zenean, zaku batetan bil-
du zituen errautsak.

Nora zoaz, Joantxo?

Errautsa hirira saltzera.

Hirira heldu eta gero bitxi batzu erosi
zituen bisutegi batetan eta zakun sartu zi-
tuen.

Gizon batek galdetu zion:

**Zer egiten duzu, adiskide, zaku hori
horrenbeste zaintzen?**

-Baliozko bitxiak daramatzat, errautsen
artean, honda ez zakizkidaten.

**Hori egia bada, neuk eros diezazkizu-
ket.**

Ez, gauza hauetan aditu den bitxi-saltzaile
bat nire haidura dago eta bost mila pezeta
eman behar dizkit.

Nik ere emango dizkizut.

Zeurea duzu zakua, bada.

Herriratu zen eta berriz ere bere ama eta
hauzoak deitu zituen.

**Hemen duzu, ama, errautsen prezioa-
eta ezarri zizkion amantalean bost mila
pezetak.**

Orduan, hauzo guztiak eman zieten su
beren etxeei ta norberak bi zaku errauts

eraman zituen hirira, gehiagorekin ezin zu-
telako.

**Nork nahi du errautsa? Nork nahi du
errautsa? -aldarrikatzen zuten.**

Zertarako gura behar dugu errautsa, uda-
tea izanik eta egun bakarrik atsoek darabil-
tela suontzia?

Eta jende guztiak egiten zuen irriño sale-
zinenaren saltzaile haiek zirela eta.

Eta zergatik ez duzue airea saltzen?

Hainbeste iraun zuten irriek, non poliziak
parte hartu baitzuen eta emakumeek irain-
du zituzten. Koleratsu, hiriratu ziren, Joan
Bobo hartu zuten eta zaku batetan sartu
zuten hibaira botatzeko. Baina amak bilera
batetara deitu zituen, bota ez zezatela esa-
teko, bere semea tontoa zelako.

Bizkitartean, Joan Bobok oihu egin zuen
utzi izan zen ur-bazterretik:

Ni ez naiz berarekin ezkonduko, ez naiz
berarekin ezkonduko! Aberatsa eta polita
da, baina ez naiz berarekin ezkonduko.
Ezetz eta ezetz.

Ahari batzurekin pasatzen zen artzain ba-
tek entzun zituen ahots hauek.

Eh, zu, zakuan zaudena! Zer dioz!

Ez naizela ezkonduko diot, hibaira bota-
tzen banaute ere.

**Horixe huskeria! Ni sartuko naiz za-
kuan eta neskarerkin ezkondu, dirurik
baldin badu.**

Polita eta aberatsa.

Irten arin, gizona.

Orduan Joan Bobok ongi lotu zuen eta
ahariekin joan zen.

Hauzoak heldu ziren eta kulunkatu zuten
zakua behin... bi aldiz... hiru aldiz.
eta hibaira!

**Oso pozik itzultzen zirela hirira Joan
agertu zen bere ahariak gidatzen.**

Baina, nondik atera duzu artalde hori? Ez
al zaitugu hibaira bota?

- **Jakina baietz!** hibaira beterik dago.

Orduan denek bota zituzten beren buruak
hibaira ahar-bila. Eta Joan Bobok txirrintxo
bat atera zuen eta, itotzen ziren bitartean,
kantatzen hasi zen.

SALTSA BERDEA, GORRIA ETA... ZURIA

¡LA COMEDIA DEL PNV!

1. EL 28 DE FEBRERO, EL **PNV** MANDO PONER LA BANDERA DE ANDALUCIA EN TODOS SUS BATZOKIS.
¿PARA QUE?.
2. EL 12 DE JUNIO EL **PNV** NO ASISTE AL PLENO DEL CONGRESO DE DIPUTADOS PARA LA VOTACION DE LA MODIFICACION DE LA LEY DE REFERENDUMS, PERDIENDOSE POR 1 VOTO Y NO DANDO OPORTUNIDAD AL PUEBLO DE ALMERIA DE REPETIR LA VOTACION EN DICHA PROVINCIA.
¿POR QUE?.
3. EL 1 DE MARZO EL **PNV** DECIA SI A ANDALUCIA, SI A GALICIA, SI A CATALUÑA, SI A EXTREMADURA, SI A CASTILLA..., ETC.
¿DONDE ESTA AQUELLA SOLIDARIDAD?.
4. CON SU TOZUDEZ DE NO ASISTIR AL CONGRESO DE DIPUTADOS, DEMUESTRA EL VOTO DE CONFIANZA PERMANENTE AL GOBIERNO DE **UCD**.
¿QUE ACUERDOS TIENEN LA UCD Y EL PNV QUE EL PUEBLO DESCONOCE?.




PSE-PSOE

QUIEN Y CUANDO SE TRAICIONO A ANDALUCIA

- 1º Cuando se aprobó la ley orgánica de modalidades de referéndum que perjudicaba a ANDALUCIA, GALICIA EUZKADI, etc.
¿Quién votó a favor?
Respuesta: EL PSOE y UCD
¿Quién votó en contra?
Respuesta: PNV - PSA - PC
- 2º Si la modificación se perdió por 1 voto, ¿dónde estaba el SOCIALISTA Tierno GALVAN?
- 3º Si se quería modificar la ley de modalidades de referéndum ¿POR QUE NO SE LLAMO AL PNV para estudiar y fijar las modificaciones?
- 4º ¿POR QUE SE LE LLAMO SOLO para votar algo que SOLO ellos se cocinaron y que SOLO afectaba a ALMERIA, si la ley seguía perjudicando a GALICIA, EUZKADI, etc?
- 5º ¿QUE MANEJOS SE HAN TRAIIDO SIEMPRE LOS CENTRALISTAS DEL PSOE Y de UCD, con sus llamados CONSENSOS?

Siempre daremos apoyo a ANDALUCIA, GALICIA, EXTREMADURA, CASTILLA etc. e igualmente siempre esperaremos el suyo, PERO NUNCA SECUNDAREMOS LOS MANEJOS PARTIDISTAS DE LOS CENTRALISTAS DEL PSOE.

EAJ  PNV



Xabier Lete jaunari:

Zure gütuna hartu bezain laster, **SANTAMANENEO** delako horrekin egon gara, uste izan baitugu, erantzuna emateko egokiena bera dela.

Niri dagokidanez, zeure gutunean nire izena aipatzen baituzu, egia diotsut, ez dudala ongi ulertzen esan nahi didazuna; edo eta bestela esanda, nik neuk hor ulertu uste dudana, ez dudala niri buruz esandakotzat hartzen. Konkretuki, esaldi honetaz ari naiz: "Euskeraren batasuna eta Euskaltzaindiako goraberekin ezer gutxi ikusteko duten arazo batzuk badabilta hor tartean Mitxelenaren prestijioa ankar gora bota nahi izateko; eta hori guzti hori Anaitasunako zenbait ongi daki (jakiteko motibua badu beintzat, ez da horrela, J.R. Etxebarria jaunna?)".

Gauzak garbi. Mitxelenari buruz dudan eritzia alde batera utzita (hori nire eritzia pertsonala baita), argi diot ezen nik ez dudala Mitxelenaren prestijioa hankaz gora bota nahi. Beste gauza bat da, jarrera politiko desberdinak hartzea.

Besterik ez. Har ezazu nire agurrik beroena.

J.R. Etxebarria

NIK EZ DUT ULERTZEN

Ni azken aldiotan mozortua ei nabil, ezen ez baitut ulertzen entzuten-ikusten irakurtzen dudana. Eta hau esatean oraingo honetan ANAITASUNA aldizkariari buruz esaten direnak dauzkat gogoan. 401. alean J.L. Lizundiak "irain, lorrin, ezten eta azkon ugari" bota izan direla Gernikako Estatutua onartu dutenen kontra ANAITASUNAKo orrialdeetatik dio. Eta ANAITASUNA "gheto edo ke inguru" batetan dago, jakina: hortik irten behar du.

402.alean gutun koleratsu bat bidaltzen du Xabier Letek: Gogaiturik dago ANAITASUNA aldizkariarekin. Gogaitua aldizkari sektarista bat delako. Eta ba dirudi ere Enrike Knör-ekin bat da-


torrela; ez dakit lesbiana eta "marika" delakoei buruz esaten duenaz izango den. Nik ba dakit gauza bat baina, ANAITASUNA ez dago ez ein talde politiko-ideologiko ezta finantzieroren pean. ANAITASUNA idazten dutenek egiten dute, eta oso argi dudanez hori edonorentzat egiten du posible ideologia konkretu bat azaltzea; ez dago sektarismorik ez integrismorik. Noski, artikuluburuak, idazten duen gehiengoaren ideologiaren isladapenak izan behar du; eta jokabide horretan nik ez dut sektarismorik ikusten, EGIN, ERE, PUNTO y HORA, MUGA eta abarrez hitz egitean "sektarismo" hitza erabili behar ez den bezala. Bakoitza da nagusia den linea ideologikoaren adierazle. Euskal prentsarekin lengoaia aseptiko bat erabiltzeari ez deritzot bidezkoa: euskal prentsak erdal prentsaren bezain prentsa da.

Gaur egun ere, ezin omen daiteke ezizenik erabil. Hori Mitxelenaren kontra ari baita. Nik aldiz, uste dut edonork daukala bere nortasuna gordetzeko zuzenbidea, gura badu. Gainera, ez dut uste (nahiz eta ezagutu ez)

Santamañenekoa delakoak arazo haundirik izango lukeenik bere izena azaltzeko. Idazten denean izenak garrantzi gutxi dauka; idazten dena da garrantzizkoa. Eta kasu honetan erantzunkizunik eman beharrean bertsoon egileak egin beharko luke; ez ANAITASUNAK. Honetaz, Xabier Letek "frogak" ematen ez badira harpide baja egingo duela diotenean, benetako jokabide mehatxukor eta arbuigiarrira hartzen du. Beste zenbait egin duen bezala (begira 400. alean 37. orrialdean T.Trifolek dioena). Eta Xabier letek MUGAn, 6, zenbakian, "Reanudar el diálogo" artikuluan dioen hau: "Este ingrato y difícil papel de defensores de la causa vasca en el primer Parlamento democrático post-franquista español lo tuvieron que cumplir nuestras fuerzas políticas, en particular el PNV, en medio de la incomprensión, la mofa y el escarnio de quienes consideraron más conveniente — más cómodo, desde luego — el quedarse en casa pregonando su propia integridad...", zimarkutzat hartzen badut, zein da hartu beharko nukeen jarrera? MUGA gehiagotan ez irakurtzea? MUGAKoei ez zaie inportatuko, eta nire diruaren beharrik ez dute; baina niri bai, axolazkoa zait. Eta niri gehien gustatuko litzaidakeena euskera hain ongi ezagutzen duten pertsonak erabiltzea da eta ez gero dabiltenei eztena sartzea joatea. Horietxek baitira eztenkariak, ez beste.

Karlos Santisteban


38.



LUZETARA

1. Bizkaiko mendi; tradizioaz, paganoek eta kristauak gudukatu zuten han. - 6. Huts (zenbaki). - 9. Konforme, ados. - 10. Eskusa, atxakia. - 12. Bilbotar edo txori bat. - 13. La Pasionaria. - 15. "Nere aitak amari - gorria ekarri". - 16. Eguneroko jateko. - 19. Egiptiar edo syriar, adibidez. - 20. Erromatar enperadore ta suzale. - 23. Itxura gordetzeko (latinez; 2 hitz). - 24. Txile-ko poeta. - 26. Animalia "orraztuna". - 27. Mutur handia duen abere (diminutiboa). - 28. Laranja zati bat. - 29. Linguistek ikertzen dituztenak.

37.



38.ZENBAKIA

GOITIK BEHERA

1. Gaizki. - 2. Esan nahi denaren kontrakoa esatea. - 3. Penizilina eta streptomizina, adibidez. - 4. Biharko bihar. - 5. Eratorpena. - 7. Sei hilabete (2 hitz). - 8. Harem-neska, konkubina. - 11. " - Khantoria", erdi-haroko kantua (bariante). - 14. Lehen euskal gramatika ta hiztegien egilea. - 17. Externoa. - 18. Iturburua, sorburua. - 21. Eibar Bizkaian dago hizkuntzez, baina Gipuzkoan. - 22. Euskal mythologiak, pertsona txikiak. - 25. - Twain, Huckleberry Finn-en egilea.

ANAITASUNAKO OHARRA

Ekaina osoan zehar, Anaitasuna ez da Kaleratu. Mundu guztiak omen daki euskal prentsak pairatzen duen betidaniko krisialdia, oraingo faktore ekonomiko orokorrek hura gehietuz. Hala ere, gure aldizkaria, sekula baino gehiago galtzen da daukagun banaketa urria askotan agortuz.

Zorigaitzez banaketa hau handitzea ez da gure esku zeren, kostuak gero eta altxatuago lirarteke. Suskizioak beraz ditugu helburu. Aurten, zure suskizio-kopurua oraindik pagatu ez baduzu postordain bat iritsiko zaizu laster etxera. Emaiozu arren, zure harrerik hobe.

ANAITASUNA



1934-1935

ZEU PARA EUSKAL PRENTSA



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horregatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.


**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**